

EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

LI Zenbakia

2003n.urtea

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKARAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.

Z.N.A./C.I.F. G 20/127.759

Eusko Jaurlaritza-ren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO

AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (Olazar'tar Martin'ek)	5
Urteko ekintzak (Euskerazaintza'k)	6
Izkuntzalaritza (Olazar'tar Martin'ek).....	8
Euskaldunak gaur. (Zergaitik ONU). (Atutxa'tar Paul'ek)	23
Euskal elertia (Olazar'tar Martin'ek)	27
Lurgorri'ri omenaldia Aramaiona'n (Atutxa'tar Paul'ek).....	33
Euskalkiztia (Olazar'tar Martin'ek).....	40
Euskerearen edestia (Olazar'tar Martin'ek)	44
Erromatarren berbak euskeran (Olazar'tar Martin'ek).....	47
Euskaldunak eta inguruko erriak (Arrinda'ko Anes)	49
Antxiñako Euskalerria ta inguruko erriak (Arrinda'tar Anes)	54
Margolaritza (Olazar'tar Martin'ek)	70
Euskerari buruz Agiri Nagusia (Latxaga'k).....	89

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

ATARIKOA

Irakurle!

Emen dijoakizu Euskerazaintza gure aldizkariaren 2003n. urteko bigarren zenbakia. Asko poztuko giñake zuri atsegingarri eta euskal-arlo batzutara sar-tzeko bide argi izatearekin.

Lenengo idaz-lana “urteko ekintzak” idazpurua daramana dezu. Ez da or agertzen euskerazaiñak egiten degun dan-dana baiña bai, uste det, lanik nagu-siena. Idaz-lan onek zabalkunde lez balioko duela uste degu.

Eta gure zeregiñik aundiena izkuntzalari-alorreko zeregiña dan ezker, zenba-ki onetan gai au ugari artuko dogu. Izkuntzalaritza idazpurua daraman lana ez dezu besterik Saussure izkuntzalari ospetsuaren irakatsien laburpena baiño. Berak ez zuen ezer idatzi, baiña ikasleak artutako oarr’etarik aterako liburua da onein iturria gainera Saussure aundiak baten baiño ez dau aipatzen euskerea eta geu izan gara gai au sartu dogunak, aren irakatsiak euskera alorrera ekarteko.

Atutxa’tar Paul’ek euskaldunen eta Laterri alkartuak osotzen duten ONU’ren arteko arazoak argituko dizkitzu.

Izkuntzagaz batera joaten da euskal-elertia edo literaturaren edestia. Ainbat liburu argitaratu dira gai oneri buruz, geienak erderaz, baiña edesti au ez dago ondo aldietan banatuta, ez daukagu izendun aldiak agertzen dauzan edestirik eta erderazko Erdi-aroa edo berjaiotza edo barrokoa edo erromantikuena ez dira ain egokiak gutzat. Gizaldi utsak barik aldi izendunak agertzen dira emen eta azkenengo aldiak idazleak batu-barrian edo erri-bidean kokatzen dira. Ez guztiak. Jakingarriak Santi Onaindiaren ikastola-elerti’tik artuak dira.

Guztiok daukazute “36’ko gudaldian su-izkillutatuko idazle gazteak” gure liburuaren barria. Liburu ori Gipuzkoa’n, Bizkaia’n eta Araba’n aurkeztu degu, Aretxabaleta’n be bai. Danaren barria emoten dizute zeatz eta garbi Atutxa’tar Paul’ek.

Urrengo idaz-lanean euskerearen izkelkien edo euskalkien arazoa aztertzen dau Olazar’tar Martin’ek eta jakingarri asko Mitxelena’ren “Pasado de la lengua vasca” liburutik artuta dagoz, baiña asko aldatuta.

“Euskerearen edestia” idazpurua daraman gaia eta “Erromatarren berbak euskeran” daramana ere liburu orretatik artuak dira, baiña asko aldatuta.

Edesti-arloan oso jakituna dan gure Anes Arrinda’k idaz-lan eder bat ekarri dausku, antxiñako euskaldunen eta inguruko errien arteko artu-emonak oso egokiro agertzeko. Or datoz zeltak, indoeuropearrak eta erromatarrak batez be.

“Margolaritza’ren edestia” labor-labor egiña da baiña pozik irakurtzekoa eta margolaritzan erabilten diran itz asko euskeratuta aurkituko dituzu: Tapiz, mosaiko, ikono, barroko, klasikubarri, kubismo, dadaismo, ultraismo, impresio-nismo, expresionismo, ta abar. Ez da erreza noiz kanpoko itza artu eta noiz etxekoa jakitea, batez arlo onetan, “margo” bera be oraintsu sartua da-ta. Ikusi Azkue’ren iztegia’n.

Olazar’tar Martin’ek

URTEKO EKINTZAK

SENIDEOK:

Urteroko batzar onetan legezkoa da Euskerazaintzaren lendakariak bere txostena aurkeztea eta ori egitera noa une onetan.

Asteko, ezin itzi aitatu barik oraintsu il jakun euskaltzain naparra, Satrustegi, ez adiskidea izan dalako eta ez euskerearen aldeko lanetan gure bideari jarraitu dautsolako, euskerearen alde bere bizitza osoan eta gogo onez lan egin daualako baiño. G.B.

Nire lendakaritza urte birako izaten da eta urte bikiak barik batkiak diranean aukeratzea egiten dogu eta aurten be egingo dogu urte onen azkenerantza.

Joan dan urteari begira, lenengo gogoratu bear doguna auxe da: Utero-edo lan bat aukeratzen dogula egiteko eta aspaldion eskuartean erabili dogun lana argitaratu dogun liburuan agertzen da. Onen idazpurua “36”ko gudan su-izkillatutako idazlea gazteak.

Liburu ori, Jaurlaritzaren laguntzaz, milla ta seireun lekutara edo notiñai bialdu dautsegu, liburutegi ta ikastegi guztietara, Iparraldean naiz Egoaldean, bertolariai eta gazteen kultur-taldei ta abar.

Erri-aurrean iru lekutan aurkezten dogu liburu au: Donostian aukezpen ederra egin zan Mitxelena Aretoan, Bilbao’n apalagoa Euskerazaleak alkartearen egoitzean eta ederragoa egiteko ustea dogu Aramaiona’n. Izan be erri onetan bizi izan zan Lurgorri edo Jose M^a Azkarraga idazle gazte eta trebe su-izkillatua. Ekintza au Aramaio’tarrakaz batera gertatzen dogu eta ekintzetan Mai-Buru Joseba Azkarraga, Jutzizia’ko Sailburua izango da, Lurgorri’reñ illobea dalako. Datorren illearen 11 ta 12n. egunetan izango da.

Eta illoba dan Velez de Mandizabal’ek liburu bat, beronek idatzia, aurkeztuko dau eta gure liburuagaz batera banatuko da errian. Lurgorri’reñ idazki guztiak agertzeko erakusketa bat be izango da.

Urrengo izango dan urteroko lana oraindiño aukeratu barik daukagu, baiña gai bi agertzen dira: Astoen izenak Euskalerrian eta Bidalgoko ikurrak eta Euskalerria.

Web-orri bat Euskerazaintzaren eta Euskerazaleak’en izenean agertzea be onartu dogu, eta or gure aldizkari bietan agertzen diran lanak errira zabaltzeko aukerea izango dogu. Azkenengo zenbaki bietako lanak sartu doguz eta orain aurkezpen bat egiten diardugu, Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren edestiko egia agertzeko. Au da sarrerako ikurra (www.euskerazaintza.org).

Gure aldizkariaren zenbaki bi urtero agertzea nai genduke, baiña eziña biurtu jaku asmo ori, diru-urritasunagaitik. Igaz bat be ez dogu argitaratu baiña aurten bat agertu da eta beste bat gertatzen ari gara. Nik idaz-lan luze bat egin dot, Saussure izkuntzariaren liburuari jarraituz euskerearen muiña agertzeko. Urtebarruan agertuko da bigarren zenbaki au.

Tolosa’ko aretoa saltzeko alegiñak egiten diardugu aspaldion. An pillatuta egozan amalau tona liburu tona liburu bota doguz, geienak atxea eukelako onartuak izan ez ziran ikastola-liburuak. Orain areto ederra daukagu an salgai baiña, zori txarrez, ez dator eroslerik. Ba-daukagu itxaropena eta alokari bat ba’lego nork-erosia be ba-dago. Salneurria ogeita zortzi bat milloi izango litza-ke eta diru orren mozkiñagaz langutza aundi bat izango leuke Euskerazaintzak.

Euskerazaintzak egindako lanen artean Bixente Latiegi'k egin dauan Oska'ko euskerearen edestia da bat... Jaurlaritzaren laguntzaz eta bertako Balaguer jauna be lagun dala, lan ederra egin dau Bixente'k eta liburuska bat argitaratu dau billaketaren ondorena agertuz Euskalerrriaren Lagunen Alkartean. XV gizalditik XVII'era uri aretako azokan itun-agiriak euskeraz ez egiteko agin-dua agertzen da.

Bixente'k gaiñera aspaldion lan aundia egiten dau Euskalerrriko idazki zarrak aztertzen, bai Donemiliane'koak eta bai Piña'ko Jon Deunaren monastegikoak. Or agertzen diran izen euskaldunak dira gai. Gaiñera bere Eleizearen edestia, amar bat liburu izango dauzana idazten jarraitzen dau.

Nik auten elebarri bat argitaratu dot, euskeraz eta erderaz, idazpuru au dauala: Mungialde'ko kristiñauak VIII gizaldira arte. Or agertzen da Bixente'k bereak aitatu eta gero Andres Mañarikua'k sakonago azertu dauan Acosta edo Okoizta'ko monastegia XIII gizaldian. Izan gara erri aretan eta euskerearen alde indar aundi bat aurkitu dogu an. Parrokia bera izango zan Monastegia, agiri zarrak diñoenez, Gorbeipean eta Elosu'tik urrean, Bixintxo deuna zaindari dala. D. Biberegotzaiñak aberastu eta goratu eban. Au izan zan Armentia'ko 1º gotzaiña VIII gizaldian eta lurralde asko ta parroki asko emon eutsozan Okoiz-ta'ri emen bere anaia zan abat.

Euskerazaintza erleutz baten antzekoa da eta bakoitxa bere lanean dabil gure artean: Paulin olerkigintzan, Zubiri liburu barriak gertatzen, Atutxa Idazlanak eta itzaldiak gertatzen, Arrinda bere billaketa lanetan eta abar. Gure gomutakia ezer egin eziñik daukagun Augusti Zubikarai langille asper-gaitzarrentzat.

Olazar'tar Martin'ek.

IZKUNTZALARITZA

1.0. SAUSSURE'REN LIBURUA.

Ferdinand de Saussure izkuntzalari oso ezaguna da (1926'tik 1931'ra irakatsi eban Bierna'n) eta positibisten aldiko lez artzen da, naizta pizka bat lenagokoa izan, eta bere irakatsiak betirako geratzen direnetarikoak dira.

Iru ikasturtetan irakatsi eban Bierna'ko Ikastetxe Nagusian baiña ez eban ezer idatzi. Irakasteko erabilten ebazan orritxuak be galduak dira. Bere ikasleak izan dira, bera il zanean, liburu au idatzi ebenak, idazpurua "Izkuntzalaritza orokorren ikasturtea" zala. Orretarako iturri lez ikasleak artutako oarrak batu ebezan eta iru ikasturteakaz bat egin.

Nik liburu au barriro irakurriko dot eta batera laburpena idatzi, irakurleentzat jakingarria dana kontuan artuta eta al danean euskerearen arazoak sartuta.

1.1. Izkuntzalaritzaren edesti laburra.

Izkuntzalaritza asieran ez zan besterik gramatika baiña eta Grezia'n asi egin zan baiña askoz geroago, Frantzia'n batez be jarraitu eban. Elburua ez zan besterik izkuntza idatzian naiz berbazkoan ondo eta txarto zer dagon agertzea baiña. Gramatika ez da besterik ikuspegi laburreko arau batzuk baiña.

Bigarren urratsa "filolojia" izan zan. Au Alexandria'n asi zan baiña 1777n. urtera arte ez eban gauza aundirik egin. Urte onetan Wolf'ek emon eutson gaur arte daukan bizi barria.

Filolojia'ren elburua idazkiak aztertzea eta elertiaren edestia dira. Izkuntza bera aztertzen ba'dau ez da bestetarako aldiak alkarren parean ipinteko baiña eta ortik ateraten da izkuntzaren edestia. Baiña jokabide onetan izkuntza idatziari begiratzen jako geien eta ez bear dan beste agozkutzen dan izkereari.

Irugarren urratsa 1816n. urtean asi eban Franz Bopp'ek Sanskrito deritxon izkuntzaren aditz-jokoa agertuz eta onen elburua ez zan besterik izkuntzak alkarren artean konparatzea baiña eta sanskritoak bidea idegi eutson jermanieragaz, gerkeragaz eta lateragaz konparaketak egiteko. Asko zabaldu zan orduan izkuntzalaritzaren ikuspegia, baiña askoz geiago Bopp'en eskolakoak ziran Max Müller, Georg Curtius eta August Schleicher sartu ziranean: Müller'ek 1861n. urtean izkuntzaren zientzia agertu eban, Curtius'ek 1879n. urtean gerkeraren etimolojiak eta Schleicher'ek 1861n. urtean indo-jermaniko izkuntzen gramatika. Orrelan konparaketa asko zabaldu zan.

Dana dala, konparaketearen bide onek be ekarri ebazan oker batzuk eta oker orreik ikusita gerokoak bide zuzena errezago aurkitu eben.

Benetako izkuntzalaritzak konparaketa bere lekuan ezarri eban eta ori lortu zan latinkumeak diran izkuntzak eta jermaniera batera aztertu ziranean, batez be 1836n. urtean Diez izkuntzalariak erromantzeen gramatika argitaratu eban: latera ondo ezagutzen eban, erromantzeak be bai, eta aukera asko eukazan agirietan latinkume edo erromantzeen edestira begiratzeko. Antzera egin eban jermanieragaz be. Antxiñako jermanieraren errasturik ez eukan, baiña onen umeak diran izkuntzak aurrean eukazan eta gizaldi askotako agiriak be bai.

Ameriketar bat izan zan, Witney, 1875n. urtean "Izkuntzaren bizitza" liburuaren bidez lanak aztertu eta bultzatu ebazana.

Baiña emen geien gogoratu bear doguzanak “neogramatiku” edo garamati-lari barrien lanak dira. Guztiak dira alemanak: Karl Brugmann, H.Osthoff, W.Braune, Eduard Silvers, Herman Paul. Oneik konparaketa eta izkuntzen edestia alkartu ebezan. Baiña oraindiño bide luzea dago egiteko.

1.2. Izkuntzalaritza ta beste gaiak.

Izkuntzararitza gaia erri atzeratuen naiz aurreratuen izkerak dira, antxiñakoak naiz oraintsukoak, esaera zuzenak naiz okerrak. Orretarako sarritan idazkiak artu bear izaten dira izkuntzak antxiñakoak edo urriñekoak diralako.

Zertarako dan izkuntzalaritza? 1.-Izkuntzen edestia eta gaurko izaerea aztertzeko eta orretarako izkuntzak sendietan sartzeko eta sendi bakoitzean ama zein dan agertzeko. 2.-Zerk aldatzen dauzan aztertu eta arauak aterateko. 3.-Izkuntza bakoitza bere lekuak ezarteko. Orretarako beste gai batzuk artu bear dira kontuan, esaterako enda-iztia, edesti-aurrea, giza-iztia, gogo-iztia, gizarte-iztia, giza-gorputzaren zatiak...

Ba-dakigu izkuntzalaritzak eta filolojiak dauken zer-ikusia.

Baiña zertarako dogu izkuntzalaritza? Guztientzat ditu jakingarriak eta guztientzat da izkuntza garrantzitsua. Ezarri euskerari oraintxe esan doguzanak.

2.0. IZKUNTZA, IZKERA TA IDAZKERA

2.1. Izkuntzea zer dan.

Izkuntzeak gai asko ta zabalak daukaz barruan eta ez dauka beste gai batzuren ziurtasun edo zeartasunik, esaterako matematikarena. Guk “billuz” esaten dogu eta ba-dakigu zer dan, baiña aztertu daigun abots lez edo burutasun lez edo latiñeko “nudus” egaz konparatuta. Zer artu lenengo?

Gaiñera, agokaldiak edo silabak gure agoak oguzkatzen dauz eta entzumenak artu. Or gauza bi dagoz: zelan agozkatu, zelan dunduri biurtu uinak eta entzun. Dunduriak egiten dau izkerea?

Gaiñera oraindiño, gizarte-arazoa dago eta ori edesti luze baten ondorena da. Beti geratzen da zerbait guk eskuratu ez doguna. Zer egin? Banaka zatiak aztertu? Guztiak batu arte itxaron?

Zer da ba izkuntza? Barriak emoteko bakoitxak daukagun almen bat eta alkar ulertzeko arauak?

Abotsak artu barik beste bide batzuk artu eikezan gure barriak besteai emoteko, esaterako irudiak egitea edo kiñuak erabiltea.

Izkuntzaren lekua buruko garaunetan bekokiaren ezker-aldean ei dago. Ori jakiteko berba egin ezin dabenen gaisoa aztertu bear da. Berbazkoa ta idatziko nastaten dira or eta ez da abotsa egin-eziña ortik aztertzea baiño. Orduan gorago dagon almen bat daukagu eta gizarteak be ba-dauko or zer-ikusia.

2.2. Non kokatzen dan.

Ikusi dagigun berbeak daroan bidea. Gizaki bi ipiñi daiguzan, gitxienez, alkarren aurrean eta makobilla sortzen da bien artean. Baten buruan asten da ideia bategaz eta onen ezaugarriagaz, buruak abotsa agintzen dau eta uinak sortzen dira, uin oneik baten agotik bestearen entzumenera doaz eta emen alderantziz, uinak abots biurtzen dira eta burura doa eta emen abotsa ideia biurtzen da.

Besteak beste orrenbeste egiten ba'dau, dana egiten da alderantziz (or daukaguz mezua, bidea eta kodea). Ba-dagoz or fisika-gaiak, fisioloji-gaiak, gogo-gaiak eta abar. Gai zabala ta korapillotsua benetan.

Zeatzago esateko, or daukaguz kanpoko gaiak, uñak, eta barrukoak, abots biurtzea eta ulertzea. Alderdi bat da egillea eta beste bat artzaillea, gaiñera gizarteak dau or zer-ikusi aundia eta orregaitik izkuntza ezaguna ez danean ondo egin arren dana geratzen da ulertu barik, zarata utsetan. Eta izkuntza komunikatzea da; orretarako gaiak apurka-apurka buruan pillatzen doazela, ume txikien buruko garaunetan asita, egunerik egunera.

Orrez gaiñera izkuntza idatziak bere ikurak edo grafemak daukaz eta arauak be bai eta orretarako dira gramatikak eta iztegiak.

2.3. Adierazteko ikurak (semiolojia)

Izkuntza gizartearen asmapena da eta beste gizarte-asmapen askoren artean benetan aundia:Ikurraz burutasuna agertzea da eta ikurren mundu zabal oneri semiolojia deritxagu, gerkeraz "semeion" ikurra dalako. Orregaitik ondo jakin bear da ikurak zeintzuk diran eta euren arauak nondik nora doazen.

2.4. Izkuntza ta izkera

Asi gaitzean euskerearen arazoa aztertuz: Izkera banakakoak eta erriak dauke. esaterako Barandiaran'en izkera edo Bermeo'ko izkera, izkuntza, ostera, goragoko maillan dago, Bizkai'ko izkuntza euskerea da, Gipuzkoa'koa be bai orduan lau izkuntza dira euskeran? Izkuntza bat da euskerea? Arazo zabala ta sakona da au emen zeatz aztertzeo baiña lau euskera oneik diasistema dira, sistema bakarra dauke.

Berba egiteko otsak sortu bear dira, orretarako kanpoan dagoz ots-gailluak ots egiteko gertu, naizta beti zuzen egin ez, ori anatomi-zaleak azertu bear daben arazoa da. Baiña ots orreikaz egiten da izkuntza, ez baten gauza lez, gizarteratuta baiño. Entzunda ikasten da berba egiten.

2.5. Izkuntzaren barrua ta kanpoa

Kanpoko izkuntzalaritzak bere garrantzi aundia dauka. Or sortzen dira endaziaren arazoak, (enda bakoitxak bere izkuntza daroa), or baita izkuntzaren aldakuntzak edestiko gizaldien joanean, or dagoz itzen barruan joandako kulturaren urratsak... izkuntza da aberria egiten dauana, euskereak egiten dau Euskalerra.

Edestiko jazokizunak, esaterako Erromatarren aginterria, euren ikutua dauke izkuntzan, euskeran be bai eta antzeko zerbait esan bear kolonietan edo Ameriketan, gaiñera laterri askok billatzen dabe izkuntza bakarra eukitea, esaterako Frantzia'k edo España'k. Izkuntzaren kanpotik dakarren indarra beste erakunde batzuk, esaterako Eleizeak, eskoleak, lantokiak, azokak... eta ortik sortzen dira elertiak edo literaturak. Izkuntza idatziaren edo batuaren eta euskalkien artean beti dagoz arazoak.

Izkuntzak asko zabaltzen diranean zatitu egiten dira, latiñari jazo jakon lez, eta gaur gaztelerari jazoten jakon lez, batez be ingles indartsua alboan daukanean. Landarea lurak eta giroak aldatzen daben antzera aldatzen dabe izkuntza kanpoko arazoak eta izkuntza idatzia izaten da eusle.

Or ikusten da arriskugarria dala maillego-itzak edo prestamuak ugariegi artzea. Baiña begiratu daigun izkuntzaren barrura: Izkuntza bakoitxak bere

bidea artzen dau itz-gaiak alkartzeko eta ori ez da aldatzen kanpotik, Xeke-jokoa Persia'n naiz emen bardin egiten dan lez, irudiak bardiñak izan ez arren barruko arauak daukazalako.

2.6. Izkuntza idatziaren indarra

Bakoitxaren buruko garaunetan daukaguz ba, izkuntzaren datuak pillatuta, baiña izkuntzarik geienak idazkietatik ezagutzen doguz. edestian naiz lurzabalean urrin daukaguzalako eta aztertzeo idatzia baiño ez dauakagulako.

Gauza bi oso ezbaridiñak dira izkuntza agoztua eta idatzia eta bigarren au lenengoaren menpean dago.

Askok uste dau izkuntza idatzia dagoanean gitxiago aldatzen dala agozkatua eta ori ez da orrelan, aldakuntzen epeak luzatu egin leikez baiña euren bidea jarraituko dabe.

Dana dala, izkuntza idatziak izen ohea dauka agozkatuak baiño. Zergaitik ori? Irudi grafikoak indar geiago daukalako, ikusiak indar geiago daukalako entzunak baiño; gramatikak eta iztegiak idatziak diralako, eskoletan idatziak indar geiago daukalako, baiña berba egiten ikasten da lenago idazten baiño.

Idazteko jokabide bi baiño ez dagoz: Burubidezkoa edo ideografikoa bata, onek berba bakoitxari emoten dautso ikur bat abotsak kontuan artu barik. Orrelan esaterako txinatarren izkuntzak. Eta bestea abotsezkoa, onek abotsak artzen dauz kontuan eta ortik izenak eta itzak. Abotsezkoen eredia gerkerda da.

2.7. Izkuntza beti aldatzen

Izkuntza aldatzen doa beti urteen joanean eta gizaldietan eta ortik sortzen da buru-auste bat: Zein mailla artu? Adibidez: oloa, ollua, oillu edo etxea, etxia, etxi. Azkue' k oillua artu eban edo etxea, Sabino Arana'k oillua edo etxia. Aurre-rapen ori dala-ta, beti dago borroka agozkatuaren eta idatziaren artean

Edestiko aldakuntza orreitatik sortzen dira idazkera edo ortografiaren arazoak. Berez abots bakoitxak ikur bat bear leuke eta ez kilo, queso ta casa abots bakarra idazteko. Orrantza jo eban euskereak Sabin eta Azkue'ren artean egin-dako konponketaren ondoren. Ba-egozan oker batzuk, baiña gure ortografia erreza zan, gaur osterata batuzaleak dana nastatu dauskue beste aldakuntza oker askoren artean atxea sartuta. Izkuntza guztietan da kaltegarria agozkatzen ez dan atxea eta kendu egin bear litzake.

3. ABOTS-SORTZEA TA ABOTS-IZTIA

3.1. Abotsak zer diran

Izkuntzak gitxi landu dabezenak izki idatziai begira dagoz, baiña izki idatzia ez da ibilteko katxabea baiño. Aztertu bear doguna abotsa bera da eta au aberatsagoa da.

Abotsa zelan sortzen dogun eta zelan aldatzen doan begiratzen ba'dogu, abots-sortzean edo fonetikan gagoz.

Abotsa geienetan geldi dago, berau sortzen daben ots-gailluak be beti berberak dira-ta. Esaterako euskeran etxea, etxia, etxie eta etxii esaten dauz erriak, baiña abotsak e, tx, e, a dira eta besteak aldakuntzak edo alofonak eta abots-sortzearen edo fonetikaren makaltasuna agertzen dabe.

3.2. Zelan idatzi

Abots bakotxari bere ikurra ezarri bear jako eta orretarako abede edo alfabeto barri bat bear da eta izkuntzalariak sortu be egin dabe, baiña eurentzat baiño ez dau balio. Abede barri ori bat bera da izkuntza guztietarako eta orrellan ondo alkar ulertzen dira eta ba-dakie toki bakoitzean abots bakotxa zelan agozkutzen dan.

3.3. Idatzia aztertzen

Abotsak edo fonemak ziurrak eta geldiak dira eta izkuntza bakoitxak bereak dauz eta ez dau ardura ainbeste erabiltzen diran ortografi-ikurrak zentzuk diran. Urrengo itz oneitan lenengo izkia iru eratara idatzi arren abots bat bera da: “kilo”, “cama”, “queso” ortografi edo idazkerea ona ba’litz, irurak ikur bakarra bear leukee.

Orduan zelan jakin zeintzuk izan ziran abotsak antxiñakoa dan eta gaur ilda dagoan izkuntza baten, esaterako lateran edo sanskritoan?

Lau bide artu geinkez billaketa ori egiteko: 1^a. -Aldi aretan bizi ziranak gai orreri buruz esan ebena. Esaterako, zelan esaten eben latiñean “kaelum” ala “txelum”?

2^a. -Abotsak gero agertu dauan ondorena kontuan artu eta nondik etorri dan aztertu, esaterako “pacen” euskerara “pakea” biurtu da. 3^a. -Aldi aretako idazkera ezbaridiñak be laguntzen dabe. 4^a. -Aldi beretako olerkiak be laguntzen dabe, azken bardiñak daukezenean. Ondo aztertu bardiñak zentzuk diran eta zeintzuk ez.

Izkuntza bizia danean entzutea da naikoa baiña ba-dagoz lagungarri batzuk agoaren zein tokitan agozkutzen dan jakiteko, esaterako palatografoa. Or margo baten bidez ikusten da miñak non ikutu dauan sabaian ala alboan ala agin-obian.

4.0. Euskerearen abotsak

4.1. Abotsa zer dan.

Arlo onetan gitxiago Saussure’ri geiago nire maixu-lan txiki edo tesinari jarraituko dautsagu.

Esan daigun argi ta garbi gutzat abotsa edo fonema zer dan: Berba egiteko agotik ateraten dogun otsa edo zaratea da, baiña ots onek aldakuntza asko eukiten dau eta abots lez artzen doguz adierazpena aldatzen dabenak, esaterako “etxea” eta “errea”, itz oneitan bigarren otsa aldatu dogu eta esannaia edo adierazpena aldatu da, orduan fonemak edo abotsak dira, baiña “gozoa” “goxoa” esaten ba’dogu adierazpena ez da aldatu orduan ez dira abots bi. “Pertinente” esaten eutsan oneri Alarcos nire irakasleak (Oviedo’n).

4.2. Non kokatzen diran.

Aztertu daigun orain abotsak non kokatzen diran: Abots bakartiak esan jake antxiñatik bakarrik agoztatzen diranai edo bokalai, eta lagundunak ostera, bakarrik ezin agozkatu leitekezanai edo konsonanteai.

Bakartiak edo bokalak onelan zeaztuten dira. Eztarriko zabala a, e sabaiatzekoa erdi itxia da eta sabaiko itxia i, ezpanetako zabala da o eta ezpanetako itxia u.

Zeaztu daiguzan orain lagundunak eta euren kokalekua ta berezitasunak: Batzuk ezpanetan agozkatzen dira: m, b, p, f; beste batzuk agiñetan: d, t, s; beste batzuk aginobietan: n, l, r; beste batzuk sabaian: ñ, ll; eta azkenez beste batzuk eztarrian: g, k, j.

Baiña toki bakoitxean agozkatzen diranak be beste zeaztasun batzuk daukez eta azaldu daiguzan.

4.3. Zurreratuak: iru dira: m, n, ñ. Oneik otsa aterakeran zurrera bialtzen dabe aizea eta orretara ots bereizia sorzen jake. Esan daigun n izenetan sarritan galtzen dala, esaterako kanpana/kanpaia, katena/katea edo Lemo-na/Lemoa, baiña ez ain errez aditzetan: egon, igon, egin... Ñ aspaldion arriskuan dago eta in biurtzen dabe batuzaleak eta ordenagailluak be kendu nai izan dabe Europa'n gitxi erabilten dalako, baiña españatarrak aldeztu dabe eta guk be bear dogu benetako abotsa dogulako. Idazkeran ll ta ñ'ren aurrean i ipinten da eta kendu egin bear litzake, i ori ñ ta ll'ren barruan dagoalako. Ez "baiña"ta "oillo", bai "baña" ta "ollo".

4.4. Albokoak: I agin-obikoa da eta II sabaikoa eta oneik oguzteko miñak alboan ikututen daualako albokoak be esaten jake ots berezi ori daukelako.

4.5. Dardaradunak: r eta rr dira eta oneik agozkatukeran eragin berezia dauke, dardarea, bat edo bi. Orregaitik deritxe dardaradunak.

4.6. Gozoak: esaten jake aize-bidea oso-osoan itxi barik esaten diranai eta gogorak bide ori osoan ixten dabenai, esaterako gozoak dira b, d, g, eta gogor-rak p, t, k. Gozoak, gitxienez bakartien bestean dunduria dauke eta orregaitik esaten jake sonorak edo dunduridunak. Oneik agozkatzen asten garanean beti lenengo dunduria ateraten dogu, ez besteakaz.

4.7. Iguziak edo frikatibak: oneik aizeari urteten izten dautsoe eta ez dira zarratuak edo oklusibak. Eztarrian j daukagu, jauna ta Jainkoa itzetan lenengo abotsa, sabaian ez daukagu iguzirik, (Bizkaia'n ogije) agiñetan erderazko z izan-go litzake baiña euskereak ez dauko eta agin-ezpanetan f da iguzia.

4.8. Txistulariak: Berezitasun au agin-obiko s'arena da eta sabaiko tx'rena eta x'rena be bai.

4.9. Euskerearen abotsak

Zeaztasun oneik kontuan artuta eta aspaldion darabilgun abedeari jarraituz, zeaztu daiguzan euskerearen abots edo fonemak:

a- bakartia, eztarikoa, zabala

b-lagunduna, ezpanetakoa, gozoa, dunduriduna

d-lagunduna, agin-ezpanetakoa, iguzia, dunduriduna.

g-lagunduna, eztarikoa, gozoa, dunduriduna.

Atxea ez da abotsa eta ainbat lasterren kendu bear da gure abedetik.

i-bakartia, sabaikoa, itxia.

j-lagunduna, eztarikoa, iguzia, dunduribakoa. (Jauna, Jainkoa)

k-lagunduna, eztarikoa, gogorra, dunduribakoa.

l-lagunduna, agin-obikoa, iguzia, albokoa, dunduriduna.

ll-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, albokoa.

m-lagunduna, ezpanetakoa, gozoa, dunduriduna, zurreratua.

n-lagunduna, agin-obikoa, gozoa, dunduriduna, zurreratua.
ñ-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, zurreratua.
o-bakartia, ezpanetakoa, zabala.
p-lagunduna, ezpanetakoa, gogorra, dunduribakoa.
r-lagunduna, agin-obikoa, dunduriduna, dardaraduna
rr-lagunduna, sabaikoa, dunduriduna, dardara biduna.
s-lagunduna, agin-obikoa, dunduribakoa, txistularia.
t-lagunduna, agin-obikoa, dunduribakoa, gogorra.
tx-lagunduna, sabaikoa, dunduribakoa, txistularia.
ts-tz-lagunduna, sabaikoa, dunduribakoa, gogorra, txistularia.
x-lagunduna, sabaikoa, dunduribakoa, iguzia, txistularia.
y-azpaldion kendua dago baiña aztertu-bearreko arazoa da.
z-lagunduna, agin-obiko, dunduribakoa, iguzia, txistularia.

4.10. Zuzendu-bearrekoak

Guztiz 24 dira gure abotsak edo fonemak eta idazteko ikurra be geienak argi dauke. Baiña idazkerarako iru zalantza agertzen jataz: Lenengoa, rr idatzi baiño oba litzake gangarduna, baiña irarkoletan eta ordenagaillutetan ez da ain erreza izaten lortzea; eta Azkue'k bere iztegian agertzen dauzan eta tx, ts ta tz'ren ordezeko diran ikurrak artzea be ondo izango zan, baiña orain itzi daigun arazo ori. Bigarrena J'ren arazoa da, eztarriko abotsarena, jauna ta jainkoa idazteko erabilten da eta Gernika-aldean bai "joan" esateko be. Zer egin? Beti esan iauna ta iauna ta iankoa eta beti idatzi j'gaz? Ala beti agozgatuz eztarriko j lez?

Eta irugarrena esan dogun ll ta ñ'ren aurreko i kendu bearra da. i ori izki orreïn barruan dago.

5.0. Berbak eta adierazpena

Abots edo fonemak osotzen daben berbeak ez dau eukiten zer-ikusirik adierazpenagaz, oso-osoan naikerazkoa edo arbitrarioa da.

Ba-dira kasu batzuk zer-ikusia daukenak eta naiago geunke beti orrelan ba'litz.

Esaterako, zuzentasuna ondo agertzen da balantzeagaz eta ez ain ondo atxurragaz, lana, ostera ondo agertzen da atxurragaz eta ez ain ondo balantzeagaz, baiña berbeak berak ez dau ori adierazten, beste berba bat izan leiteke eta da beste izkuntza batzutan.

Onomatopeia danean be ba-dago zer-ikusia berbearen eta adierazpenaren artean, esaterako ordulariaren tik-tak edo txakurraren guau-guau esaten edo idazten danean. Oneitan berbeak ba-dauko zer-ikusia adierazpenagaz, baiña gitxi dira. Oillarrak Frantzia'n "Coquerico", España'n "kikiriki" eta Euskalerra'n "kukurruku" egiten dau.

Mimoetan be berbak ez baiña kiñuak ba-dauke zer-ikusia, esaterako japonsarrak irutan agintari-aurrean makurtzen diranean. Olako itzak geiaigo bear litzakez.

Aienak edo asperen-itzak be urrago dagoz euren adierazpenetik-esaterako "ai" baiña ez dira bardiñak izkuntza guztietan, bai antzekoak.

Berba gitxi dira olako zer-ikusi berezia daukenak. Ikurrik geienak naierezkoak edo arbitrarioak dira.

Baiña adierazpenaren ikurra ez da geure naierara aldatzekoa, gizarteak bearitzen gaitu ikur bat edo bestea artzera, askatasuna izkuntzaren kode barruan, batez be gramatikearen eta iztegiaren barruan, dago eta kode au beteten ez

ba'dogu alperrik da berba egitea, ez dogu alkar ulertzen. Or gure aurretikoak eta inguruko gizarteak dauke aginpidea. Orregaitik izkuntza erriarena da eta iñok ez dauko eskubiderik aldatzeko. Izkuntzaren akademiak ondo ezarria da ikur-esaldi edo lema au: "Limpia, fija y da esplendor", garbitu, sendotu eta argitu, baiña ez aldatu edo asmatu.

Iñoz jazoten da, ostera, izkuntzalari batek itz barri bat sartzea esaterako "arnari" itza okerbidez sartu eban Azkue'k. Beste arazo bat dira Arana'tar Sabin'ek sartutako itz barriak edo neolojismoak. Erriak onartu dauzanak izkuntzaren altxorrera sartu dira, esaterako "zerua"ren orde "donokia" eta beste itz eta giza-izen asko: Kepa, Joseba ta abar.

Beste alde batetik, urteen joanean izkuntza beti dago aldatzen eta toki batzutan aurrerago eta beste batzutan atzerago geratzen da, eta ori ez dago izlari baten edo batzuren aukeran, berez doa aurrera. Bizkai'ko euskeran, esaterako, Arratia'k gitxi aldatu dau (etxea, ogia) Mungialdekoak geiago (etxie, ogixe) eta Ondarroa'koak geien (etxi, ogixa). Eta argiago gauzea ikusteko, erromantzeak erdian geiago aurreratu dau eta alboetan gitxiago, gaztelerea aurrerago dago (mucho) galizieraz eta katalaunieraz atzerago dago (muito).

Ori izkuntzaren legea da aurrerabidean eta izkuntza asmatuetan be beteko da. Esperantoa bera be toki askotan erabilten ba'da, asmatzailleen babesetik urrin dagonean, toki ezbaridiñetakoak ez dabe alkarren esperantoa ulertuko.

Eta ez bakarrik fonema-arloan, adierazpen-arloan be izkuntzak bere bideak artzen dauz. Zer da "alameda"? Izkuntza baten izan leiteke zumarrak dagozen lekua eta beste baten ibiltokia.

Zerk sortzen dauz aldakuntza orreik? Geien eragiten dauzana izkuntzaren ekonomia da, alegin gitxiagogaz bardin adierazteko guraria. Esaterako "egin esan-bearrean "in" esaten dogu: "in jot" "egin dot". Eta latinkumeetan be bardin jazo da, "noche" esaten da alegin gitxiago bear dualako "noite" k baiño.

Izkuntza aztertukeran sinkronia ta diakronia artu bear dira kontuan: Sinkroniak izkuntza aldi baten artzen dau eta diakroniak aldien joanean aldakuntza orreik artzen dauz kontuan.

Azkenengo arlo onetan sustratoa edo azpian egon zan izkuntza, adstraktoak edo alboetan dagozanak eta superestratoa edo gaiñetik datorrena artu bear dira.

Esaterako, alboan euki doguz kelten eta iberoen izkuntza, latiña eta arabiarrena, eta geroago erromantzeak, azkenengo onein artean Aragoi eta Naparroakoa eta gaztelera. Izkuntza orreitatik maillego-itzak edo prestamuak artu doguz edo emon dautseguz. Esaterako non sortu da Europa osoan ain zabal dabillen "landa" edo "fraka" edo Italian gaur erabilten dan "gona" eta noiz edo nondik sartu jakuz "espeju" barik "izpillu" edo "akullu"? Eta "legea", "parkatu" eta abar?

6.0. ABOTSEN SINKRONIA TA DIAKRONIA

6.1. Zer diran

Une baten erabili dan izkuntza, euskerea gure onetan, agertzen ba'dogu, agerketa ori sinkronikoa da eta urteen joanean egin dauan aldakuntza aztertzen ba'dogu diakronikoa.

Arau ori argia da berez, baiña azterketa egikeran illundu egiten da. Orintxe, une onetan, azterketa egiten ba'dogu, izkuntza, bizkaiera, atzerago dago Arratia'n Bermeo'n edo Ondarroa'n baiño. Orduan une onetan egiten dogun bizkaierearen ebaketa, sinkronikoa dala dirudi, une batekoa dalako, baiña barruan daroa diakronia be, aurrerapena ez-bardiña dalako. Azterketa oneri diakronikoa diñotsagu.

6.2. Azalpena

Or izkuntzaren legeak agertuko doguz, baiña ez uste izan aginduak diranik. Ez. Jokabideak obeto esana litzake legeak baiño. Dana dala, legeak esaten jarraituko dogu. Gaiñera bide ori edo antzekoa artu dabe beste arlo batzutan be, fisikako legeak esaten da.

Sinkronia ta diakronia zer diran agertzeko Saussure'k adibide batzuk dakaz. Kurutze baten ezkerretik eskumara doan lerroa litzake sinkronia eta goitik bera-koa diakronia. Ezkerretik eskumara doana gorantza edo berantza ba'daroagu zein maillatan azterketa egiten dogun agertuko da. Sinkroniak izkuntzalaritza geldia dakar eta diakroniak aurrerabidekoa.

Beste irudi bat argazkia da. Argazkia beti da sinkronikoa, une bat artzen daualako, baiña argazkiakaz zinea egin ezkeror antz geiago dauko diakroniagaz.

Beste irudi bat zugatz-enbor batena da . Ebagi bat egiten ba'dogu une bate-ko bizia agertzen dau, baiña ebagi orretan dagoan ezaugarria enborrean goitik bera ikusten ba'dogu, orduan diakroniaren antzekoa litzake.

Xeke-jokoa da beste irudi bat. Dana geldi dagonean sinkronia adierazten dau baiña aldakuntzak egiten diranean diakronia sartzen da. Ez aitzu barruan aldatzen ez diran gauzak dagozela eta sinkroni-antza dauke eta izkuntza bera alda-kuntzak gorabera bizirik dagoala adierazten dau. Ori ez ete da pankroniarako bidea?.

Aldakuntzat egiten dauzana ez da izkuntza, bakoitxaren edo inguruaren izke-
ra baiño.

6.3. Bizkai'ko abostegiaren aldakuntzak.

Gogoratu daiguzan Bizkai'ko euskerearen abostegian aurkitzen doguzan legeak, bakarti edo bokalenak naiz lagundun edo konsonanteenak. Amar arau edo legetan sartuko doguz guztiak:

- 1.- "a" mugatzaillea ezarten danean Gipuzkoa'n "a" bakarra geratzen: "gure alaba, ona da". Baiña Bizkaia'n aurrerapena agertzen da: Arratia'n "alabea", Mungialdea'n "alabia" ta "alabea" edo sartandean "alabe", Bermeo'n "alabie" eta Ondarroa'n "alabi".
"e": bide bardiña jarraitzen dau "alabea"ren mailla artu ezkeror.
"i": Arratia'n zarratu baiño ez dau egiten: "egie", Mungialdean "egie" eta "egixe" agertzen dira, urrats bi aurrerabidean.
"o": Arratia'n ez dago aurrera bidearik ("oilloa"), Mungialdean antxiñako berbetan bardin jarraitzen dau baiña itz barrietan "u" biurtzen da: "Oilloa" baiña "panaderue" mendiari "basoa"esaten jako, edontziari "basua"
"u": Bakarti onen ostean iñon be ez da agertzen "a", beti" e": "burue".
- 2.- "Au" beti biurtzen da "eu": "Gaur" beti "geur", "dautzu" beti "deutzu".
- 3.- Metafonia: au agokaldi batetik bestera igaroten dan aldakuntza da eta ori egiteko indarra "i" k eta "u" k dauke: "Fika/Fike", "orritxu bat"/"orritxu bet" "eun eta bi" "eun de bi".
- 4.- "i"ren eragiña: "i" izkuntza guztietan da izki iraultzaillea eta ez gitxien euske-
ran: in/iñ, egiñ/eiñ, il/ill, mutill, it/itt edo itx: aita/aitxe. is edo iz: ix: Luixa.
Ori bardin jazoten da agokaldien edo silaben artean: Ibil dira/ibilxire, "egin dot/iñjot".
- 5.- "l", "r" ta "n"ren ostean "s" edo "z" aldatu egiten dira eta "ts" biurtu: Antsermo, Kontze, Martzel.
- 6.- "s" eta "z" k urrengo biguna gogortu egiten dabe: "Ez da/ezta", "ezkatoz".

- 7.- “n” ta “l”k urrengo gogorra bigundu egiten dabe: “Onto/ondo”, “nontik/nondik”
 8.- “n”zurreratua toki-izenetan galdu egiten da: “Lemona/Lemoa, baiña ez adi-
 zetan eta abar.
 9.- Galtzea: abots gozo edo sonora bat bakarti biren erdian dagoanean errez
 galtzen da: dagoz/dauz, egin/iñ.
 10.- Antzeratzea (asimilacion): bakartietan agertzen da: emon/omon,
 ikusi/ukusi, etorri/otorri eta lagundunetan be bai: ez noa/enoa, ez
 leuke/eleuke, ez zan/ezan.

7.0. Sinkroniazko izkuntza

7.1. Gramatika sinkronia da

Gramatika geldia da eta sinkroniaren barruan dago, aldakuntzarik egiten ez dan aldi baterako balio dau; baiña izkuntza batzuk ariñago aldatzen dira eta gramatika diakronikoa bear dabe.

Bardin esan lei lurraldeen zabaltasunari buruz: toki guztietan ez da bardiña izkuntza, ikurra naiz adierazpena izan leiteke aldatzen dana. Gizakiaren antze-
 koa da: Gorputza ta arimea daukaz, edo kimia-gaien antzekoa: Oksijenoak eta idrojenok ura osotzen daben antzera.

7.2. Katea eten.

Berez, kate baten antzekoak dira esaldiak eta gelditu egin bear izaten da adierazpenak eskatzen dauan lekuan. Ori ezin lei egin izkuntza ezaguna ez danean. Esaterako “loshombres” esaten dogunean berba bi daukaguz eta erdian ebagia: “los hombres” edo “etxeraetorrida” esaten dogu baiña adieraz-
 penak ebaketak eskatzen dauz: “etxera etorri da”. Eta emen be intaun bat egin lei: Zergaitik “etxera” eta ez “etxe ra” gazteleran ebagita dagoan antzera? Or oitureak agintzen dau eta oiturea gramatika-lege biurtzen da.

Euskeraz itz bi alkartzen diranean erdian marra bat erabilten dogu: “etxeke gizona” “etxe-gizona”. Marra ori bearrezkoa da ondo ulertzeko eta agozkatzen dogunean be ba-dau berezitasuna.

7.3. Atzizkiak izen bereizietan goi-kakotxa

Bardin jazoten da izen beriziai egozten jakezan atzizkiakaz, bitartean kakotxa jarten dogu. Ez da bardin “Jon’ek” egin dau edo “Jone’k” egin dau.

7.4. Bakarrak eta katea

Beste gai batzutan bakar edo unitate oneik berez agertzen dira, esaterako pizti bat pizti-iztian edo izar bat izar-iztian baiña izkuntzan ez da jazoten orrelan, bakar ori non asten eta non amaitzen dan, ez da beti argi agertzen. Edesti-arloan be antzera jazoten da. Zein da bakar edo unitate ori? Errege bat? Laterri bat?

Bakar oneik alkarregaz zer-ikusia izaten dabe eta azkenean katea sortzen da eta or dator joskerearen arazoa edo arauak, legeak eta katea osotzen dauan berba moltzo txikienari sintagma esaten dautsagu.

7.5. Kuntzea (jeneroa) euskeran

Esan daigun zerbait labor-labor gai oneri begira euskerearen gramatika-arloan: Euskereak ez dauka kuntze-atzizki edo jenerorik, izena aldatzen da, ez

atzikia, eta orrek erreztasun aundia emoten dau berba egiteko eta izkuntza ikasteko. Erderaz “hermanos y hermanas” esan bear ko da, baiña euskeraz “senideak” esatea da naikoa. Ostantzean txarto ibilliko giñake: Gizona ba’da berbalaria, “anai-arrebok”, andrazkoa ba’da: “aizta-nebok”. Eta aurrean dauka-guzanak onak dirala esatea naikoa da, baiña erderaz “buenos y buenas” esan bear.

Ez dauka ba, euskereak kuntze-atzizki edo jenerorik izenetan, baiña gastele-reak ez daukan gauza bat dauko, aditzean agertzen da kuntzea edo jeneroa: “Ikusi dok/ikusi don (a)” “i” ta “no” jokoa da.

Beste alde batetik, gaztelerea ikasi nai dabeneztat naste bat sortzen da gauzen kuntze edo jeneroan: “roble” arra ala emea da? “El roble o la roble”. Itxasoa “el mar” ala “la mar”.

Orrek euskereari be eragozpena ezarten dautso, piztiak diranean zelán agertu kuntzea? Katua esaten da kuntzeak garrantzirik ez daukanean eta kuntzea agertu bear danean, katarra ta katu-emea. Edo izen erbardiñak: ardia ta aaria edo aritua.

7.6. Gramatika ta iztegia

Gai oneik gramatikearen barruan doaz, baiña gramatika ez da diakronikoa, sinkronikoa baiño. Erderaz sarritan entzuten da “gramatica historica” izen ori daroe Menendez Pidal eta Lapesa’reñ liburuak. Obeto izango litzake “izkuntza-arau diakronikoak”

Iztegia ez da sartzen gramatika-barruan abostegiagaz eta atzizkiakaz edo joskereagaz batera. Zergaitik ez? Berez or barruan egon bear leuke, izkuntza-ren kodean dagoalako.

7.7. Aditz igarokorrak eta igarokaitzak

Euskeran aditzak ondo bereizten dau aditz igarokorra aditz igarokaitzetik edo intransitibotik, baiña aditz batzuk dagoz oker jokutzen diranak, esaterako “urten dot” eta “igon dot”. Nik ori kentzera joko neuke, salbuespenak kentzeko eta beti idatzi “igon naz” eta “urten naz”

Aspaldion sortzen doa igarokorra ta igarokaitza nastetan dauzan joko bat edo batzuk: “Biar ikusiko gara”. Orrek gerkerako “voz media”ren antza dauko, baiña nik ez neuke onartuko. Beti: “Biar alkar ikusiko dogu”. Baiña ez aitzu izkuntza egiten dagoala beti landara bat azten dagoan antzera.

7.8. Oker batzuk

Bardin esan bear beste esaldi onen eta antzekoen arloan: “Len ikusizut”. Oker au geure aldian sortu da eta geugaz batera azi. Len gazteak esaten eben ori, baiña gaur gazte orreik zar egin dira eta ia guztiak esaten dabe. Oraingoz “ikusizut” esan bear da. Elduko ete gara iñoz oker ori onartzera?

7.9. Deklinabiderik?

Lateran eta gerkeran garrantzi aundia dauke gramatikako kasuak edo deklinabideak. Ete dauko euskereak deklinabiderik? Gramatikalariak ez datoz batera, baiña nik ezetz esango neuke. Eta kasuek eukitekotan asko be asko izango litzakez, Azkue’k diñoanez, berreun gitxienez.

Non dago arazoa?

Latiñak eta erromantzeak aurizkiak daukez asko: anteponer, preponer, componer, reponer, suponer, contraponer... eta atzizkiak gitxi.

Euskereak, ostera, aurrizki gitxi daukaz, “ber” eta olakoren bat eta atziztiak oso ugari. Baiña bereiztu daiguzan atzizki-mota bi: esanguradunak zerbait diño: txistulari, etxegin, etxedun, etxegille, arritza, arrieta, olerki, eginkizun, jai-aldi, ugaritasun... Esangurabakoak ez dabe ezer gaiñeratzen, berbak era batera alkartu baiño, esaterako etxetik, etxera, etxeko, etxearen, etxezko... eta sarritan bi batzen dira. Oneik dira deklinabidearen antzekoak.

8.0. Diakroniazko izkuntzalaritza

8.1. Aldatzen

Izkuntza beti dago aldatzen eta beronen arlo guztiak dagoz jokabide edo lege orren menpean. Aldi batzutan bizkorrago aldatzen da, beste batzutan astiroago, baiña beti dago aldatzen.

Euskerea, astiro aldatzen dala diño. Esaterako latiñak 2000 urtean izan dauan aldakuntza, gaztelera biurto arte, ez dau izan urte orreitan gure euskereak. Izkuntza idatzia astiroago aldatzen dala be ba-diño.

8.2. Abosgintzaren aldakuntza

Diakronia ori aztertzeke gairik ikusgarriena abostegia da, batez be abosgintza edo fonetika. Esaterako fonetika da latiñeko “speculum” itzetik “espejo”ra aldatu dana edo “mulierem”etik “mujer”era ekarri gaituana.

Baiña adierazpeank be aldatzen dira.

Abosgintza edo fonetikako aldakuntzak euskeran astiro aztertu genduzan, baiña orain dator itaun au: Zergaitik sortzen dira aldakuntza orreik?

- 1.– Enda bakoitxak abotsak sortzeke daukazan gorputz-atalakaitik dala diño; eztarria, agoa, ezpanak, zurra... ezbaridiñak eukiteagaitik sotzen dirala abots ezbaridiñak. Baiña ori ez dago ain argi: ba-dagoz baltzak euskaldunen moduan euskera egiten dabenak. Dana dala, galiziar batek errezago ikasten dau gure izkuntza, euskerea, ostera ez dagoala andaluziarrentzaz eginda dirudi.
- 2.– Inguruko lur-azalak edo eguratsak eragiten dauala diño beste batzuk: lpar-aldean abots lagundu geiago erabilten ei da egoaldean bakarti gei-go. Au be ez dago argi. Eskandinabia’n abots lagundu asko dauke, Laponia’n ostera Italia’ko beste bakarti.
- 3.– Alegiñaren ekonomia dala diño beste batzuk, esaten dan lez “ley del mínimo esfuerzo”. Eta nik oneri emongo neuskio indarra Bizkai’ko euskeran: Gaur/geur, etxea/etxi, aita/aitte/atxa... Baiña izkuntza batzutan gatxerantza jotzen dabela dirudi. Esaterako ez ete da gaitxago “puerta” “porta” baiño?
- 4.– Umetan ikasi danaren indarra dala be ba-diño. Umeari gatx egiren jako “ama”ren lekuan “madre” esatea. Eta olako aldakuntza batzuk geratu egiren dira.
- 5.– Errigintza edo politikako egon-eziñak ekarten dauala diño beste batzuk. Errigintza geldi dagoanean, izkuntza be geldi, latiña Erroma’n lez, gero arin aldakuntzak.

- 6.– Sustratoaren edo izkuntzaren azpian egon dan beste izkuntza batek eragiten dauzala aldakuntzak, diñoe beste batzuk, esaterako Frantzia'ko iparrerantz “oil” eta egorantza “ok”, Languedok. Eta ori orrelan izan dala dirudi latinkumeak sortzean. Azpian zeltak dagozenezan sotzen da izkuntza bat, etruskoak dagozenezan beste bat...
- 7.– Eguneko oikuneak edo modak ei dira aldakuntzak ekarten dabezenak, beste batzuren antzera berba egin-gureak beartzen gaitu aldatzera.

8.3. Aldakuntzak illuntasunera

Gogoratu daigun orain aboskintzako aldakuntzen ondoren txar bat: Len argi egozan itz bigaz argi ez dagon bat sortzen da, esaterako “ez zan/ezan” Bizkaia'n “esan”egaz nastea dakar. Eta itzen jatorria edo etimologia ikusteko be illuntasuna dakar aldakuntzak, orregaitik dira ainbese toki-izen euskerearen antza galdu dabenak esaterako “Iriberry/Elvira”.

8.4. Bikoizketak (dobletes)

Abosgintzan bide luze bat egin eta gero geratzen dan berbea eta jakitunak aurrerapide ori egin barik artzen dana, berba bi ezbaridiñak izaten dira eta adierazpen bakarra dauke, esaterako gazteleran capitulo/cabildo, secular/seglar. Orrei esaten jake bikoizketak edo dobleteak, baiña Saussure'k ez dagoala dobleterik diño. Aurrerapenean bide bi artea dala ori.

Begiratu daigun orain itzen jatorria edo etimologia.

Batzutan erri-maillakoa izaten da, beste batzutan jakitun-maillakoa.

Erri-maillakoan aldakuntza asko egin dira itz batzuk gastelerara sartzeko: “Rabi Dom Sem Tob/Don Santos de Carrión, Ibn sina/Abicena”.

8.5. Izkuntza-motak

Izkuntza batzailleak (aglutinantes) eta banatzailleak aitatzen dira eta batzuk ortik ateraten dabe iru izkuntza-sendiak sortzeko bidea, iru sendi aundi ezarrita: Txina'tarraren antzera monosilabikoak, japonarren antzera batzaille edo aglutinanteak eta indoeuropeo ta lakinkumeen antzea aldatzailleak edo fleksibak. Euskara aglutinante edo batzaillea da. Ikusi zelan batzen diran egozkizun guztiak: “Datorkunean” d-adijabea, -tor-aditz-erroa, -ku-nori adizkia edo zear egozkizuna, -ne-noiz-adizkia eta a-mugatzailllea, -n barriro noiz-adizkia. Gazte-lerak be fleksiba edo aldatzaillea izanik, ba-dauko olako zerbait: “Amabamos”: ama-aditz-erroa, -ba-len-adizkia, -mos nortzuk edo adijabea, baiña askoz gitxiago. Diakronian gaiñera antxiña “cantar he” zana (perifrastikoa) “cantaré” geratu da.

8.6. Itzaren zatiak

Itzetan zati bi aitatzen dabez izkuntzalariak, erroa ta atzizkia. Izkuntza batzutan iru zati dira: erroa, atzizkia ta amaia, baiña euskereak bi dauz, erroa ta atzizkia. Aztertu daigun emen atzizkia ta amaia. Euskereak atzizkiak daukaz, batzuk ez dira itzak alkartzeko baiño eta oneik dauke deklinabidearen antza: nongo, nondik, nora... baiña asko dira. Baiña beste atzizki asko ez dira itzak alkartzeko beste barik, esangura berezia dauke, esaterako txistulari, txistugin, txistudun...

Euskereak aurrizki gitxi daukaz, “ber” biztu.

Eta tartizkiak be gitxi dira. Ba-dago bat asko erabilten dana: “ra”, egin/era-
gin, ibili/erabili...

8.7. Etimolojia edo jatorriak

Berbearen lena aztertzen dauan ekintzari “etimolojia” deritxogu, euskeraz jatorri-iztia eta itza nondik datorren aztertzen dau: sugarria/su-garria, osaba/osa-ba, “ba” au sendi atzizkia da eta bardin agertzen da beste izen oneitan: arreba, alaba, izeba...

8.8. Lurraldeak, endak eta izkuntza

Aztertu daigun baita, izkuntzak lurraldeagaz daukan zer-ikusia: Lurralde batetik beste batera dagozen aldakuntzak errez ikusten dira, basatien artean be bai leiñurik leiñura. Euskeran be erritik errira.

Leiñu bakoitxak uste izaten dau bere izkuntza dala ona besteak ez, eta besteena konparatu egiten dabe eta antzeko itzak billatu, orrelan artzen da izkuntzen sendiak zeintzuk diran jakiteko bidea.

Argien agiri diran sendi ezbaridiñak iru dira, Noe’ren semeeen izenatatik artuta: Sem’darrak “judatar eta arabiarak”, Kam’darrak, txinatarrak, eta Jafet’tarrak, oneik europatarrak.

8.9. Izkelkiak

Alkarren artean aldakuntzak agertzen dabezana izkelkiak edo dialektoak deritxe eta ez da erreza noz izkuntza eta noz izkelkia dan jakitea. Konparaketa nondik nora doan izaten da. Esaterako katalauniera latiñaren dialektoa da, baiña erromantze moduan gaztelerea lez izkuntza. izkuntzaren antza ez da bai edo ez, geiago edo gitxiago baiño.

Lurralde batean izkuntza bi edo geiago dagozanean, batzutan bata bestea-
ren gaiñera etorri dalako izaten da, onelan Ameriketean gaztelerea eta bertakoak. Europa’n be latiñaren aurretik zeltak, angloak, bretoiak, frankoak, euskaldunak (ementxe aitatzen dau lenengoz eta baten bakarrik gure euskerea Saussure’k), eslaboak, grekoak, saioiak, poloniarak, etruskoak, punitarrak, feniziarak, numidak eta abar egozan eta orrein indarrez izan ebazan latiñak, urteen joanean, aldakuntzak.

8.10. Aldakuntzak nondik?

Saussure’k beste itaun au be egiten dau: Nondik edo zergaitik sortzen dira izkuntzen aldakuntzak? Erantzunean lurraldeai baiño indar geiago emoten dautso aldiari, baiña euskeran’n ez da orrelan. Erromatarren alditik asita baskoiak, barduloak, karistioak eta autrigoiak lurraldeetan eta ibaiak bitarte dirala banatzen dira euskalkiak: Bidasoa’tik arantza baskoiak, Deba ibaira arte barduloak, Nerbion ibaira arte karistioak eta gero autrigoak. Eta Arratia’ko izkerea ta Ubidea’koa Barazar inguruko medi-kateak banatzen dau. Ubide’ko izkerea Otxandio’gaz doa, ez Arratia’gaz. Dana dala, izkerearen lege batzuk ez doaz ibai edo mendi orregaz batera. Dan ori agertzen da “izkuntzaren lur-irudietan atlas lingüístico”etan. Olako bat egin dau oraintsu Euskaltzaindiak, baiña entzun dot abostegia gitxi sartzen dauala, eta abostegia da atlas baten santutegia.

8.11. Izkuntza zarra zein?

Euskerea Europa'ko izkuntzarik zarrena dela esaten da. Aztertu daigun gai au.

Zer esan gura dau izkuntza bat zarragoa izateak? Edo 1) besteen jatorria dala, eta ez dala zarra izateko zioa diñosku Saussure'k, edo 2) lenago agertzen dala idazkietan eta au be ez dau onartzen edo 3) izkuntzaren itzak zarragoak dirala itxureak agertzen dauan lez. Sanskritoak Europa'ko besteak baiño zarragoa dala agertzeko iru ezaugarriak daukaz.

Euskerea zarra dala ba-dakigu, bakartia dala be bai, seniderik ez daukalako, baiña asierea illun geratzen da. Barandiaran'ek bertan sortua dala diño eta kromagnon gizakiaren ondorengo dala. Orain lau bat milla urte euskerea izkuntza osotua da, artzaiñen denporan bizirik dagoana. Aurrerago, millak urteetan, euskerea sortzen egoan eta orain amar bat milla urte dirala, lurralde onetatik izotza kendu zanean, oreiñen atzean eiztari lez euskaldunak Europa'ko iparralderantz zabaldu ziran eta ezaugarri lez or dagoz geneak, toki-izenak eta RH-.

8.12. Izkuntza ta endea

Ba-dau zer ikusirik izkuntzak endeagaz? Ba'dakar ezer antxiñako errien giza-iztia osotzeko? Ezetz diño Saussure'k. Izkuntza bardiña eukiteak ez dau agertzen jatorri bat eukiterik eta izkuntzen sendiak eta endenak ez doaz batera. Aria deritxon endakoak batzuk jermendarren izkuntza dauke, baiña ariarrak ez diranak be ba-dauke izkuntza ori. Endea erri biurtzen danean, orduan artzen dau zer-ikusia izkuntzagaz.

Olazar'tar Martin'ek

ZERGAITIK O.N.U.?

(EUSKALDUNAK GAUR)

Erromatarrek ziranetik XVIII'garren gizaldirarte, Erri-bereziaren legeak onein Nortasunezko ardurapean egon ba ziran be, errege-kaizar'en jauntza irasi edo ezarri zanetik, onen alegiñak legearen argitasunak beti illuntzea izan zan, euren jauntxutasunezko alkargokoan egon ziran erriak menpean eukiteko.

Beste aldetik, erlejiñozko eleiztarrak IV'garren gizaldirarte aurrera Jainko-Kristau legeak gogortzen asi ziran, erregearen gizarteko almenak indartzeko eta eleizaren Kristautasuna Mundu guztiko jendartean ezarteko. Or! azken baten, nun eta zergaitik agertzen garan bereiztasunezko erri ta erritarrak bereiztasunaren aurkako legeekin inguratu ta oinkatuta.

Gaur be, orren erdi-aro asmakizunaren alegiñetan gabiltz, menperatzaille artean lenagoko eta gaurko arauak bardiñak diralako. Gaiñera, gaur ikusten dogun lez ekintzaren erak be bai, nai-ta lenago guda ta arteko borrokak, batzuk egunerokoak eta besteak denbora labur baten egindakoak ba ziran be eta gaurkoak urte batzuen barruan... danak! odol-zale ta odol-ixurlari ziran ta dira, erritarrak ainbat neke, negar, zoritzar, goibelaldi, samintasan ta eriotza sartuta.

Gure gogoetan iruditu genduzan denbora orreik, lauki-bardin antzeko baten barruan obeto geratu daitezcan eta ikusi daiguzan zelako itxuran agertzen diran alde bietako antzerkilariak.

Europa'ko erregetza guztia senitarteratuta egon zan asieratik laster. Euren izaeraren jaurkintzara erritu ziran leñuakaz batera "Askatasunaren Alkargo'ko legedian" osotu eben erria'ren antolamendua. Asieran danak erri batekoak ziralako. Baiña goian esan dogu lez, Europa'ko erregetza senitarteratuta eta jaiotzatikoa garatu zalako, laster arrotzaren eskuetan geratu ziran gure jaun-eregetzak.

Aunditasunezko asmakuntza aurretik etorrita be, ortik aurrera ezberdintasuna aundiagotu egin zan, jaun-erregetzaren asmakuntza goretzita eta erri-soilla beti lez aitaren izkuntza ta etxea zaintzen.

Erdi-aroko legedi guztia olan izan zan, orregaitik erregearen ta jaunaren ize-nak agertzen ziran: V'garren Karlos Alemania'ko kaizar-jauna, Espaina'n leenengo, Bizkai'ko jauna, Gipuzkoa'ko erregea, Araba'ko erregea, Naparroa'ko erregea, eta abar, alkartuta.

Arremanaren babesak lortzeko, erriakaz elkargo'ko legedian batu ziran be, eleizak ekarten eban katolikotasunezko asmakuntzagaz erregetasunaren jabetza indartzen joan zan, nai-ta errien eskuarteko lege-tresneriakaz jaun erregetzagaz zer ikusirik euki ez, erritarrak euren batzarretan bete egiten ebelako alde batetik, bestetik, jaun-erregetzari babes orren jauna izateko, guda-taldea eta dirua emon bear, jauntasunak beren antolatzaile edo artekariaren lanak bete egizan.

Baiña lege areik ondo eginda egon ba ziran be, zoritxarrean beste lege gaizto bategaz erantsi eutzen legediaren kopuruan, erregearen lana beteteko, bakearen oreka izan zanaren gain, berak guda-taldea bear eban gauzetarako ibiltzen ba'eban, jaun-erregeak berak ordainduta ibiliko ebal, lege orregaz erregearen indarra aundiagotuz.

Ortik aurrera menperatzaille biurtzen asi ziran, jaurkintzetan latin eta Euskeraren bitartean sortutako erromantzea ibilita, gero gure batzarretan gaztelera sartuta indarraren bitartez eta Euskal ordezkarien artean ikaragarritzko zigorrak eta banakuntzak sortuta.

Errege eta gizon/emakume jaurlariak ekintza orren bidez, gelegian indartzen joan ziran, batez be, erri soil artean jakituria eta argibideak guztiz txiroak izan

ziralako. Eta gaiñeratu ezkerro jaurkintza eta eleizaren zergak, bai euren borrokakaz naastuta, beti txirotasunezko bizi batera bideratuta egon zirala kontuan eukinda, leñuak edo erriaren jabetasunezko alegiñakaz, leenengo alditan edozein unetan agertzen zirala errege-jaun ezberdiñen alkargoan, nai-ta aurrerantzean kristau-katolizismoak ekarten eban erdira-nai edo bateraren naia, gure jauntxutasunagaz bide ortatik naaztauta.

Jaurkintza eta erritarren artean giza-bideko oso ezbardintasun batera joan ziran zabal-arazten, errege-jauntza ta eleiza euren Jainkotasun ordeak betetan eta erria oso naaztuta, bai Ipar-erdi galduta, Nortasuna, Etxea, Erria eta Aberriari zelan eutsi.

Bide orretatik XVIII'garren gizaldian agertzen gara, eta emendik aurrera ez dabe balio erdi-txantxak. Erregetza eta eleiza jaingotuta, ez dabelako ontzat artzen gizon/emakume ta errien Nortasunezko eskubidea.

Frantzi'an 1.789'ko azpikerizko-iraultza saltzaile baten bidez asten dira, erriberezien Nortasunari egin jaken isekarik aundienagaz, Frantzia'ko erregea frantzesen erregea biurtuta, bertan bizi ziran erri-berezi guztien nortasunak desagertzeko beartuta, klonatu gurean edo erritar bereziak alangoko egoera baten geratu daitezcan. Bereala izkuntz-berezien aurka joan ziran zigor aundiakaz.

Europa guztitik, menperatzail-lege ta nerekeri orren bitartez, aitor-seme askok, euren eskuetan erregeak baiño diru eta indar geiagok eukiten asi ziran, eta ortik asi zan erregetzaren malda-bera, euki eben indarra suntsitu edo urtu arte. Diruaren buruzpide aldaketak alan eskatzen ebalako, lantegi-gintzaren trebetasun barriak bultzatuta.

Baiña indarra eta diruaren jabetza, jaun-aberats orrein eskuetan geratu zan, eta Frantzia'n egin eben 1.789'ko iraultza'ren eredia artuta, erregeen ordeko gudal-nagusien meatxuagaz, gaur daukaguzan eskubide-gabeko laterriak Europa guztian ezarri euskuezan, naizta menperatzaille barri oneik laterri eskubidekoak dirala esan.

Gudal-nagusien laguntzagaz, menperatzailearen lantegiko-zalekeriaren (industrialismo) eta diru-gosearen (mercantilismo) bitartez, euki eben anditasuna zaindu gura eben, eta ori lortzeko, arrazoi-bako gudal-indarra bakarrik euki eben, eta gogor erabili eben Europa'ko jendarte guztia ondo astinduta, oinpean eukiteko.

Menperatzaileen ezin-egoneko naasgarri egoera orrek, askatasunari begira asmakuntzak aukeratzeko, bide barriaren alegiñak ekarri ebazan, eta ortik asi ziran Munduaren jaurkintzarako era barriak agertzen: Hegel, Marx, ezkerraldeko eritziarekin, Lenin'en komunismoagaz, langilleen babeserako alkargoak (sindicatos), eta abar. Bai, Mundu onek menperatzaille asmakuntzan irauan dagian be gogor ibili ziranak: Hitler, japoniarrak, Franko, Mussolini eta abar. Eleizatik asita, iñork ez eban kontuan artu edestitik datorren eta Nortasunezkoa dan erri Bereziari zor jaken ordezkatzeta, naizta oneik, eten-bako borroka baten irauan askatasunaren billa. Gizarte-langilearen babeserako sortu ziran alkargoak be, nazioartekoak egin ziran, oiñarrizko naziñoak edo erriak kontuan euki gabe, eurak be gaur menperatzaille biurtuta, Mundu onentan JAINKOA'ren LEGE'rik ez balitz bezela.

Tira-bira larri orretatik, Mundu'ko gerra nagusia sortu zan eta danak bildur-tuta geratu ziran. Bereala artu zan erabagia, gerra geiagorik ez zala bear, eta arrazoi demokratikoak erabiliz, Gizatasunaren eskubide guztiak zaindu bear zirala.

Erabagi orren bidez, aurrera begira daukaguzan odei-ertzeko (horizonte) lañuak, garbitzen apurka apurka doaz, menperatzaille kolonigilleak edo erri-irasleak aienatu edo urtzen doazelako, baiña oraindiño menperatzaille-laterritarren

oinpeetan gagoz, eta orregaitik menpetasunaren arazo bardiñakin. JAINKOA'ren LEGEDIA ez dalako aldatu alde batetik, eta BERE LEGEA'ren bidetik, askatasunezko demokraziaren zentzuak, bakoitzari berea dana edo ardurapean dauana ordaintzea eskatzen daualako, bakea lortu daiten bestetik.

Laterri menperatzaille oneik, jaurkintzan, goitik beerako agintaritzak daukie gaur eskukotasun (autonomia) antzeko baten egon da be, erri-bereziari zor jakon askatasuna ez-emotearren, eta ekintza orren ondorioagaitik Mundu onen ekonomia edo buruzpidearen banakuntza menperatzail goitik beerako joko baten ezarrita agertzen jaku dirua esku bakar batzutan batuta. Mundu fisiko onetan, leku batetik kentzen ba-dozu bestea gabetasunean geratzen da. Orregaitik, erromatarrek leen ekarri ba'eben menperatzaille-gogapena, gaurko menperatzaille laterrienak bardiñak dira, nai-ta bigunagoak izan.

Egoera orretan, edestian zear gazteak diranak, estatu-batuetakoa amerikarren antzera, euren aberastasun indartsuaren bidez, menperatzaille-tentaldira jausten dira errez, Mundu onetan danon ardua izan bear dana euren eskuetan egon daiten, eta zapalkeri ori legeztuteko, menperatzaille diran laterrien agintari maltzurak ondoratuta.

Menperatzailleak, gaurko egunean, guda-borroka laguntza bear dabe, euren legekanpoko agintaritzak iraun dagian, demokrazi baten arrazoiaren bidez beti, jokoz kanpo agertzen diralako.

Eta Munduko azken borroka latz eta odolkoien ostetik, bakearen egarriak aleginduta eta jakintsu guztien aolkuagaz, jaurleri diran gizon/emakumeetan argi bizi-bizi bat biztu zan "Munduko guztian dagozan Laterri edo Nazio guztien arteko antolamendu bat bear zala (O.N.U.)", demokrazian ezarrita, guztien baimenarekin, berezitasunezko erri ta gizadiari zor jakozan eskubideko ardurak, lotsagizun aundiz emon dakiozan.

O.N.U.'k sort-arazi eben lege-gabeko laterriakaz, eta gaur ikus-agirian agertzen jakun lez, amerikar-menperatzaille barriak, euren aberastasuna ta indarra erakutsiz, Iraila'ren 11'ko izubidearen deiarekin, euren jabetasunpean gura izan dabe Irak menperatzea eta SADAM HUSSEIN nausitzarra agintzatik botateko aitzakiz.

Baiña, gizartearen jakintasan ta berrikariari esker, iñork ez dau guzur ori iruntzi. Munduko jaurkintzatan nagusitar asko dagoalako, baiña gutxi euren agintaritzaren lurpeetan ainbeste arrolio (petroleo) dauken lekurik.

Munduko gizarte guztia kaleratu da jazarraldi aundi baten, eta danon aurrean menperatzaille lapurraren izaeran geratu dira, ikus-argitan ori erakutsi dabelako, eta orretan bakarrik joan diralako.

O.N.U.'k ez dau lortu, gaur egiten dabezan zapalketak lege barruan sartzea, eta gauzak arduraz betetan ba dira, ez dakit zenbat denboran izango dan, baiña iru agintaritzar orreik baliteke epaiketara joan bear izatea, berezitasunezko erriak ezetsi edo odol-zaleko eraso egiteagaitik, bata, Mundu onek daukan indarraren jabe ta agintaritzak aberatsaren eskuetan jarraitu dagian, eta beste biak menperatzaille laterrietan iraun dagien jaurkintza, aberats-menperatzailleen eskuetan egon daitezkan dirua eta agintaritzaren indarra.

O.N.U.'ren Jaurkintza benetako argia ta itxaropen aundi bat da Ludi onen bereziko jendarteentzat, onein Jaurkintzarako ez daualako beste bide-obeagorik, danon artean daukaguzan arazoak, danon artean konpontzea baiño. Eta asken baten ori da O.N.U., JAINKOA'ren babes-LEGE'an, ardurak berezitasunezko ordezkari-artean banatu dagizan, bakea lortzeko eta gure ostean etorriko diran ondorengoai, erromatarrengandik gaur arte daukaguzan menperatzaille arazoak gabe utzi daiguzan alde batetik; eta bestetik, gaurko giza-gainetako

jakintzaren gogamenean, arazo oneik garaituta dagozelako eta daukagun ulertzari irain edo aokaldi (insulto) laidotsuak (insultante) diralako.

Menperatzaille aberatsak, orregaitik ez dabe gura O.N.U.'ko jaurkintzaren agintaritzza, beren bidetik eurak daukien menperatzaille agintaritzza eta diruaren jabetasunak suntsitu (desvanecerse) egiten diralako, eta oiñarteko antolaketa berezitasunezkoa biurtzen dalako.

EUSKALERRIA'RI BEGIRA:

Euskaldunai eta Euskal-Lur onetan bizi diranai askatasunaren ametsean diñotsegu, ez dirala tiroketaren garaiak, arrazoiarenak baiño eta Europa'ko aolkularitzara eroanda O. N. U. 'n berezitasunezko erri bat bezela artuak izan bear dogula. Europa'ko ZAARRENA'k gara gaiñera, eta izate orregaz emendik aurrea! alde guztietatik begituta ikertuak izango garalako.

Gaurko Munduaren agintari eta jakintsuak arrituta geratuko dira, kontuan jausten diranean gure LEGE ZAARRAK euren lege-egarriak osotzen dabezala Ludi onetan bakea lortu eta ezartzeko.

Eta geiago, konturatzen diranean, IBARRETXE'tar JUANJO gure LENDAKARI jaunak aurrera egiteko erabiltzen dauan legearen itxurazko egitaraua O. N. U. ber-beraren egitaraua dala.

Erromatarren gandik asita edestiaren etorkizunean menperatzailleak agindunai Euskalerrian egon diran jaurkintza guztiak Eleizatik asita danak! Nortasun Bereziaren aurkakoak izan dirala, gure arbasoak JAINKOA'ren LEGEA'ri begira egiten ebezalako euren itxurazko egitarauak, eta ez aberats-menperatzaillezko asmakuntzan ibili diran orrean sasi-jainkoaren gogoak beteteko.

Orregaitik esaten dabe, Erri Berezien Nortasunean dagoela erru guztia, eta ABERTZALETASUNEAN geien.

Ez dira konturatzen Ludi oneri JAINKOA'k emondako LEGE-BIDEA berezko berrikuntza baten ezarrita dagoela, gu ordezkari batzuk bakarrik izanda. Orregaitik daukaguzan berez berezizko NORTASUNAK berezi-ezinezkoak dira, Berezko legean agertzen garalako, eta gure artean NOR-BEREN eginkizunetarako "LOTSAGIZUNAREN ORDEZKO ARDURAN ESKUBIDEDUN" jaioten garalako, bakoitzaren ordezkariak beteteko, JAINKOA'ren LEGEAK erakusten dauan lez.

Jo-ta ke, ibiliko dira berezitasunaren elburua apurtzen, baiña ezinezkoa da, gure eskuetan ez dagoalako aalmen ori.

Orregaitik Euskaldunak eta Euskal lur onetan askatasunaren ametsean bizi garenok, fazizten azkeneko ostikada orreik, datozela, jakinda artu bear dira, zapladaren indar txikerrena artzeko, espataren indarra euren eskuetan dagoelako, eta eten-bako ardura baten salatu egia'ren arrazoia azaltzeko. Beti dabiz espataren arrazoiak ezartzeko, baiña guk ez badautseguz emoten ibiltzeko arrazoiak, ariñago irabaziko dan gauza da oiturazko jakitearen borroka irabazita daukagulako.

Egin bear dan gauza, IBARRETXE LENDAKARIAK agertu dauan moral, ekanduzko edo "JAINKOA eta LEGE ZAARRAREN" oiturazko itxuran "-ASKATASUNEZKO ALKARGOAN" (de libre asociación) egitarauari eutsi ta arrazoiaren indarragaz sendotu, gure ABERRIA'ri zor dautsaguzan ardurak bizkortu daitezcan, guztion poztasunean ASKATASUNA lortzeko.

Ez litzake izango asiera makala ASKATASUNEZKO ABERRI-EGUNA, danok alkartuta ospatuko ba'gendu.

Atutxa'tar Paul
Zornotza'n 2003'an epailla'ren 31'an

EUSKAL ELERTIA

(Zelan ikasi)

Ez da larregi aztertu gure elertiaren edestia eta egin dana be geiena erderaz egin da,esaterako Villasante'k eta Mitxelena'k euren edestia erderaz argitaratu eben. Lenengoa euskeraz eta Bizkai'ko idazleai buruz idatzi ebana Mikel Zarate izan zan eta gero Aita Santi Onaindia'k edesti luzea eta ikastoletarako laburpen oso egokia euskeraz egin ebazan.

Gaur geien begiratu nai dodana, auxe da:Gure elertiaren edestia zelan banatzen da aldietan?

Guk toki bat bear izaten dogu esku-arteaz daukagun idazlea non kokatzen dan jakiteko eta zati orreik noiztik noizera doazen eta bakotxaren bereiztasunak zeintzuk dira argi euki bear dogu .

Erderazko literaturetan oneik izaten dira zatiak: Erdi-aroa, ber-jaiotza,urrealdia, kulteranismoa ta konzeptismoa, barrokoa, klasiku-barri-aldia, erromantizismoa, 98'ko gizaldia, 27'ko gizaldia...

Guk orrelan ezin dogu banandu gure elertia,beste edesti baten barruan doalako, baiña aldiak argi ta garbi eukitea bearrezkoa da. Ez da naikoa gizaldiak esatea. Onek gure gomutamenari gitxi laguntzen dautso.

Ikusi daiguzan orain-arte egin diran zatiketa batzuk:

Santi Onaindia'k: Bost aletan argitaratu eban elertia. Lan Txalogarria ta ederra benetan.Eta gero laburpen oso egoki bat ikastoletarako. Au ikastoletatik kendu-azo egin euskuen atxerik ez eukalako: I.-Antxiñako idazleak.II.-XVI gizaldia.III.-XVII gizaldia.IV.-XVIII gizaldia.V.-XIX gizaldia.VI.-XX gizaldia.VII.-Gaurko idazleak. Milla olerki eder bere liburu ederrean be onelan zatitzen dau: I.-Erriolerkiak.II.-Lau gizaldi.III.-Gure mendea eta IV.-Bertsolaritza.

Zatiketa au, nire ustez, oso txiroa da eta ez dau agertzen kokaleku egoki askorik.

Karmelo Etxenagusia'k onelan zatitzen dau: I.-Erri-literatura ta bertsolariak. II.Idazle zarrak edo klasikuak.III.-Guda-aurreko idazleak eta IV.-Guda-ostekoak.

Apur bat aurrera egin dogu.

Mikel Zarate'k Bizkai'ko Euskal Idazleak bere liburuan beste zatiketa au dakar: I.Asierako idazleak.II.-Larramenditarak.III.-Arana'tarrak.IV.-Gure aldi-koak.

Au oraindiño apur bat obeto dago.

Xabier Eskauriatza' k (Labayru'n) onelan: I.-Erri-literatura.II.-Ipuin zarrak.III.-Klasikoak.IV.-Aranatarak.V.-Poesiaren bizkundera.VI.-Guda-ostea.VII.-Bitoriano Gandiaga.VIII.-Mikel Zarate ta Joseba Sarrionandia.

Gauza egokiak daukaz,baiña zati batzuk notin bakarrai eskintzea ez da egokia.

Zatiketa guzti oneik kontuan artuta nik neure bidea azalduko dot.

I.-Idazki eta idazle zarrak (1300-1514)

II.-Klasikuak (1514-1690)

III.-Larramenditarak edo apolojistak (1690-1865)

IV.-Aranatarak eta Azkuetarrak (1865-1936)

V.-Guda ostekoak (1936-1968)

VI.-Erribide ta Batu-berri (1968-2000)

Ez da aitzu bear idazlerik geienak aldi baten baiño geiagotan eta tankera baten baiño geiagotan egin ebela lan,baiña guk euren adiñari begirata sartuko doguz dagokien zatian.

I.- IDAZKI ZARRAK (1300-1514)

Lenengo atal onetan, 1514n.urtean lenengo liburu argitaratu arte dagoana agertzen dogu: Leloren kantak, kanboarrena.

Beotibar'ko guda: Onek giputzen eta napparren arteko gudari abesten dau-tso (1321).

Milia Lastur'en eresia: Au endetxa bat da, Milia'ren gau-belan bere aizteak eta beste batzuk abestua. Oso ederra.

Perutxo'rena: 1536n.urtean Zelestina liburu ospetsuaren irugarren zatian aurkitu eban Menendez y Pelaio'k eta Urkixo'k agertu eban emen. Perutxo bizkaitarra zan eta zaldizaiña. Eta erdera mordoloz berba egin arren, bitartean euskal kanta zar bat dakar. Lelo-girokoa da.

Altabizkar'eko kantua: Orrega'ko garaipena dau gai.

Alos torrea, abesti oso ezaguna.

Bereterretxe'n kantoria, Urrutia'ko Anderia, Egun bereko alarguntza, Undurain anderearen kanta, Atarratze, Musde sari, Andere lokartua, Arboitikoa, Neskatx ontziratua, Peru gurea, Urtsua'n illa, Maite-leloak, Irri ta negar, ardo kantak, Jainkotiak.

Patoralak: Iparraldeko idaz-tankera bizia da eta gaur be jarraitzen dau.

II.-KLASIKUAK (1514-1690)

Beñat Etxepare' k idatzi eban iparraldean lenengo liburu eta arro agertzen da, lenengoa dala ba-dakielako.

Bigarrena Joanes Leizarraga'k idatzi eban, Jone Albrit erregeña protestantearen aginduz. Biblia'ren itun barria'ren itzulpena da.

Joanes Etxeberri'k 1637n. urte inguruan Noelak eta beste liburu batzuk idatzi ebazan.

Aldi onetan Axular(1556-1644) da ospetsua eta mistika-girokoa dan Gero liburu idatzi eban.

Aillende Oihenart (1592-1667) da Notitia utriusque Vasconiae irakurgarria idatzi ebana, atsotitzak be bai.

Aldi onetako beste idazle batzuk: Santxo Elzo, Betolaza, Materre, Argaiñaratz, Voltoire, Pouvreau.

III.-LARRAMENDITARRAK EDO APOLOJISTAK(1690-1865)

Manuel Larramendi (1690-1766). Au da euskerearen gorespenak egiten asten dana, apolojista, baiña berak eta bere lagunak gorespen oneik erderaz egiten ebezan.

Mariana'k eta beste batzuk esana zan, euskerea gramatikara ezin sartu leikela izkuntza basatia zalako eta Larramendi'k berbaz eta egitez erantzun eutson. Orretarako idatzi eban lenengo gramatika eta bere oiturari jarraituz erderaz ipiñi eutson izena: "El imposible vencido". Obeto izango zan "eziña, egiña"-Beste lan asko ta aundiak egin ebazan.

Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos, Joanes Etxeberri, Juan Antonio Mogel (onek idatzi eban gure lenengo elebarria "Peru Abarka" deritxona), Juan Jose Mogel, Pedro Antonio Añibarro, Gerriko, Aboitiz, Zabala, Joakin Lizarraga, Juan Bautista Agirre, Iztueta, Etxagarai, Etxeberria, Iturriaga, Pedro Jose Astarloa, Paulo Pedro Astarloa, Prai Bartolome, Lardizabal, Unzueta, Linaza, Jose Antonio Uriarte, Itza, Iturzaeta, Latxa, Gregorio Arrue, Iparragirre (Gernika'ko arbola egin ebana), Antia, Bilintx, Petrirena, Otaegi, Arana, Beobide anaiak, Soroa,

Manterola, Arzak, Etxaun, Dualde, Monho, Iribarren, Goietxe, Harriet, kamusari, Duvoisin, Intxauspe, Luis Luziano Bonaparte, Daskonagerre, Etxenike. Eta Laukaniz'ko parrokoa zan Bartolome Olaetxeak 1763n. urtean gure zarrak eleizara eroaten eben "olatxea" idatzi eban.

IV. ARANATARRAK ETA AZKUETARRAK (1865-1936)

Euskereak abiada barria artuko dau, elerti-arloan geien, gure edestiko gizon aundi bien bultzadari esker.

Arana ta Goiri'tar Sabin'ek ikusi eban karlostarrak eskatzen ebezan lege-zar edo foruen aldetik ez egoala itxaropenik Euskalerrarentzat eta Askatasun osoa aldarikatu eban. Orretarako gaur be ain indartsua dan eta errian sartu dan alderdi politikoa, JEL edo PNV sortu eban. Eta erria indartzeko ta bere buruaren jabe izateko nortasun-agiria izkuntza dala jakiñik, berak ikasi eban lenengo gure izkuntza eta gero alegin aundia egin eban gure izkuntza garbitzen, sendotzen eta argitzen.

Beste izaera batekoa zan Resurreccion M^a Azkue: Euskaldun zarra eta karlos'tarren edo foruen aldekoa: onek euskerearen alde lan arrigarria eta sinistuziña egin eban.

Bien artean euskera argi ta garbia sortu eben: Idazkera aldetik Sabin'en arauak artu ziran geien, baiña joskeran eta aboskeran Azkue'ri jarraitu jakon. Euskera au aurrekoa baiño asko garbiagoa ta ederragoa da eta gaurko euskereak Azkue'k erabilten ebanaren antza dauko geiago.

Joan Bautista Elizanburu (1825-1891: Arana baiño ia berrogei urte lenago jaio zan eta beronegaz batera-antzean il. Oso ezagunak diran olerki-abestien egille da: Urrundik... Ikusten dozu goizean... Sara'ko semea zan, Frantzia'ko gudarien kapitai izan zan Napoleon azpiratu ebenean.

Grazian Adema Zaldubi, Charles Bekas, Manex Etxamendi, Pierre Ibarat, Mixel Elizanburu, Lapitze, Lapeire, Arbelbide.

Pedro Ignazio Barrutia, Aramaiona'tarra, ospetsua da lenengo euskal-antzerkia idatzi ebalako, onen idazpurua Gabon-Gaberako ikuskizuna...

Felipe Arrese Beitia: Otzandio'tar olerkaria ta santugiña, bere olerkietan negarra dago ugari lege-zarrak kentzen diralako.

Jose Manuel Etxeita: Mundakarra eta Manila'ko alkatea. Iru libru oso onak daukaz, batez be Josetxo.

Txomin Agirre: ona emen euskal-idazlerik ospetsuenetariko bat, batez de elebarriak egiten. Bat bizkaieraz: Kresala, beste bat gipuzkoeraz: Garoa, eta eleberri labur eta abertzale sutua dan Auñamendi'ko lorea. Pereda'ren giroetan dabil.

Toribio Alzaga: Antzerkigillea da eta amabi bat onak daukaz. Martzeliño Soroa da bere jarraitzaile

R.M.Azkue: Lekeitio'n jaioa, langille siñistu-eziñekoa: musikalaria ona, eleberri-gillea, erlejiño-gaietara sartua, izlaria, ipuinlaria, erri-jakituraren batzaile, gramatikalaria, iztegi-gille ospetsua, jozkerako maixua, gipuzkoera osotuaren asma-tzaile... Gizaldi oso bat beteten dau berak eta orregaitik Euskaltzaindia sortu zanean buru izendatu eben eta orretan jarraitu eban bere bizitza luzean.

Bustintza'tar Ebaista "kirikiño" (1866.1929): Abarrak ipuin-liburu ona idatzi eban eta antzerkiak be onak, olerkaria be ba-zan.

Arana Goiri'tar Sabino (1865-1903): Etimolojilaria, gramatikalaria, izparlari ugaria eta aldizkarien sortzaile, egutegien egillea, eta erderaz be asko idatzi eban... Onen ortografi edo idazkerak ikutu aundia egin eutson euskereari eta jokabide zurra da berea.

Julio Urkixo, Kandido Basabe.

V. GUDA-AURRE TA OSTEKOAK (1936-1968)

Arana'tar Sabin eta Azkue'ren eragiñaz, euskereak indar handia artu eban. 36'ko gudaren ondoren lez arrisku handi bat sortu zan euskerearen eta beronen elertiaren aurka. Dana egoan debekatuta eta zigortuta, notiñak naiz jokabideak, eta batez be liburuak argitaratzea. Lenengo argitaratuko dana Aita Santi'ren Milla olerki eder izango da, eta au be baitu egin eutsoen. Idazleak poli-zi-etxeke emakume garbitzaillearen bidez eskuratu ebazan ale batzuk eta erbestetik eskutitzak artu ebazan zorionak emonez. Antza, berari kendutako aleak munduan zabaldu ebezan euskerearen alde lan egiten ebala Franco'k agertzeko.

Eta zer egin eben gure idazleak? Ixillean eta etxeetan idazten jarraitu. Zelako lana Larrakoetxea Bedita'k egin ebana Shakespeare'ren antzerki guztiak eukeratzten! Eta beste askok idazten. Kardaberaz gure Bazkunak argitaratu dauz olako lan isil asko.

Zirilo Arzubiaga: Jaungoiko-zale izan zan erlejiño-giroko idazleen talde indartsu bat eta onek isillean lan orreri ta argitalpenak isillean egiteari jarraitu eutson. Batez be kristiñau-ikasbidea barriro argitaratu eta zabaldu zan, euskera oso egoki ta eredugarrian.

Karmelo Etxegarai, Migel Antonio Iñarra, Pello Mari Otaño, Enbeita'tar Kepa, Emeterio Arrese bertsolariak. Landerretxe, Joanategi, Hiriart Urruti, Darrigarre-re, Harispe, Hegi, Dekrept, Broussain, Enrike Zubiri, Pablo Fermin Irigarai, Eguzkiza'tar Jon Bateatzaillea, Jon Kurutz Ibargutxi ubidearra, Olabide'tar Erraimundo, Jean Barbier: Moulrier "Oxobi", Pierre Land, Jean Elizalde, Pierre Saint Pierre, Leon Leon, Mirande, Jean Etxepare. Nikolas Ormaetxea "Orixe" idazle ospetsuenetarikoa: elertiaren edestia, Santa Krutz apaiza, Mireio, Barne-muiñetan, Meza-bezperak, Euskaldunak Kito'n, eta beste liburu asko idatzi ebazan

B.M.Garro "Otxolua: Mundakarra, Ameriketara ibillia. Palindromoak dira bere lanak, baiña batez be Bertoldo'ren itzulpena eta abar.

Bitor Garitaonandia, Imanol Enbeita, Nazario Oleaga.

J.M. Agirre "Lizardi", euskal olerkaririk onena.

Lauaxeta edo Esteban Urkiaga, gaztetan il eben baiña elertian lan handia egin eban: olerkari ta izparlari lez batez be. Lizardi'ren eta Orixe'ren parean dago olerkari lez.

J.Arana, "Loramendi sabindar sutua, Salvatore Mitxelena, Juan Basurko, Martin Oiartzabal, Joakin Aldabe, Jose Markiegi, Sagartzazu, Jautarkol, Zubimendi, Aita Emiliano, Jose Artetxe, Manzisidor, Alejandro Tapia, Balberde".

Joakin Zaitegi idazle jatorra izan zan bai itzulpenak egiten eta aldizkariak erbestean argitaratzen. Olerkiak be onak daukaz.

Isaak Lopez Mendizabal, Julene Azpeitia, Joxemiel Barandiaran gure giza-iztilaririk onena eta urrengo maixua, Gabirel Manterola, Agustin Anabitarte, Juan Garmendia "Zeleta", Tauer erbesteko euskalduna, Alejandro ta Benito Larrakoetxea anaiak, Julen Yurre, Anjel Irigarai, Justomari Mokoroa,

VI.-ERRIBIDE TA BATU-BERRI (1968-2000)

Gure elertiak 36'ko gudaren ondoren izan zan maillukadearen ondorenak osatu ebazanean, beste arazo larri bat sortu zan eta onen ondorenak oraindiño emen daukaguz.

Aurretiaz gertatzen joian euskera batua sortzeko jokabidea eta orra sartu

ziran asko gogo onez, baiña, zori txarrez, talde batek gogorkeriz jokatu eban eta Arantzazu'n egindako batzar baten, 1968n. urtean, Lekuona'tar Manuel lendakaritzatik kendu, Villasante ardura orretan ezarri eta batuaren arauak, batez be atxearen arazoa, gogorkeriz bideratu eben.

Amar urte iraun genduzan garrastuta, euskera baturik ez zala bear eta batez be euskereak atxerik ez ebala bear uste genduanok.

Amargarren urtean Bergara'ko seminarioan egin zan azterketa egiteko batzarra. Gu be ara urreratu giñan, baiña alperrik, ez egoan iñor azterketa egiteko gertu euren artean, bai, ostera, lengoan jarraitzeko. Guk orduan gure jokabidea Euskaltzaindiaren barruan sartzen ez zalako, beste akademi bat sortuko gendula esan gendun eta orrelantxe bete be egin dogu. 1978n. urtetik dauka-gu ba Euskerazaintza, euskerearen erri-akadeamia.

Idazleak zati bitan banatu ziran, alde batean batu-zaleak eta bestean Erribidekoak edo euskalki-zaleak, eta orrelan jarraitzen dogu.

Geroago agertu dira or erdiko bide batzuk:

Labayru: Bizkai'ko euskerearen alde baiña atxeari jaramonik egin barik

Ander Manterola da arduradun eta gauzea ondo doa.

Mendebalde: Bizkai'ko euskerearen alde, baiña atxeagaz.

Alfontso Irigoien zan irasle eta ez zan fidagarria baiña il zan eta Juan Luis Goikoetxea'k ondo daroa.

B. I. A.: Bizkai'ko idazleen alkartea. Aspaldion isilik dago baiña Bizkai'ko euskerearen alde, atxea arazo biurtu barik.

Lauaxeta Ikastolea: Au be berez Bizkai'ko euskerearen alde dago, baiña estrateji lez atxea erabilten dau.

Ertz bietan Batuaren aldeko Euskaltzaindia eta Erribideko Euskarazaintza dagoz.

Ori orrelan izanik, goazen idazleak agertzera, (Oarra: Batuzaleai (B) eta Erribidekoai (E) jarriko dautset, besteai ezer be ez.

Aita Lino Akesolo (E), euskerazaintzaren lenengo lendakaria izan zan eta idazle jatorra, billatzaille zeatza.

Aita Santi Onaindia (E) : Bere bizitza luzean asko eta ondo idatzi dau eta badira 60 liburu inguru berak argitaratukoak.

Gilen Eppherre, Jose Basterretxea, J. M. Etxaburu, Xabier Peña (E), Bizkaian irakasle izan zan, Imanol Berriatua (B), Mariano Izeta, Manuel Estonba (E) Jose Antonio Loidi (E), Salvatore Barandiaran, Iñaki Goikoetxea (E), Luis Villasante (B), Eujenio Agirretxe, Pierre Txarriton (B), Martin Ugalde (B), Nikolas Alzola (E), Xabier Gereño (B) Aita Intza (E), Anastasio Arrinda (E), Luis Mitxelena (B), Manuel Ziarsolo (E), Antonio Arrue, Maria D. Agirre, Etienne Salaberri, Andoni Urrestarazu (E), Balendin Enbeita, Ramon Murua, Plazido Muxika (E), Martin Itziar, Jose Antonio Goiria (E), Estanislao Urrozola, Jon Beiztegi (E), Fernando Aire, Gotzon Goenaga, Luis Egia (E), Amatiño (B), G. Larrañaga, Gotzon Garitaonandia (E), Jon Oñatibia (E), Martin Ugarte (E), Jose Anjel Irigarai, Txillardegui (B), Patxi Altuna (B), Alfontso Irigoien (B), Josu Arenaza (E), Jose M^a Satrustegi (B), Felix Bilbao (E), Txomin Peillen, Karmelo Etxenagusia (E), Mikel Zarate (B), Jose M^a Aranalde (B), Juan Anjel Etxebarria (E), Imanol Laspiur (B), Salvador Garmendia, (B), Markos Amundarain (B), Joseba Intxausti (B), Juan M^a Torrealdei (B), Rikardo Arregi (B), Xabier Kintana (B), Jose Luis Lizundia (B), Anjel Zelaieta (B), Anastasio Albisu (E), Mikel Atxaga (B), Jabier Amoritza (B), Isi-

dor Basterrika (B), Nemesio Etzaniz (E), Muxika'tar Tene, Manuel Lekuona (E), Tomas Agirre, Pierra Lafitte (E), Iñaki Olabeaga (E), Anizeto Zugasti, Txomin Jakakortajarena (E), Iñaki Goikoetxea (E), Eusebio Erkiaga (E), Paulin Solozabal (E), Sabin Muniategi (E), Aurre-Aprreiz (E), Basarri, Kerexeta (E), Bordari (E), Krugwig (B), Juan San Martin (B), Pedro Anasagasti, Luken Larreategi, Manu Ertzilla, Juan Mari Lekuona (B), Biktoriano Gandiaga (B), Jesus Gaztañaga (E), Jean Erdozainzi, Jose Agustin Orbegozo (E), Antonio Bilbao (E), Gabriel Aresti (B), Mikel Lasa, Jose Antonio Artze, Luis Mari Muxika (B), Jose Azurmendi (B), Paulo Iztueta (B), Xabier Lete(B), Ramon Saizarbitoria (B), Ibon Sarasola (B), Amaia Lasa, Koldo Izagirre, Mikel Arregi, A. M. Labaien (E), Arkotxa, Andonegi, Agustin Zubikarai (E), Pierre Larzabal, Jon Etxaide, Martzel Andrinua (E), Xalbador Garmendia (B), Ander Manterola, Juan Luis Goikoetxea...

Amaitzeko, Euskerazaintzakoak izan diran eta diranen omenez ona emen lauki au:

Lino Akesolo	Santi Onaindia
Jesus Gaztañaga.....	Anes Arrinda
Augustin Zubikarai	Pedro Puxana
Jaime Kerexeta	Amale Arzeluz
Paul Atutxa	Martin Olazar
Iñaki Zubiri	Bixente Latiegi
Paulin Solozabal	Jon Oñatibia
Manu Oñatibia	Dunixi Oñatibia
Uxola	Andoni Kortajarena
Jose AgustinOrbegozo	Luis Arostegi

OLAZAR'tar Martin

LURGORRI'RI OMENALDIA ARAMAIONA'N (EUSKERAZAINTZAK ESKATUA)

LIBURU BATEN AURKEZPENAK:

Ba-dira lau-bat urte Euskerazaintza'k, Latxaga'ren proposamen bat onartuta, "1.936'ko GUDALDIAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK" gogoratze-ko zeozer egin bear gendula, ostantzean Euskalerrian ainbeste zor dautseguna aiztuta geratzen diralako, esan ebala.

Auxe esan eban Latxaga'k bere egitamua aurkeztu ebanean: "Euskalerriak bere gogamenean beti jakin eta gomutaratu bear dau, seme-alaba eder eta bikain areik edestian zear beragaitik len zer egin eben, eta gaurko elduak eta gazteak areikandik zer ikasi bear dogun.

Orretarako jakin bear dogu nortzuk ziran eta ze lan egin eben, azkeneko odol tanta emon arte.

Egin-bearrak banandu ziran eta guztion lanak batuta, zorionez, Eusko Jauriritza be laguntzaille genduala, idazpuru ori daroan liburu osotu gendun.

Lana amaitu-ostean, urrengo batzarrean, Latxaga'k liburuaren zabalkundea egin bear zala esan eban eta orretarako iru aurkezpen egin bear genduzala, Donostia'n bat, Bilbao'n beste bat eta Gazteiz'en irugarrena.

Eta Naparroa'n?– Itandu eban Euskerazain batek. Eta Latxaga'k ez zala bear esan eban, an ale biko liburu eder bat daukelako: "NABARRA 1. 936 – DE LA ESPERANZA AL TERROR" Altafaylla kultur-taldeak eta Jimeno Jurio'ren aolukularitzagaz argitaratua. Laugarren argitaldian egoala esan eban.

Euskerazaintza'k onartu eban egibide ori.

Ez dogu aiztu bear elburua zein dan: Idazle gazte su-izkillatu orreik agertu, gaurko eldu eta gazteentzat eredu lez, fede-girotik sortutako abertzaletasunean.

LENENGO AURKEZPENA DONOSTIA'N:

Donostia'ko Mitxelena aretoan egin gendun lenengo aurkezpena, Latxaga arduradun zala.

Aretoa bete-beterik egoan eta, poz aundiaz diñot, sekula ez dodala ikusi ainbeste gizon eta emakume, zar eta gazte, Euskal politikan guztiz ezbaridiñak izanda, batera jokutzen.

Latxaga'k liburuaren adierazpena egiñez emon eutsan asierea, maikideen aurkezpena egin-aurretik, berba oneik esanez: "BA-DITUGU GURETARRAK BEREN BIZIA ERRIAREN ALDE EMON ZUTENAK, ETA ZERBAIT BA'GARA, AREI ESKER GARA".

Gelago barik Garmendia'tar Mari Karmen'eri emon eutson berbea.

Onek Euskerazaintza'ren eta Emakumeen Abertzale Batza'ren lana gogoratu eban eta orrelan oroitzen eder bat egiñaz entzuleen biotzak berotu ebazan.

Urrengo Olazar'tar Martin, Euskerazaintza'ren lendakariari emon eutson berbea.

Onek Lauaxeta, Lizardi eta Orixe mailla bardiñean kokatuta, eta guda-aurreko olerkarien artean aundienetarikoa zala gogoratu eban. Eta amaitzeko itaun bat egin eban: Ain gazte zirala su-izkillatu ebezan olerkari oneik, zer egingo ete eben gaur-arte bizirik iraun ba'eben?

Zelako triskantza egin eben, beste diktadore askoren antzera: “POR EL DESTINO EN LO UNIVERSAL”, gauza ziur au aitzuta jokatu ebelako: “Euskal zugatzaren enborra erpeen azpitik asita atera ezean, landara eta lora barriak urtengo dirala, fruitu ederrak emoteko”.

Aretoan egozan entzuleen artean siltasuna, abegi ona eta biotzaren berotasuna geroago eta geiago agertzen ziran.

Urrengo Latxaga’k, Euskerazaintza’reu eta Euskerazaleak Alkartearen kide ta idazkari dan Atutxa’tar Paulo’ri emon eutson berbea Lurgorri’ri buruz berba egiteko.

Atutxa’k zati oneik azaldu ebazan bere itzalditxuan:

1º. – Lurgorri’reu gurasoak: Aita, Azkarraga eta Urmeneta’tar Jose Mari, Araba’ko Agurain’en jaioa zan eta Erreteriko Mozo ta Ozio’tar Juana zan bere ama, biak benetako abertzaleak.

Guda etorri zanean, euren etxea guda-eritegi biurtuta ikusi eben eta seme bi eriotzara epaituta eta alaba biak guda-eritegian gaiso-zain.

Aita bera be Eusko Jaurilaritza’reu zerbitzura eta ama etxeko guztiak zaintzen maitasunez. Guztiak Euskadi’reu zerbitzura.

Poz aundia artu neban niri gai au ezarri eustenean eta benetako biotz-ikara artu neban, gazte oneik, Lurgorri’gandik asita, Euskalerrigaitik euken ainbes-teko maitasuna, sendian asita ikusi nebalako.

Gaur zori txarrez, abertzaletasun ori apurtzen dabiltzala ikusten dogu eta gure gazteak be naste orretara sartu nai dabez, eurak garaille urteteko eta euren sasi-jainkoak iraun dagien.

Amaitzeko, Lurgorri’reu azkeneko eskutitza eta berbak gogoratu ebazan: Espaina’tarak su-izkillatu ebenean, Lurgorri’k 21 urte eukazan eta guztiok arri-tuta geratzen gara mutil onek euki eban kemen aundiaz. Orduko abertzaletasunaren antzekoa euki bear dogu gaurko gizon-emakumeak, zarrak naiz gazteak izan, eta urrezko denbora aiek eskuratu bear doguz.

Urrengo Latxaga’k berak Josu Peña (AITZA)’reu oroimenezko azalpen ederra emon eban.

Amaitu baiño lenago, Garmendia’tar Txomin’ek bertso bi abestu ebazan eta Mari Karmen Garmendia’ri lore-txorta bat eskiñi eutsoen eta guztiok zutunik, AGUR JAUNAK abestuta amaitu gendun gure liburuaren lenengo aurkezpena.

Ostean, geienak, inguruan dagoan edaritegi batera joan giñan izki-mizki batzuk artzera eta gero bazkaltzeko uste ebenak geratu giñan.

An ikusi neban zelako ardurea dagon Euskalerrinari eta aberriari buruz. Eta beste au be ikusi neban: Ezkerrekoa naiz Eskumakoa izatea bardin dala, itaunai erantzun bardiña emoten jakelako. Orrelan kanpotik datorkuzan arazoak konpontzeko etxetik asten gara.

•••

Bilbao’n be, Euskerazaleak Alkartearen etxean egin gendun liburuaren aurkezpena eta etorri ziranak pozik aurkitu ba’ziran be, ez eban euki Donosti’koaren besteko oartzunik.

Araba’ko aurkezpena geratzen jakun egiteko eta ba-geunkazan zalantza batzuk. Zori onez, Gazteiz’ko seminarioan gure Bizente Latiegi’k ikusi eban Emilio Perez Asensio Aramaina’ko parrokoa eta bien artean Lurgorri eta onen izenez Araba’n liburu aurkeztea aztertu eben.

Emilio jaunak eta Bizente’k Martin’eri deitu eutsoen proposamen au eskintzeko eta onek eskutitz bana egin eutsen Paul’eri, Bizente’ri ta Emilio’ri gai au

aztertzeko Seminarioan izango zan batzar batera 2. 002'ko Abendua'ren 12n; egunean egin gendun batzar au eta gai oneik aztertu genduzan: Emilio'k esan eban Aramaiona'ko Alkateagaz berba egin ebalu eta gertu dagoala. Bizente'k esan eban beronek Joseba Azkarraga ezagutzen ebalu eta prest egoala Joseba egunorretan Aramaiona'n egoteko. Eguna be izendatu gendun: Otsailla'ren 22^a eta egun orretarako ondo litzakela txistularia, dantzariak, bertsolaria, korutxu bat eta Sabin Salaberri ekarte.

Batzar aren ondoren lez batzarkide bakoitxari ekintzak ezarri jakozan: Bizente'k egingo eban berba Joseba'gaz eta Gotzon'egaz; Martin arduratu zan zabalkundea egiteko, DEIA'n eta Bizkai-Irratian, eta Emilio'k egingo eban lan au Aramaio-aldean "Txirritola" gaz eta "Gorilibere" gaz. EITB'ra deitzea be aitatu zan, baiña aste-azkenean ez zan errez izango oneik etortea. Bizente gertu agertu zan batzokietan zabalkundea egiteko, baiña ez genduan nai jente geiegi batzea be eta ezetzean geratu giñan. Tokia ba-dagoala esan eban Emilio'k, kultur-etxean eun-bat lagunentzat eta geiago bear izan ezkeru, Eleizan naiz pelotalekuan. Egitaraua onela geratzen zan: 1. - Aurretiaz pantallak, argazkia eta maia gertatu. 2n. - Sarrera, Udaletxetik, txistulariak lagun. 3n. - Alkar agurtzeko Agur Jaunak. 4n. - Dantzarien ekiñaldia. 5n. - Akademi-ekiñaldia: Garmendia'tar Mari Karmen'ek, Euskal-Emakume-Bazkuna; Martin'ek, Lauxeta; Latxaga'k, Aitza; Atutxa'k, Lurgorri. 6n. - Korua. 7n. - Bertsolaria. 8n. - Urteera txistulariakaz.

Egitarau ori irarkolaz argitaratuko zan eta Emilio'k egingo eban berba Lankide Aurrezki-kutxagaz ori egiteko. Gero liburuak banatuko ziran.

Geu lauron urrengo batzarra Otsailla'ren 3n egunean izango zan eta udalkide bat, geroago Emilio'k esan eban. Eta bertako bat izlari sartzea eskatzen dabe, Belez Mendizabal. Eta, gaiñera, Lurgorri'ri omenaldia izatea naiago leukee.

Otsailla'ren 3'ko batzarrean gauza oneik agertu ziran: Bizente'k berba egin gura izan dau Miren Azkarate Kulturako Sailburuagaz, baiña ezin lortu izan dau. Emilio'k bere ekintzak bete dauzala esan eban eta ez dagoala arazorik, bertsolaria, dantzaria eta txistularia gertu dagozela 22'rako eta Joseba Azkarraga be gertu dagoala etorteko. Baiña Emilio'k argazki on bat nai eban eta izeko bategana urreratu zan Karlos Abaitua'ren bidez eta an esan eutsen gai onetan asko dakiala Belez Mendizabal'ek, argazkia ba-dagoala eta Belez Mendizabal'ek liburu bat daukala Lurgorri'ri buruz.

Alkateak beste aginbide batzuk aurkeztu ebazan, esaterako plaza edo kale bat ezkintzea Lurgorri'ri. Dana ondo eratzeko eguna aldatzea eskatu eban Aramaiona'tarrak eta autezkundea baiño lenago egiteko, Jorrailla'ren 11n. eta 12n. eguna eskintzen ebazan. Arana Fundazio'ak Lurgorri'ren idazkiakaz erakusketak bat eratuko eban. Egun bat baiño bi artzea oba litzakela esan eban Emilio'k, barikua eta zapatua. Bera geratu zan Alkateagaz eta Kulturako zin-egotziagaz gaia bideratzeko. Beste berbaldiak irurak 40 minutuan egin eta Belez Mendizabal'eri ordu-erdi iztea erabagi zan.

Irugarren batzarra egingo gendun geure artean egunak eldu baiño lenago Aramaiona'n. Atutxa ta Martin arduratu ziran Bizente ara eroateko eta zein egunetan batzarra egin jakiteko Emilio'gaz berba egingo gendun.

Egunak urreratuz, Martin'ek Iñaki Nafarrate Kortabarria, Aramaiona'ko Alkatearen eskutitza artu eban, Udal-Batzaren izenean idatzita eta Emilio parrokoak emon eutsala gure liburuaren aurkezpena egiteko proposamenaren barria eta gogorapen ori aztertu dabela eta Lurgorri'ren bizitzan sakontzen asi, diño, eta orrenbeste zor dauzagula Lurgorri'ri. Egitaraua bialtzen dau eskutitzagaz batera eta ospakizun orretarako deia Euskerazaintza'ri. Eskutitz maitekorra eta pozgarria.

Baiña batera datorren egitarauan gauzak oso aldatuta agertzen dira: 11n. egunean itzaldia. 12n. egunean: Ekintzaren aurkezpena, mai-ingurua, CD baten aurkezpena, Bideo baten ikuskapena, Belez Mendizabal'en liburuaren aurkezpena, Pasealeku bat Lurgorri'ri, erakusketa eta mokadutxo bat.

Gutzat ez egoan maian lekurik, gure itzaldientzat ez egoan lekurik, Euskera-zaintza ez zan iñon be aipatzen. Zer jazo ete zan or? Nori zor ete dautsagu oso osoan alboratu izate au?

11n. egunean Aramaiona'ra arratsaldeko zazpiretan agertu giñan Olazar'tar Martin, Solozabal'tar Paulin, Latxaga, Atutxa eta Peña'tar Lorentzo, "Aitza'ren anaia. Eta ez gintzazan esku-utsik joan; Emilio'ri emon geuntzazan "36'ko Gudan Su-Izkillatutako Idazle Gazteak" liburuaren 50 ale eta beste berrogeta amar ale ZER aldizkariarenak eta Euskerazaintza aldizkariarenak, eta oneik, egun bietan banatu ziran. Bigarren egunean baita Belez Mendizabal'en liburua.

Lenengo egunean aretora sartu giñanean, mai-buru Alkatea izan zan eta maiko bakarra Belez Mendizabal izlaria. Alkateak egin eban ekintzaren eta izlariaren aurkezpena.

Belez Mendizabal'ek ondo margoztu eban Lurgorri'ren irudia, baiña areto'ko giroan oztasuna nabari zan.

12n. egunean bardin urreratu giñan bezperan an izandako Euskerazaintza'ko guztiak eta Peña'tar Lorentzo be etorri zan, Lizarra'tik Atxa'tar Jesus be bai, bere emazte ta seme-alabakaz.

Aretoa batu giñanean ordenagaillu bategaz zine-oial baten Azkarraga'tarren baserriaren eta senide irudi politik emon euskuezan.

Amaitu zanean, guztiak batera, eres-talde bat lagun genduala Eleizea baiño berago dagon pasealeku batera joan giñan eta an ezarri zan oroitarri bat Lurgorri'ren izenean pasealekuaren asierea ta eskintza egiten zala. Gero andik urrean dagoan Sastiña baseleizara joan giñan erakusketa ikustera.

Eres-taldea lagun genduala aretoa dagoan etxe beratan dagoan zar-saridunen tokira eldu giñan eta emen mai baten gaiñean Aramaiona'ko antolatzaillak janariak emon euskuezan. Alkate jauna oso maitekiro eskintzaillak genduala.

Antolamentuaren gertakuntza ona izan zan errian oiartzuna euki egian, baiña garrantzi aundiko ezak be agertu ziran, batez be Jel/Pnv'k eta EA'k ondo egiten daben gauza bat ez zan egin, alderdikide eta erritarren artean egin bear zan aozko lana. Lurgorri'k merezi eban ori ta geiago be.

Aretoa bera be ez zan bete-beterik egon eta gazte gitxi ikusten zan, berotasuna ta oiartzuna urriak ziran. Guk, alkate jauna ta Joseba Azkarraga an izatea eta Belez Mendizabal'en berbaldia dan bestean aintzat artuta, Mari Karmen Garmendia'ren, Atutxa'ren, Olazar'en eta Latxaga'ren itzaldien utsunea somau gendun, Lurgorri'ren giroa biziago agertzeko, Emakumeen lanak, Aitza eta Lauaxeta gogoratuta. Ondo etorriko ziran, baita erakunde osoa alaitzeko, bertsolaria, dantzariak eta txistu-taldea jai-giro beroa sortzeko.

Gaiñera ekintza au Euskalerrian lau aizeetara zabaltzea be bearrezkoa zan, Euskal Telebista, irratiai eta izparlariak dei eginda.

Azken baten, ba-dirudi norberekeriaren bitartez giroa ez zala berotu bear zan neurrian. Euskaldunen artean izurri bat dogu, urrin dagozenak urrin iztea, alderdiak ugaritu eta Euskaldun geienak bakartadean itzi.

Donosti'ko ekiñaldian Latxaga'k esan ebazan berbakaz amaituko dot:

"BA-DITUGU GURETARRAK, EUREN BIZIA ERRIAREN ALDE EMAN ZUTENAK ETA ZERBAIT BA'GARA AIEI ESKER GARA "

Atutxa'tar Paul
Zornotza'n, 2. 003'an jorrailla'ren 23'an



2003 ADL - 1



SARRETA	IRTEERA
Zk. /	Zk. 132

Aramaion, 2003ko apirilaren 28an

Agur terdi, adiskide preziatu hori.

Jakizu, lehenik eta behin, lerrook Aramaioko Udalaren esker emate xumea besterik ez direla eta xede horretan zuzentzen natzaizula.

Izan ere, urte hasieran Emilio Perez Aramaioko erretorea dena, Euskarazaintzak argitaratutako liburuaren aurkezpena proposatzera etorri zitzaigunean, nekez irudika genezakeen iradokizun hark eragin duen ekimena.

Idea hura aztertu eta borobildu nahi izatetik *Lurgorriren* bizitzan sakontzen hasi ginen eta interesgarria iritzi genion haren obraz gain berak bizi izandakoa, Gerrate Zibileko giroa, alegia, herrian ezagutarazteari.

Uste dugu Euskal Herriaren historiari eta gure oroimenari horrenbeste zor diogula.

Honekin batera doakizun egitarauan ikus dezakezu apirileko bigarren astebururako prestatu duguna. Eta berriro diotsut zuk ordezkatzan duzun Elkartean jarri gintuela arrastoa eta meritu hori aitortu beharrean gagozkiola.

Beraz, ohorea da, Aramaioko Udaleko alkate bezala eta honen izenean, Euskarazaintzari apirilaren 11 eta 12an ospatuko ditugun eginkizunetara gonbitea luzatzea.

Orduan, elkar ikusiko dugulako eta gure eskerrik zintzoena berretsiz

Pere Jant

Iz.: Iñaki Nafarrate Kortabarria
Aramaioko alkate udal-burua





JOSE MARI AZKARRAGA “LURGORRI”-ren OMENEZKO EKITALDIAK

ARAMAIO

EGITARAUA

2003ko apirilaren 11an

Arratsaldeko 7etan, Kultura Etxean

Hitzaldia: *Jose Mari Azkarraga “Lurgorri”*: *biografia eta idazlanak*

2003ko apirilaren 12an

Goizeko 11etan, Kultura Etxean

- Aramaioko Udalaren erabakiaren aurkezpena.
- Mahai ingurua
- CD baten aurkezpena
- Bideo baten ikuskapena
- “*Jose Mari Azkarraga Mozo “Lurgorri”*. *Bere bizitza eta idazlanak*” liburuaren aurkezpena

Eguerdiko 12'30etan

Aramaioko Pasealeku bati “Lurgorri” izena emango zaio.

Arratsaldeko 13etan

“Lurgorri”-ri buruzko erakusketa inauguratuko da, Aramaioko Sastifan.

Ondoren

Mokadutxo bat Jubilatuen Egoitzan



OLAZAR ETA URIBE'ar MARTIN

(ABADEA)

XXIII Jon Zna'ren Emparantza, 2, 1.º

☎ 94 674 01 23

48100 MUNGIA (BIZKAIA)

Mungia'tik, 2002-12-09'an

Bixente Latiegi
Paul Atutxa
Emilio Perez Asensio'ri.

Adiskideok:

"36'ko gudan su-izkillatutako Idazle gasteak" liburua Araba'n aurkezteko, LUR GORRI'ren erria da/Aramaio aukeratu dogu.

Aurkezpen au geñatzeko batzorde bat sortzen dogu eta oneik bazkideak:

Emilio, Parroko Jauna
Paul Atutxa
Bixente Latiegi
Martin Olazar

Lenengo batzarrera dei egiten dautzuet:

NON?. Gasteiz'ko Seminarioan

Eguna ta Ordua: 2002-12-16, astelena, 12'etan.

EGITARAUA:-Noiz egin ekintza? ~~Østirala?~~ Goizean?

Arratsaldean? ~~Mezirik?~~ ~~Bazkaria?~~ LARUNBATA = 22 F

-Joseba Azkarraga'ri deia nok? ~~berenb'tk~~

-Zabalkundea: Irratian, EITB'n, izparrin-gietan, Nok egin?

-Aramaio'n: Udalari Nok? Dantzariak eta txistua, bartsolaria.

-Egitaraua gertatu eta argitaratu nok?

-Akademi ~ ekifaldia: Mai-buruan Joseba ta Alkatea, Izlariak, bakoitxak amar minutu, Mari Karmen Garmendia, Paul Atutxa, Martin Olazar eta Latxaga.

-Lur-Gorri'ren idaz-lan guztiak noz argitaratu?

-60 liburu banatu.

Olazar eta Martin
2002-12-09'an

EUSKALKIZTIA

(EUSKEREAREN DIALEKTOLOGIA)

I. -Ezbardintasunak

Euskereak zazpi lurraldeetan askotariko aldakuntzak dauko. Dana aldatzen dan lez, lur-azala bera naiz jaurketarako erakundeak naiz etxegintza, bardin aldatzen dira jakintza-gaiak be, eta izkuntza bera be bai.

Euskerearen aldakuntzak aztertzeko, argibide lez, Koldo Mitxelena'ren "Sobre el pasado de la lengua vasca, 1964" liburua artzen dogu, liburu laburra, argia eta jakituriz eratu.

Aldakuntzak ez dira bardiñak lurralde guztietan, ortik sortzen dira izkelkiak edo dialektoak, naizta guztien gaiñetik, sarritan, izkuntza idatzi batek iraun.

Aldakuntza oneik izkuntza ondo sendotu eta gero be etorten dira. Esaterako Grezia'ko "koine"ren batasuna lortu zan baiña ori geroko aldakuntzen asierea be izan zan.

2-Aldakuntza aundiak ala txikiak?

Itaun bat emen: Euskerearen aldakuntza oneik aundiak ala txikiak dira?

Ezin dogu artu neurri bat aldakuntzak neurtzeko, baiña izkuntzalariak aldakuntza oneik ez daukez aundizat. Eguneroko izkuntza erabili bear dabenen artean, batzuk aundiak dirala esango dautsue, beste batzuk, ostera, txikiak dirala. Gaiñera, asieran alde aundia dana, egun batzutako artu-emonan izan ondoren, txiki biurtzen da.

Eta zelan edo zergaitik ain lurralde txikian ainbeste aldakuntza?

Etxe batetik bestera be aldakuntzak izaten dirala esan eban Biblia'ren Itun Barria euskerara biurtu eban Leizarraga itzultzaile protestanteak (1571). Auñamendi-inguruan barriz, euskerea ez diran izkuntzen artean be jazoten da ori eta biztanleak tokiz gitxi aldatzen diralako izan leiteke.

3. -Baturantza bide zarrak.

Euskerea ez da iñoz izan laterri bateko legezko izkuntza eta ez da oraintsura arte ikastegietako izkuntza be izan.

Bai, ostera, izkuntza idatzia eta ori euskalki bat baiño geiagotan. Izan dauz idazkerako arauak be, baiña euskalki batek be ez dau lortu iñoz arlo onetan nagusitasunik.

Euskera baturik izatekotan, 1968n. urtearen aurretik erbestean izan da olako zerbait: Ameriketako euskal-kolonien artean, eta batu edo "koine" orretan indarrik aundiena bizkaiereak eta gipuzkoereak izan dabe. 1761n. urtean Peru'ko kolonian argitaratu ziran balio aundi bageko bertso batzuk eta oraintsu Arjentina'n, esaterako, sortaldeko euskerea izan da nagusi, baiña ez daukagu ango barri zeatz askorik.

4. -Euskalkien alkartasuna.

Ez da izan banakuntzarakoa euskalkien indar bakarra, baturantza be alegiñak egin dabez, sarritan aldakuntzak be alkarren parean egin dira euskalkietan azkenengo milla urteetan.

Ona emen alkarren parean doazen aldakuntzak:

1. - Itz osotuak sortzean lenengo itzaren azkena aldatukeran, esaterako begi/bet (betaurre edo betule), idi/it (itaurre)etxe/etxa(etxaburu), burdiña/buridin (burdi-lana)... Olakoak EuskalERRI osoan euskalki guztietan batera egin dira.
2. - Latiñetik artutako itz ugarietan be guztiak batera edo antzera jokatu dabe: parkatu, dorrea, gela, area, koroia, katea, kanpaia, oore, borondate, goru, zeru, gaztelu, arima.
3. - Izkuntza bera be aldatu egin da: Gaurko bizkaerea eta Garibai'ren atso-titzetakoa ez dira bardiñak bizkaieran eta lapurteran be ez Etxepare'rena ta gaurkoa. Aurrerapen onetan aditz-joko trinkoak galtzen doaz eta banan jokatuak sartzen: "dakartzut/ekarten dautzut". Eta jokera au Europa'ko izkuntza guztietan be agertzen da.

5. -Gure euskalki-iztia gitxi aztertua.

Euskalki-iztiak ez dauko bear leuken beste indar.

Louis Lucien Bonaparte XIX gizaldian eta Azkue XX'ean dira lanik geien egin dabenak

Baiña izan ziran aurreragokoak be. Lanik geien egin ebana Manuel Larramendi (1690-1766) izan zan bere "Diccionario trilingüe" gaz eta "El imposible vencido" (1729) lenengo gramatikegaz. Eta geroago "Coreografía de Gipuzkoa" (1882) liburuagaz.

Larramendi'ren ustez ezin leike ondo ikasi euskerea euskalki bat bakarrik ikasita, gerkera ez dan lez ondo ezagutzen izkelki bat ikasita. "Euskalduna da ez Gipuzkoa'ko edo Bizkai'ko edo Naparroa'ko edo Laburdi'ko euskerea dakiana, euskalki guztiak dakizana baiño". Zuzen diño ori Larramendi'k, naizta, aldelari edo apolojisten giroak olako gauza ederrak beti erderaz esan. Argi agertzen dau or euskalkiak euskerearen aberastasuna dirala.

Larramendi'k sarritan emoten dauz euskalkien barriak eta bere ikasleak be bide orretatik jarraitu eben, esaterako Arakistain karmeldarrak 1746n. urtean iztegiari osagarriak bialdu eutsozanean. Oneik geroago Coreografía'ren azkenean agertu ziran. Auxe da lenengoa Erronkari'ko euskereaz arduratzen dana.

Larramendi'gandik sortua da, baita, Joakin Lizarraga. Onek erabagia artu eban bere lanak Goi-Naparroa'ko izkuntza gitxi landuan idazteko. Gaur euskalki ori galdua dogu eta idazki oneik dira lagun, zelakoa zan jakiteko.

6. -Louis Lucien Bonaparte printzea.

Auxe da gaurko gure euskalki-iztiaren aurrelaria eta ia-ia amailaria. Arrezkerro ez da egin besterik bere lanak aztertu baiño. Oraindiño lan orreik ez dira irarri.

Bonaparte izadiko jakingaiak aztertzetik etorri zan izkuntzetara. Lenengo lana erromantzeak aztertzen egin eban, baita kelten eta jermanoen izkuntzak eta fino-ungariarra aztertzen be. Azkenean buru-belarri sartu zan euskerara eta euskalkietara. Era bitako gaiak pillatu ebazan, berak batuak eta tokian tokiko billatzaillak bialduak.

Geienetan erlejiño-gaiak dira batzen dauzanak (biblia ta katekesis) eta berak laguntzaillai olako gaiak euskeratzean erriko euskerea erabilteko arau zeatzak emon eutsezan. Geienak abadeak ziran.

7. -Bonaparte'ren mugak eta utsak.

Bonaparte izan zan "euskerazaleen artean geien euskerea maite ebana", baiña euskalkiak eta izkerak batera artu ebazan. Orregaitik sarritan artzen ebazan laguntzak euskalki idatziarenak ziran, ez errikoak.

Esaterako Arrigorriaga'koa zan aita Uriarte'ri biblia gipuzoerara itzultzeko eskatu eutsan. Errez agertzen da liburu orretan ez dala lekuko ona euskalkia, berea ez dana, agertzeko.

Bonaparte'k ondo begiratzan ebazan euskalkiak eta azterketa zeatza egiten eban, aurre-erixi barik... Orregaitik da ain sinisgarria, baiña arau burubidezkoak ortik atera bear diranean galdu egiten zan. Bere gaiak dira baliotsuagoak berak ateratako ondorenak baiño. Bere azkenengo lana euskalkien eta izkeren lur-irudia izan zan (1863).

Laburpen ona eta gaur be aurrean daukaguna itzi euskun baiña beste gai batzuk eztabaidagarriak dira. Esaterako gaur euskalki bat non amaitzen dan jakiteko ezin artu leiz berak artutako gaiak, batez be abosgintzakoak: Alabea/alaba, naizta abostegia izan izkelki-iztiko santutegia.

8. -Azkue'ren lanak.

Urrago daukagu Azkue'k zabaldu eban itaunketea, Bonaparte'rena baiño luzeagoa ta zabalagoa, eta ondorenak "Diccionario vasco, español francés" (1905) eta "Morfología vasca"n (1923) agertzen dira.

Or be ba-dagoz oker batzuk: Iturri bitako gaiak nastatzen dira liburu orreitan, berak batutakoak eta iztegietatik artuak.

Bere iritxi batzuk berak ondo zainduak be kalte egin eutsoen, batez be Morfolojian Bizkai'ko aditza agertzen dauanean, fidagarriagoa da Gipuzkoa'ko aditzari dagokion eraskiña. Azkue'ren okerra izan zan erriaren gauzak noizbeinka bere eritxien arauz aldatu egiten ebazala, orrelan esaterako, Erronkari'ko euskerea agertzen dauanean.

9. -Azkue'ren gaiak non aurkitu.

Azkue euskaltzain-buru izan zan onen asieratik bera il arte. Orregaitik berak batutako gai asko erakunde onetan diran esku-idazkietan dagoz beste asko Euskera aldizkarian agertuak dira.

Erizkizundi irukoitza (triple cuestionario) da toki bat. Iru zati daukaz: abostegiarena, itz-osotzearena eta iztegiarena.

Itaunketa onek ez dau eragin aundiegirik izan gure izkuntzaren euskalki-iztian zio bigaitik: 1. Asieran eritxi baten antzera egin zalako, euskera batuaren biderako eta orregaitik itaunak ez ziran bear zan bestean zabalak eta 2. Erantzunak era egokian zabaldu ez ziralako. Soule'ko erantzunak, Gavel'ek argitaratuak oso ondo dagoz eta 1960n. urtean Euskera aldizkarian agertu ziran.

Itz-osotzearen arloan baliotsuak dira 1936n. urtearen aurretik Gipuzkoa'n G. Bähr'ek batuak eta Napparroa'n Intza'k batuak.

10. - Bonaparte'ren euskalki eta izkeren banaketa.

Bonaparte printzeak ondo banatu euskuzan izkerak eta euskalkiak lurraldeetan, baiña ara zer diñon Menendez Pidal'ek: "izkelkiak ez dauke muga ziurrik, arlo onetako jazoerak guztiak bardin ez diralako zabaltzen"

Baiña argi dago lur-irudia ondo egiña dala, orregaitik ez da iñor ausartu aurka berba egiten, isoglosak ondo banatzen dabez lurraldeak baiña beti agertzen

dira itaunak: Baztan'go izkerea Goi-Naparra'koa da ala Laburdi'koa? Burunda'ko euskerea Goi-Naparra'koa ala Gipuzkoa'koa da? Erantzuteko zeri begiratu jakin bear.

11. -Bonaparte'ren zortzi izkera edo euskalkiak.

Zalantza batzuk izan arren, zortzi izkera aurkitu ebazan Bonaparte printzeak: Bizkaiera, Gipuzkoera, Goi-Naparra'ko ipar-erea, Goi-Naparra'ko ego-erea, lapurdierea, Be-Naparra'ko sartaldekua, Be-Naparra'ko sartaldekua eta Soulera. Isoglosa nagusiak iparretik egorantz doaz, baiña batzuk sartaldekutik sartalderantz. Au, antza, laterri-arteko mugaren eragiña da.

Zatiketa egiteko Bonaparte'k ez dau larregi kontuan artzen aboskintza, baiña ez dago aitzuta, batez be seigarren bakarti edo bokala, ü, agertzen danean edo Soule'ko zurreratuak edo Erronkari'ko h galtzea aurrean daukazanean.

12. -Bonaparte'ren isoglosak banatzen.

Isoglosa batzuk lurraldea zati bi egiten dabe, bata sartaldea eta bestea sartaldea.

“Hay/badago” ez da agiri España-aldean, Balkarlos eta Soule'n (ez Aezkoa'n) eta Erronkari'n izan ezik.

Ba-dakigu arduraz ibilli zala esan/erran non kokatzen diran jakiteko.

13. -Bonaparte printzearen gai nagusia.

Beretzat gairik arduragarriena aditz laguntzaillearena izan zan: dot/det/dut, eta Deust/, dit/deraut/ eta naiz/niz...

Izan be aldakuntza oneik oso nabarmenak dira, sarritan agertzen diralako.

Dot/det/dut irurak datoz lenago izango zan “daut”etik. Gaiñera “dut” ez da sartaldekua beste barik, Araba'ko Zigoitia'n be agertzen da eta Donemiliane'ko glosa edo azalpenetan be an dagoz “dut” eta “dugu”, antza dagoanez Naparroa'ko idazleak ipiñiak, edo Errioxa'koak, Bizkai'ko euskalkitik urrago egon arren.

Dana dala, euskalkien mugez arazoa labana da, eta beti erriaren esaerak artu bear dira. kontuan, ez eritxiak.

14. -Bonaparte'ren lana aztertzea amaitu bagerik dago.

Azkue'ren lanak eta oraintsuago egin diranak gaiñeratu bear jakoz Bonaparte'ri,

Izkerak aberastasun aundia dira eta aldakuntza oneik ez dagoz amaituta, barriak sortzen dagoz eta zarrak galtzen doaz, oneik ez dira liburu idatzi baten antzekoak, landara bizi baten antzekoak baiño.

Bonaparte'k artu ebazan erantzunak gaur sarritan ez geunkez artuko eta beste barri batzuk bai, ostera.

Gaiñera gaur ibilli dabiliz asko euskaldunak eta artu-emon oneik naikoa dira aldakuntza galazoteko or dago EITB be.

Izkelkien lur-irudiak eginda dagoz Frantzia'n eta España'n. Frantzia'koak euskereari ikutu egiten dautso puntu baten.

Arrigarria da arlo oneri ain arreta gitxigaz begiratzea, baiña Koldo Mitxelena'k pozik parekatuko leukez egin diran Atlas-lan aundiak eta gaurko Atlas'enak

Olazar'tar Martin'ek

EUSKEREAREN EDESTIARI BEGIRA

Edestia izkuntzaren barruan eta kanpoan

Edestia berba onek gauza asko agertu leikez, baiña izkuntza-arloan gauza bi dira kontuan artu bearrekoak: Bata izkuntzaren barrua eta bestea kanpoa, inguruko erriari begira.

Izkuntzearen barruko edestia agertu lei, kanpokoa aitatu barik eta bardin kanpoko edestia agertu lei izkuntza aitatu bage.

Dana dala, izkuntzan erromatarrazko artu-emonak agertzen dira. Ikutu au geien iztegian agertzen da, nabarmenen beintzat, eta konturatu bage, asko aditzean be.

Ikutu ori beti izaten da izkuntzarik izkuntzara, ez beste jazokizunetatik etorria eta iñoz izkuntza batzuk ilteraiño eltzen da, esaterako latiñak Gaztela'n egin ebana edo Kolon'en ingurukoak Ameriketan egin ebana.

Edesti-aurrea ta edestia izkuntzan.

Idazkirik ez dagon aldiari deritxo izkuntzaren edesti-aurrea eta or esaten zira-la uste dogun berbak aurrean izartxu bat eroaten dabe.

Edestia, ostera, lekuko idatziakaz asten da eta edesti-aurreak baiño askoz garrantzi aundiagoa dauka. Ba-dakigu Schuchardt izkuntzalari ona zana eta euskerea ondo ezagutzen ebana, bai antxiñakoa eta bai oraingoa, baiña izkuntzaren edesti-arloan bera baiño aurrerago dago Luchaire, ain izkuntzalari ospetsua izan ez arren. Onek idegi eban atea erdi-aroko euskerara sartzeko eta Akitania'ko izen bereizari garrantzia emoten be onek irakatsi euskun.

Edestiaren garrantzia izkuntzarako.

Antxiñako itzak billatzen doguzanean bide zuzena artzen dogu, baiña berbeak izan dauzan aldakuntzak biurgune asko daukez. Orregaitik edestiko jakin-garriak bearrezkoak dira.

Esaterako “nire” ala “nere” ete da zarragoa?.

Batzuk “nire” dauke zarrago eta zuzenagotzat, “ni” daroalako eta “ne” ez da ezer, baiña agiriak aztertu ezker, “ene” euki dabe euskalki guztiak eta “neure” ez da besterik “ene” indartua baiño eta ortik etorri zan “nere” eta “nire” geroago sortua da.

Lenengo idazki luzeak.

1549n. urtean agertu zan euskeraz idatzita lenengo liburua, Etxepare'rena. Eta XVI gizaldi orretan beste lekuko asko daukaguz, esaterako Lizarraga'ren bibliaren itun barria euskeratuta eta atsotitzak.

Beste leku batzutan idazkiak beranduago datoz: XVI gizaldian Goi-Naparroa'ko Santxo Elso'ren Doktrina dago eta XVII'ean asko lapurteraz Sara'n naiz Donibane Loitzun'en, idazki asko eta onak, eta geroagokoak dira Zubero'koak eta 1713n. urtean Arin'go Otxoa'k atera eban lenengo liburua gipuzkoeraz, katekis-liburua.

XVII gizaldia argitsua da, Larramendi buru dala

Larramendi'k illuntasuna zabaldu eban iztegian, bera argia baiña nastatzaillea zalako eta entzuna naiz asmatua ez ebalako bereizten. Ainbat idazlek jarraitu ebezan bere bide okerrak.

XIX gizaldian Bonaparte'ren billaketai ezkerrek asko aurreratu zan.

Euskerearen lurraldeak urritzen (kanpoko edestia)

Argi esan-bearra dago aurkitu ziran gaiak aztertzeak atzerantza egin dauala, izkuntza lurraldez atzerantza egiteagaz batera, esaterako Naparroa'n, karlostarren guden ondorioz, eta lenago Araba'n XVIII gizaldian eta ez dakigu noz autrigoien lurraldea zan Nerbioi'tik ezkererantza.

Ba-dakigu Gasteiz'en XVI gizaldian erromantzea erabilten zala, ez albo-errietan.

Iparraldean, ostera, euskerearen mugak geldi dagoz 1500n. urtetik gaur arte.

Errioxa'n eta Burgos'en euskerea noz galdu dan ez dakigu, naizta erdi-aroko gure izkuntzaren zabaltasuna Merino Urrutia'k agertu izan.

Barri-aldia eta modernu-arogan euskerea lurraldez zabaldu egin zan apur bat eta gai au aztertu bage dago: Euskerea Ameriketan eta Terranoba'n XVI eta XVII gizaldietan eta batez be Islandia'n zabaldu zan.

Euskerearen erdi-aroko mugak zeaztu geinkez, toki izenak kontuan artuta.

Noiz lenengo astarrenak?

X gizaldia ezarri geinke muga lez. Ortik aurrera barri asko aurkituko doguz euskereari begira.

Or daukaguz Donemiliane'ko azalpen edo glosa biak, Aimerik Pikaud'en itzzerrendea (XII gizaldikoa) eta esaldi batzuk 1400n. urtean Iruña'ko Gotzain-eleizan idatziak.

Baiña izen bereziak askoz lenagokoak eta ugariagoak dira, geienak Naparroa'n dagoz eta izen asko Donemiliane'ko arautegi edo "reja"n (1025). Arabako erriak batez be agertzen dira. Eta millaka agiri idatziak dagoz pillatuta aztertu bage an, or, emen.

Erdi-aro isilla, erromatar berbatsuak.

X gizaldiaren aurretik gure agirien isillaldia dago erromatarren aldira arte. Emen bai, ba-dagoz izenak idazleengan eta arri-idazkietan.

Esaterako Akitania'ko idazkiak, notiñen naiz jainkoen izenak dira: andire, inko, Cison, neskato, belasko belaskonis filius, enekonis filius eta abar. Atarratze'n daukagu jainko-izen bat herauskorritsee. Oiartzun'en andrearriaga eta Naparroa'ko Legar'en asko.

Erromatarren aldia

Ezin izango da jakin iñoz erromatarren aldiaren euskerea nondik nora zabaltzen zan. Auñamendi'ren alde bietatik Lur-arte itxasora arte baietz diñoe.

Ezintasun orren oiñarria gure aurretikoak ezer ez idatzi izatea da. Gaiñera erromatarren ez ziran edozein izkuntza erabiltearen aurkakoak baiña bai izkuntza orreitan idaztearenak eta lengo toki-izenak jarraitzearenak, naizta Akitania'n toki izenak latinez eta euskeraz agertu asiera baten.

Euskerea alboratuta geratu zan, baiña erromatartu ziran tokietan be ez zan

gutziz galdu. Lurgin-tokietan jarraitu eban.

Sartaldetik sortaldera etorri zan erromatar biurtzea Auñamendi'ren parean eta Galia-aldetik eta Ispania-aldetik orrelan jokatu arren Bizkai'ko itxas-kolkoa geratu zan aske, alboan egoalako.

Euskerearen indarra beronen makaltasunean datza, gudarako eta dirubiderako makalak izatetik eta jakintza-arloan atzeratuta egotetik etorri zan salbabi-dea. Atlantik itxasoak be ez eukan eurentzat garrantzi aundiegirik, asieran, geroago bai.

Arrisku-aldiak

Izan ebazan euskereak arrisku-aldi batzuk be, batez be erromatarrek lurgintzari indarra emoten asi ziranean (235n. urte inguruan). Egoaldera sartu jakuzan, leku leuna dalako, latiña ta ondamendia.

Gero basatiak sartu ziran erromatarren aginterrira eta gu erromatarrek az ondo konpontzen gintzalako iparraldean frankoak eta egoaldean bisigotak beti izan genduzan arerio ta gudalari.

Dana dala, erdi-arloan euskerea zabaldu egin zan inguruetan.

Euskalkiak eta euskal leiñuak

Gipuzkoa'n ba-dago lurralde bat baskoiena zana (dut) eta beste bat karistioena zana (dot) eta bien erdian dago giputzen euskalkia (det), Bidasoa ta Deba ibaien bitartean. Bidasoa'tik iparraldera geratzen ziran baskoiak, Deba'tik egoalderantz Karistioak eta Nerbioi'tik sartalde-egoaldera autrigoiak.

Ezaugarri txiki batzuk: -ues azkenean dauken toki-izenak (Nabaskues) Akitania'ik etorriak dira eta Jaka-inguruan dagoz, baiña ez Naparroa'n edo iparraldean. Bizkaia'n eta Araba'n toki-izen askok -ika dauke azkenean, eta ez dago olakorik Gipuzkoa'n eta Naparroa'n. Azkenengo -ain. ostera geien Naparro'an dago eta Soule'ra be zabaltzen da.

Toki-izenak agertzen dauskue euskerea noraiño eldu dan, zeatzago sartaldean. Sortaldean Auñamendi osoan aurkitzen doguz eta Corominas katalanak diardu asterketa bat egiten. Egiña izango dala uste dot.

Euskerearen oiñarrian aitatzekoa da gure gudarien kasua: millak izan ziran erromatarren gudarostean gudari euskaldunak eta euren izenak gaurko Alemania'n be agertzen dira.

Eta ez gitxiago salerosleak. Oneik bidai luzeak egiten ebezan euren zeregiña beteteko.

Gudariak naiz salerosleak ekarri ebazan gure artera erromatarren oiturak eta edertia. Ugari dagoz gure inguruan Kristo jaio baiño lenagoko edo Tiberio'ren aldiko illarriak. Arri markatu orreik ipinten ebezan erromatarrek gorpua erre eta autsen gaiñean. Emen be gorpuk erreten ebezan eta erromatarren antzera markatutako illarriak ipiñi gaiñean. Olako asko daukagu.

Olazar'tar Martin'ek

ERROMATARREN BERBAK EUSKERAN

Latiñak euskeran izan eban ikutua aundia izan da eta emen, lenengo itz-oso-tzean eta gero iztegian adibide batzukaz latiñak euskeran euki eban eragiña agertzen aleginduko gara

Itz-osotzean euskereak daukazan atzizki batzuk latiñekoakaz dauken antza gogoratuko dogu.

Sus/tsu: latiñez “gloriosus” esaten da eta euskeraz “aintzatsu”, atzizki bi onek ugari erabilten dira izkuntza bietan eta ba-dauke alkarren antza. “tsu” au latiñetik artu ete dogu?

Arius/ari-edo lari: Latiñez “sagitarium” edo “carpentarium” eta gazteleran aurrera-bidean lenengo “carpentario” biurtu da eta gero “carpintero”, euskeraz be “errementari”edo “txistulari” esaten da eta antzekoak dira atzizkiak.

-ena: euskeraz atzizki ezaguna da eta jabetasuna adierazten dau: “amarena”, “Ajuria-enea” eta latiñak ez dauko olako atzizkirik, baiña gure erdi-ugartean zabal dabil toki-izenetan: Leciñena/de Licinio, Martxena/de Marcio, Aracena/de Araccio, Lucena/de Lucio, Quintana” de Quinto. Erdel errian ain ugari dabillen atzizki ori euskeratik zabaldu ete da ala atzizki bardin bat euki dabe iberook eta euskaldunak?

Erromatarren aurretik aditz gitxi erabilten ei zan euskeran eta erabilten zana be trinkoa: Dantzut eta ez entzuten dot. Erromatarrak egiña ei da aditz laguntzaillea sartze au eta ez euskeran bakarrik, beste izkuntza batzutan be bai Europa-barruan.

Eta aditzaren azkeneko-tu be latiñetik etorria ei da: amatus/maitatu.

Baiña goazen iztegiara eta erlejiño-arloko itzetatik asiko gara. Erlejiñoa andik etorri dalako eta eleizan latiña oraintsura arte erabili dalako, itz asko daukaguz latiñetik artuak:

Aingeru: latiñetik edo grekotik etorria izan leiteke eta gero Sabin Arana'k asmau eban gotson edo gogo uts on izena, ese'rekin idatzi bear litzake.

Serore: latiñeko soror itzetik artua da eta izen ori eroian gure baseleizak zainzen ebazan lekaime edo emakumeak. Ortik Fika'ko Sebotze edo serore-etxe eta Derio'ko seretxe plaza.

Pekatu, legea, parkatu, bakea jakintsuen latiñetik artuak dira, oneik latiñez pakem esaten eben. Antzera birjiña, diabru, eta beste berba asko

San Lorentzo'ren izenak aldakuntza asko dauz euskeraz: Santillenti, Sallebante... eta frantziarren ikutua agiri da or: “saint Lorente”.

Geroago eta erromantzetik etorritako itzak be ba-daukaguz: Kausa/gauza ez cosa, zeru eta ez kelu, erregu eta ez errogu, onek ruego'ren ikutua dauka. Leku eta ez loku, onek be gurera etorri aurretik lueko euki dau.

Baserri-arloan be itz asko daukaguz, solo latiñeko solu da, areak lanabesa euskaldunak erromatarrak etorri baiño lenago ei euken, baiña emen laia erabilten zan eta makiñea etorri zanean laieria edo goldea esaten jakon.

Landaren izenak be asko artu doguz erromatik: Pagua/fagum, gaztanea, kerizea, kipulea, soloa/solum, artoa(au grekoan dago eta ogia esan nai dau). Babea/faba, gorua/collum euna egiteko, gela/cella, Meza/misa, catena/katea, campana/kanpaea... okela/buccella.

Begiratu daiguzan "ll" dun itzak, asko, guztiak uste dot, latiñetik etorriak dirala, baiña Naparroa edo Aragoi'ko erromantzea bidea dala: pullus/oillo, maleus/maillo, malea/mailla, espekulum/espillu, akukulun/akullu, tegu-latun/teillatu, tegula/teilla, kollara, cocleare (concha), torculare/dollara.

Izkuntza osoan, euskereak gazteleran izan dauan ikutu aundi bat bost bokal edo abots bakarti garbiak eukitea da, Europa osoan ori ez dauko gaztelereak baiño eta euskerearen ikutua da. Izan be gastelerea Burgos'ko iparraldean sortu zan eta an euskera be egiten zan.

Ba-daukagu ba non billatu euskaldunok geure euskerearen edestia ikasteko.

Olazar'tar Martin'ek.

EUSKALDUNAK ETA INGURUKO ERRIAK

“IRI” ITZA ETA GOTOR-LEKUAK

Gai oneri buruzko arazoak

“**Aranzadi**” elkartearen MUNIBE aldizkariaren 54 Zenbakian, 125-139 orrialdetan, 2002 urtekoan, lan au dakar: “Le toponimie “iri” eta relation avec l’anciens lieux fortifiés”.

Lan orren egillea auxe da:

JAKES CASAUBON. Représenté de l’Institut National de la Recherche Agronomique, Bere elbidea: Bordatxoa 51, avenue de Tamames 64200 Biarritz.

Bere lanaren laburpenak, euskeraz, onala dio:

“IRI itzak etxe eraikuntza multso haundi edo aski haundi baten adierazpana dauka. Alderantziz, toponimoek erakusten dauzkigute adierazpen oso desberdiñeko lekuak, Adibidez bistanle haundiko erriez bestalde, herri txikiagokoak, herri xumeak, auzotegiak, baserri bakar baztertuak eta bizitegi gabeko mendi lekuak.

IRI protohistoria garaiko mintzaira batek sortutako hitza izanik, garbi dago garai hortan beste zerbait adierazpen zeukala.

Ikerketa hunek azaltzen du badaudela IRI izeneko hunek azaltzen du badaudela IRI izeneko toponimoak lotura zerbait daukatena, dirudiz, protohistoria, erromano eta goi-erdi-aroko lekuekin”.

Recherche Agronomique’koa izanik, Euskal bazterrak ondo ikusi ditu gure egilleak, eta, ori dala-ta, bildu ditu lan onen zeaztasun guztiak. Berak dionez zazpi probintzietakoak dira; andik kanpora dauden IRI itzeko berbak gogoan artu gabe.

IRI itzak-dio-aldaketa batzuek baditu. Ona prinzipalenak: HIRI, IRU, URI eta geiao Gai onetan gure egilleak A. LUCHAIRE’ren lan au aitaten du: “Du mot basque IRI et de son emploi dans la composition du nome de l’Espagne et de l’Aquitanie. 1875. Pau, La Ribaut”.

Laburpenean esan digunez IRI itzak era askotako lekuak esan lezazke: Erri aundiak eta txikiak; baita urrutiko etxeak eta etxegabeko lekuak ere. Berba batek ainbeste gauza desbendin adierazten ba’ditu, lojika gabeko itza dirudi, ala izan ez arren.

Lingüestika aldetik dio ez degu fundamentuzko joerarik billatzen eta alan izanik, obe degu, itz ori nun dagoen ikusi eta toki aietara jo. Eta orixe egiten du egilleak eta andik argia atera. Bere asmoa onelakoa da: Toponimista Historiagille eta arkeologoei aitzera eman zenbat alditan eta zein ugari agertzen dan IRI itza au, eta bere senitartekoeak, mendi-tontorreko gotor-leku eta gaztelu zaarretan.

Tokien tokiko IRI gotor-lekuak.

Irigibeleta:

Ursuia'ko esparru gotor-lekua (678 metrora) Hasparren'en. Iparraldeko zatia IRIBELETA izenekin ezagutzen dute, IRIaren atzeko-aldea baliz bezela.

Hirigibel:

Beste izen berdin bat Cambo les Bains, Hasparren'go L.G.B. kartan.

Hiriberri:

Hasparren'go bertako mendian, mendebal aldera, 1'7 kilometrota (360 metro) dago iturri bat izen orrekin eta an bertan aurkitu zuten beste esparru bat, HIRIBERRI.

Idiondo (Idi, Iriren aldaketa):

Gotor esparru bat mallatan Mehatze'n (B.N.); sorkaldearen izena da IDIONDO.

Elina:

(I aldatu da E artuz. Luchaire jaunak dionez, ori sarritan gertatzen da izenen asieran. Michelena'k berriz, dio IRI eta ILI artean, ILI dala zaarrago). Gotor-esparrua mallatan. Armendarits'en (B.N.)

Gaztelairia:

Gaztelari, Gaztelaria, Gaztelaia iru izen iru gotorlekuentzako. Egilleak dionez GASTELA-IRIA da benetako izena. (Ikus MUNIBE, 54,127 orrialdean).

Ulumendi-Gazeluzaharre:

Zuberoa'n Ulumendi Ilimendi da, zubertarrek U, I bezala aoskatzen dutelako. Gotor-asparru bat da parapetoz. Beste aldetik, berriz, gororatu zer aldaketa dauden izenetan: IRI, IRU, URI... ILI, ILU, UII...

Inchur, Iruchur:

Esparru gotor-lekua (castro) Tolosa-Albistur'en (Guipúzcoa). Lan onen egi-leak D. José Miguel Barandiaran'en itzak aitatzen ditu era onetara: "Inchur (Intxur según la grafía vasca) es una montaña que se erige en el centro de Guipúzcoa. En boca de muchos habitantes del contorno suena a Intxurre y en viejos papeles consultados por Don Sebastián de Inchausti es IRUNchur..." Ona emen beste IRUN bat geiago.

Ilunzar edo Irunzar:

Navarniz'en (Bizkaia) an dago Gastiburu gotor-lekua. Mendi-ganari Ormae-tea Fernando'k ILUNZAR deitzen dio, egilleak dionez... Kastrea da.

Iruburieta:

Urkulu'ren oiñetan dago. Urkulu bera erromatarren trofeo utsa, ala gotor-lekua? IRI Urkulu berari dagokio edo bestela Urkulu defenditzeko gotor-lekua-ri... BURIETA zer ote da? Bear ba'da, inguruan dauden (Organbide, Arnotegi eta Sololuze) iru gañei asmatua da. Soroluze, Orbaizeta aldera dago Irati balla-ran, MAIRU-ETXE txabolaren inguruan.

Irubelaskoa:

Gain piramidal bat dala dio egilleak (950 mt.). Lau alde ditu gaiñ orrek eta lau alde oietan bizi izan da erri artzai bat 30 txaboletan. IRUBELASKOA "gaiñ bedartsua" bezala artzea... Nik an ez det soro-bedarrik inñun ikusi; baña, bai gotor-lekuen arrastoak eta aldapa aietan, lur-maillak eta ez berezkoak... lfar eta sarkaldeak gotor-lekuak ematen dute eta aien izenak auek dira: KASTILLA edo KASTILLOA; baña, Arveilles erriko baserritarrek Gaztelia deitzen diote.

Erromatarren jokaera gotor-leku zarrei buruz eta izen zaarren irautea.

Erromatarren garaian ere leengo izen zaarrek irauten zuten erriaren agoetan. Aurrekoen gotor-lekuak erabiltzen zituzten eurori konbeni zitzaienean bakar-bakarrik. Beste guztiak apurtu. Ballaretatik zetozen eta ballaretan egiten zituzten euren egoitzak eta ez mendi-gallurretako gotor-lekuetan. Erabiltzen ez zituztenak, suntzitu.

Era orretara jokatu zuten zenbait gotor-lekuekin -dio egilleak- esate baterako auekin: Legun-Etxa-uri, Lecu-iru, Urri-lb-iri-cu, Lega(i)iria (Navarra); Veleia-lruña, Laguardia, Berasteri (Alava)... Oiek danetatik iru auek gorde eta gotor-leku bezala indartu dituzte: Legarria, Echauri eta Iruña. Estrategia aldetik garrantzia zutenak, zaindu: IRUÑA (Pompelo), IRUÑA (Veleia), IRUÑA (Ocasso)...

Eurak eraikitzen zituzten egoitzak "citates eta villae" ziran, uriak eta erribillak. Era orretara IRI erabilliko dute erri-bilduekin (villa). Baña, Villa ori bizidunen tokiari ala gotor-lekuari dagokio...? Dana dala -dio egilleak- Villa oiek bere inguruan arri-esia bear izaten zuten, gotor-lekuak.

Erdi-aroan IRI izenak dirau

"Villa" izenako erriari IRI esan ziotenak erromatarrek izan ziran. Gerora, Erdi-aroan Erregeek "villa"k eraikitzeke oitura artu zuten "con la obligacion de asegurar la proteccion y seguridad de sus habitantes..." gotor-esien bidez. Ortik etorri lezaioke IRI itzari bere esan nai bikoitza: alde batetik, Villa bizi-leku eta bestetik, gotor-esparru.

IRI orren asierako esan naia dirau oraindik zenbait Erdin-aroko toki eta etxee-tan... gotor-leku zaarren inguruetan eraikiak

Iribarnea:

Irisarri errian (B.N.). Gaztelu Zaharre mendian eta mallatan dan gotor-esparruarekin du zerikusia. Irisarri'ren ipar-aldetik sorkaldera dago Iribarne baserria eta Gaztelu zaharraren iparaldean kokatzen da goiko gallurretik 150 metrora... Bide zaaren astarnak daude eta gotor-lekuaren mallak dirudite. IRIBARNE izenak au adieraziko luke: esparruaren beko maillan dagoela.

Irigarai:

Suhescun'go baserria (B.N.) An dago HARRIBELTZA izeneko gotor-esparrua (622 mt. gora). Esparru orren sartaldetik, 380 mt. gora dago IRIGARI etxea. An ez dago inñungo arririk, ez beltzik eta ez zuririk; esparrua, baizik.

Irulegia:

Etxea da Buztintze'n (B.N.). 379 kotaren puntan dago Gaztelu-gaiñe, gotor-esparrua maillatan. Beeko maillaren inguruan (550 mtr.) an kokatzen da IRULEGIA etxea ("bordure de l'IRU"= IRUaren ertza), Gaztelu-gaiña'ren inguruan.

l(h)apizta.

Gotor-esparrua Orzainzeko Ahaiza'en (B.N.). 1'2 kilometrora bi meendi-gain gotor-leku daude Ahaize auzoaren gainean. Gain orreri Zubero'n IHAPIZTA edo AHAPIZTIA deitzen omen diote. Orrela IHA Zuberoa'n Lapurdi'ko IRI izanog litzake. Era orretara Lapurdi'ko IRIBARNE Zuberoa'n IABARNE da: IRIGOIEN, IAGONIA, IRIGARAI, IAGAL...

Beste berri au ere ematen du emen egilleak: J.B. ORBUZTAN jaunak Erdia-roko etxeei buruzko lan batean, 9 etxe billatzen ditu IRI ezenekin eta ez ETXE.

Bederatziak daude gotor-lekuen inguruan.

Erdi-aroko gotor-lekuak:

Iruleia:

Donibane-Garazi'ko (B.N.) basetxea, 319 metrora dagoen gotor-lekura daraman bidean.

Ango lanak eta aldaparen zertzaladak direla bide, zeatz-meatz ezin ean liteke zer garaikoak diran gotor-lekuaren aztarnak; baña, IRULEIA, IRULEGIA'ren aldaketa da, IRU itzarekin zer-ikusia duena.

Urizarra:

Santxo Indartsua'k 1222'an eraikitako erria Araba'n. Baña. Erderaz ez dute VILLA VIEJA esaten PEÑA CERRADA, baizik. Beraz, URI itzak ez du erri batekin zerikusirik, arkaitez-esparru batekin, baizik.

Idiandoa (Iriondoa):

Aintze Monjolouse'ko basetxea da, Baztidi auzoan (B.N.). Muño borobil baten oiñetan dago: gaiña zaaña eta obi-zulo bat, fosa bat, inguruan. Izenak, IDlondoa, gaiñeko IRIrekin ba du zer ikusirik.

Iriberria:

Jauregia (1613) Anitze-Altzieta erriko Bazkuzana auzoan dago (B.N.), gotor-leku zaar baten ondoan.

Idionea:

Basetxea Ahatsai'ren (B.N.), gotor-leku baten ondoan. IDI=IRI

Irulegi:

Erria (B.N.) Badirudi erriak izen ori artu zuela ango tontor batetik. Gain artan daude kapilla bat eta zimiterioa. IRUN, IRUNberri'en antza badu. Tontor orretan feudal garaiko eraiketa zegoen.

Aro-erdi-zaarreko gazteluak IRI izenakin

Irulegi:

Gaztelua, Betelu'ko Arrain ballaran (N.).

Irulegi:

Gaztelua Lakindain'en, Aranguren eta Izagaondoa'ren arteko ballaran.

Irurita:

Gaztelua, erria eta eleiza Burunda'n (N.). Bear ba'da Etxarri'Aranaz'en inguruan; baña, iñork ez daki zeatz-meatz bere tokia eta lekua.

Iri-iaun (Iriaun):

Erdi-aroko gazteluaren arrastoak Bergara'tik Elosua'rako bidean (G.). Tontor batean dago eta tontorrak Gaztelu du izen... "Por lo que da la idea el terreno responde al tipo de fuerte de Aitzorrotz, Auza-Gazelu y otros". (Luis Peña Santiago)

IRI izeneko torreak:

Irunberri:

Erdi-aro-zaarreko torrea Donazaarre'n (B.N.) Laukia eta bere atarian beste bi torre txikiagoak duela, Lauribar ballara mendean duela.

Irunea:

Laukiko torrea Mendiondo-Lekorne'n (B.N.). Mailletan dagoen gain batean.

Irisarri:

Jauregia Yanci'n (N), gotor-leku-zaar baten gañean.

AMAITZEKO

Enkesta onek auxen da erakusten diguna: IRI izena beti agertzen dala Prothistoria, Erromatar garaia eta Erdi-aro zaarrean zear, gotor-leku eta bizidunen egoitzekin lotuta.

JAKES CASAUBON jaunak amaiera ematen dio bere 15 orialdeko lanari eta guk lapurpen bat eskeñi diziegu. Luzeago nai duenak jo dezala NUNIBE 54n. 2002 aldizkarira. IRI itzak bikoitasuna agertzen du bere ibelleran; baña, Indoeuropeoek izan ziran gure artean ledabiziko gotor-esparruak, mendi tontorretan, egin zituztenak, esparru oien barruan euron egoitzak egiñez. Ekintza onek izan zuen bere eragiña Euskal historian zear. Ager dezagun nola.

EUSKALDUNAK HISTORI-AURREAN ZEAR.

1. Euskaldun aurrekoak eiztari: 15.000 urte.

2. Euskaldun eiztaria, artzai: 6.000 urte.

3. Indoeuropeotarrak Euskalerrian: 3.200 urte.


4. Indoeuropeoen azkena eta Erromatarrak: 2.000 urte.

ANTXIÑAKO EUSKALERRIA TA INGURUKO ERRIAK

1. Euskaldun aurrekoak eiztari: 15.000 urte.

Euskaldunok Cro-Magnon askaziagandik sortuak gera Pirenee mendietan. Madalen garaian (15.000 urte) kultura arek agerpen miragarriak erakutsi zitun eta tximista baten antzera argitu zuen Europa sartaldeko ontzi guztia... Marrazki, margo, xixilikatuz edertuak dituguz 100 leize baño geiago geure mendietan.

Gizona eiztaria zan eta okela jateko, mendira jo bear eizara. Irten aurretik koba oien irudien aurrean egiten zitun bere aztikeriak, irudi oiek menperatzeko, lrudia menperatuta, animalia ere menpean artuta zegoen; adurra bait dago irudi eta bere gauzaren artean eta adur orrek igiten du menperatze lana. Aztia da adur ori sortzeko aalmena duen gizona bakarra.



CRO-MAGNON

RUFFIGNAC

RENOA



MAMUT ILLEDUNA



ALTXERRI

2. Euskaldun eiztaria, artzai: 6.000 urte.

Millaka urten-buruan, gure aurekoek, eizatik bizi ziran eta eiza ori arrapatze-ko egiten zituzten euren aztikeriak leizeetan. Eiza era askotakoa zan; alde bate-
tik, aukiak mamuta eta elefantearen antzekoak. Eta txikiagoak: rinozerontea,
leoia, renoa, artza eta bestelako ainbat geiago.

Oso ausarta izan bear zan, oieri aupegia emateko; baña, bein aztikeriak egin-
da gero animalia euron eskuetan zegoan.

Urteak igaro ziran etaengabean eta eiztariak animali eziketari ekin zioten...
Neolítico edo Arri Berriaren Arora eldu gera. Alde batetik mendiko animaliak ezi
eta kortara ekarri; beste aldetik, lurra ezi eta emaitzak bere garaian ematera
beartu, nekazaritza sortuaz; irugarrenez, buztiña ezi eta zeramika sortu. Orra iru
iraultza eta Neolotikoaren iru agerpen. Arriari buruzko agerpena, arria leundu-
zetk dator: Arri berria (Neo litos) leunagoa da.


Neolotikoaren iraultza asko datoz batera eta gureraño eldu ziran eta aurreko
aztikeriek ez zuten ezertarako balio. Alaz ere ez degu aztikeria era bat aaztu.
Baña, janbide berriak beste bide batetik datoz: artzaintza eta nekazaritzatik.
Orretarako, aztikeriak ez du balio. Eguzkiaren ekiñaldia eta euriaren eraso
obeak dira lurrarentzako... Eta, lurretik sotzen dira gizakume ta animalien janbi-
deak. Zeru urdiña eta eguzki-illargia bertan; euriak eta trumoiak; iturri eta erre-
kak... Arbolak eta basoak... Mundu berri bat sotu da.




AIZKORA LEUNDUAK



AIZKORA



EGOITZAK



ARTZAI-TXAKURRA

Egoitzak

Asiera-asieratik koba-zuloak ziran egoitzarik onenak; neguan bero eta udaran otz, gañera ura bera ere bertan izaten zuten geienetan. Andik kanpora, aitzaterpenak; bestela, zumez eta egurrez egiñiko txabolak, artzaiak beti bizi diran antzera.

Txabolen arrastoak galdu dira, berez ustelkorrak diralako.

Gerora, historian, etorriko dira ormaetxeak eta tellaetxeak.

Aurreko egoitzak tellaren ordeztu, lur zotalak zituzten eta arriaren ordeztu buztina, tarteetan zumea edo egurra zutela.

Siniskeriak

Anboto'ko Mari izan da aztikeri guztien kopurua eta sorgin guztien erregina. Zazpi kobetan bizi da eta leizeen atakan emakume eder baten itxuran agertzen da; baña, auntzen edo txorien oiñak izatenditu. Leize barruan, animali itxura artzen du.

Koba batetik bestera dijoanean, andere, itai-illargi, arbola edo zalburdia izango da, beti suz inguratutik.

Bere benetako erregetza lurpeko eremuetan agertzen du; an ditu bere menpean Euskalerrri'ko azti, sorgin eta jainko-txiki guztiak. Sariak eta zigorrak berak zabaltzen ditu. Mandamentuak baditu eta bi seme ere bai: Atarrabi eta Mike-lantz; bat ona, bestea gaiztoa.

Berak darion aztikeri usaiñ ori Paleolitico garaikoa du, eiztarien garaikoa. Gañeko guztiak, Neolitico garaikoak: eiztaria artzai biurtu zanekoa. Badirudi munduko indar guztiak bere mende dituela: eguzkia eta illargia, euria eta tximistak, txingorra eta arria, giro ederrak eta txarrak...

Marrazkidun leizeak astuta zeuden. Ez zekiten izan zirenik ere; baña, sorginkeriz betetako tokiak gertatu ziran, naiz-eta an barruko denbora bateko aztikerien arrastorik izan ez. Aiek, ordea, irauten dute, Neolitikoeekin naaspilla edera osatzen dutela.





OREIÑA





MARRAZKI BERRIAK



KANPAI-ANTZEKO ZERAMIKA



ARPOIA

Iladakoak: Leize eta Trikuarriak

Orain bezela, aurrerago ere, leizeak erabiltzen zituzten, ildakoak eortzeko; baña, Neolitikoa aurrera doala, artzaiek trikuarriak jasotzen asi ziran illarri. Kobeerei buruz 1982an egindako bilketa batetik auxe agertzen da: Gipuzkoa'n 57 koba zeuden gorpuak eortzeko; Bizkaia'n 51 eta Araba'n 56. Danetara 163 leize-zulo, arrezkero aurkitu diranak zenbatu gabe.

Koba-bazte batean jartzen zituzten ildakoak, auts apur bat gañean eta bes-berik gabe. Beste era bat izaten zan, gorpuzki biguñak erre eta ondoren ezurrak eotzi. Irugarrena Indoerupeoak ekarri zuten gurera, gorputza zearo erre, auts biurtu arte eta errauts oiek eotzi tumulo edo cromlech baten erdian.


Leize geienak kosta-aldean daude eta goiko mendietan txikuarriak. Aberatsak (abere dunak) goietan bizi ziran artaldeek jana topatzen zuten tokietan eta an bertan eortzen ildakoak.

Aberants ez ziranak-edo, kosta-aldeak eskeintzen zizkien aitz-zuloak gorpuentzat.

Aberatsak ez izan arren, ez zitzairen ildakoei bese mundurako laguntzarik paltako: janari, argi, aizkora txikiak... Baña, gauzarik politena Urnieta'ko Mari-zulo leizean gertztu zan: an eotzi zuten artzaia bere txakur zaarra lagun eta iru illbete-ko arkumatxoa... Osorik guztiak eta bera, artzaia, iru ari landuz inguratutik, aupegia eta oñak eguzkiaren sorrerari begira.


Trikuarri edo tregoarriak, artzairen eotz-lekuak, mendi gallurretan daude, gaurko artzaiek artzatzan dirauten tokietan. Mendi oietan aurkitu ditzute geienak. Paraje oietan egin zituzten euron illobiak orain 5.000 urteko artzai euskaldunek: Aralar, Aitzgorri-Urbaşa, Ataun-Burunda, Andia-Urbaşa, Enzia eta abarretan.

ANTZAL-TXAKUR-ARKUME



PUÑALA

**MARIZULO
KOKA**



5 urteko mutikoa



SAGAZTIETA-2



SORGIN-ETXE: Trikuarria



ERRIOXA: Trikuarrietako ontziak



BUZI (Oloron)

Trikuarriak eta Jentillak

Geien erabiltzen dan izena trikuarri edo tregoarri da; badira, ordea, beste izen aukerak ere: Sorgin-etxe, Jentil-etxe, Jentil-arri, Tartalo-etxe... Izen aukerak ipuie-
tik sortu dira. Ipui ugari bait dago trikuarri eta jentillen artean.

Jentil-arri esaten diote trikuarri bateri ipui au dagoelako tartean: Kristautasuna etorri zanean, Jentil guztiak sartu ziran trikuarri artan (Oiartzun'en Mairubaratza)... Bazan orain 80 urte Jentilleneko etxea ere Ataun'en eta Aia'ko auzo-
keei jentillak deitzen zieten. Jentillek eta trikuarriak alkarrekin ibili dira euskaldun buruetan.

ARRI-JOKOAK

Lenago eta Orain



3. Indoerpeoak Euskalerrian: 3.200 urte.

Trikuarriak gutxienez bost arlosa izaten ditu: lau zutik, kaja bat egiñez, eta bestea gañetik txapel modura. Berez ez talita egoten dira arlosa oiek arri xeez eta lurrez tontortxo bat osatzen dutela inguru borobil batean eta metro batzuek zabaleroan. Inguru guztiai Tumulus esan oi zaio.

Tumulus auetan ez da beti trikuarri bat egoten; batzuetan lau arriz egiñiko kajatxo bat (Cista) txapelik gabe eta bere barruan lurrezko ontzi bat errautsekin edo errautsak bakarrik ontzirik gabe. Batzuetan tontortxo (Tumulus) orrek arriak ditu zutik inguru guztian koro baten antzera (Cromlech). Bi koroidunak ere badira. Tarteka arri auen artean beste aundiago bat tente (Menhir).


Oiek danak Europa'ko ifar-aldeetik etorri iran Lapurdik, Benabarre eta Zube-roan sarturik. Danetara: tontortxoak (Tumulus) 176; tortortxo eta arri-koroiak (Cromlech), 61; arrikoroiak, bakarrik 170. Auek ez ziran Ego-aldea sartu Gipuzko eta Naparroa'ko ertzetxo batean, baizik. Lizarran'go ballaran gelditu eta kostatik Donostia'ko Igeldo auzoraiño sartu ziran.

Nork ekarri zitun?

Baziran Europa erdian eta ifar-aldean indoeuropeoen tarteko erri batzuek, brontzea menperatzen ikasitakoak (orrek indar ematen) eta ego-alderuntz irten zuten eguzkiaren bila, Europa guztieean zear.

Guregana ere eldu ziran Pirenee-mendiko sartaldetik, Orreaga (Roncesvalles) zolotik aurrera Iruña'raiño. Andik bi aldetara abiatu ziran: batzuek Ebro-ballara eta besteak, Sakana'tik, Araba'ra.


Or utzi zizkiguten euren egoitzak izandako izenak: Castro, Castrillo, Castillar, Castillete erderaz eta Gaztelu, euskeraz. Esate baterako an daude euren egoitza famatuak izandako El Cstro de las Peñas de Oro (Murgia), El Castro Castillo de Henayo eta El Poblado de la Hoya (Laguardia); auek Araba aldean eta



Castro del Castillo de Henayo. Alava




Castro de las Peñas de Oro. Alava.



AIZKORA-MOLDEA
"EZKURRA"

BRONTZEA






"LARRAGAIN"




“ASTROKI”: URREA

Naparroa'n El Castillar de Mendavia y El Poblado de Cortes... ale batzuek aita-tzeko eta famatuenak. Erri auen egoitzak, gotorlekuak, eunka topa dituzte Naparroa'n bezela Araba'n ere.

El Poblado de la Hoya'k aipamen bat mereci du. Jesús jaio aurretik milla urte baiño geiago bizi izan ziran bertan indoeuropeoek. Tajuzko etxeak eta kaleak, ganadua eta alenekazaritza (garia) ba zuten... Lan-bide asko eta merkataritza ere bai. Poblado auek arri-esiz inguratuak zeuden eta La Hoya'k bazuen dorre bat bere sarreran... Egoitzak Mendi gallurretan zeudenez, izango zuen La Hoya'k bere gaztelua Laguardia'n.



MIKELDI
URDE - ZEZEN
Verraco de Lumbrales



Toros y verracos de Avila y Segovia **GAZTELUTAKOAK**


Brontze Aroa

Urraia (cobre) eta zirraia (estaño) alkartuta sortzen da Brontzea. Brontzea urraia baño gogorragoa da eta armak obeak. Tumuluerrriak, Indoeuropeotarrak, ikasi zuen brontzea lantzen eta arma ederrak lortzen. Goiko Europa'tik egoalderutnz asi ziranean, mendi gallurrak aukeratu zituzten beuron egoitzarako, itunen bidez ala ezpataren bidez... Ola-gintza bazuen erri xeeari brontzea zabalatzeko aiña... Metal-bitxiak egiten iaioak...

Europa'ko beste cultura guztiak ondatu zituzten, baita mintzairak ere. Eraso orreri eutsi zion izkera bakarra euskera izan zan eta gure artean bizirik dirau eurena galduta gero.

TIPOLOGIA EMPLAZAMIENTOS DE POBLADOS

(Armando Llanos, Kobiz, 1975)



EUROPATARREN GAZTELU-TOKI

Burni-Aroa

Europa'n bertan, indoeuropeo kastako La Tene erria nadik zabaldu zan berriro 700 urte beranduago. Auek izan ziran benetako olagizonak, burnia lantzen maixuak. Era guztiko lanabesak, goldea era bai, eta armak egiten zituzten. Tumulu-erriaren aidekoak... Giro-otzak bota zitun, auek ere, egoalderuntz.

Euren aurrekoen antzera eldu ziran Euskalerrri'ra. Aiek egin ez zutena, egin zuten auek, Gipuzkoa eta Bizkaia'n sartu eta Euskal-biotzaren mendi-tontorretan euren eoitzak jaso, arri-esi galantez ondo babestuak. Arazo onetan aurrekoek baño gotor-esparu indartsuagoak egiten saiatu ziran. Aiek brontzez eta auek burniz: burnia gogorrago. Burniak eman zien nagusitasuna.

Ez genduen uste giputx eta bizkai lurretan sartu zirenik; baña, 1956an an agertu zigun J.M. Baranduanan'ek Intxur, Tolosa gañean. Asiera besterik ez zan izan.

Berago or azaldu dira Buruntza'ko gotor-lekua Andoain'en, Muru-mendi Beazain'en, Muru-gain Aretxabaleta inguruan Deba ibaiaren ballaran eta Muru Elgoibar'en. Bizkaia'n berdin gertatu da: an daude Marueleza eta Gastiburu euren illerria Nabarniz'en. Aurrez-aurre, sei kilometro zuzenean, Gernika'ko ibaitik beste aldera, an agertu da Luno'ko egoitza eta aurrerago, Mungia-aldean, Berreaga gotor-lelua... Muru eta gaztelu izenak badira geiago gure artean eta agertuko dira...

Bizkai'tik Kantabria'ra pasa ziran eta kastroak daude Santandera alderaiño eta andik, ezkerrera, zuzenean Reinosa'ra eta ortik, Kastilla'ra. Emen egon dira 1.200 urte Araba eta Nafarroa'n eta 500 Gipuz eta Bizkaia'n, gu menperatzen. Garia eta ganadua bazuten; olagizonak ziran, urrez eta brontzez egiten zituzten euren bitxiak, eta eurongandik ikasi genduzen olagintzarako bideak. Reinosa aldean bada Olea izeneko ballara bat. Olea, ola bat da ala T bat falta zaio Oleta izateko? Gure artean ere badaude Oleta oiek... "Ola" itza beurok utzitakoa ote degu "Iri"en antzera?.




Cromlech (Euskalerra) (Altuna)



Mendi "Adarra"




LA HOYA-



ETXE-BARRUAK

LA PROVINCIA DE SANTANDER.



Siniskeria Berriak


Erri berri au artzai eta nekazari, olagizon ez-ezik, animista zan gure antzera; baña, siniskeri berriak ekarri zitun Euskalerrria'ra. or zituzten jainko-txikien kopuru bizia eta jaun bat beste guzieren gañetik: Zeru Urdiña, Urtzia... Osotu zituzten geure siniskeri zaarrak berriak ekarriz. Oien artean Laiburua, eguzkiaren ikurrin.

Eta, Mari nun sartzen degu?


Berari eustea izan da beti geure aurrekoen oitura: naiz-eta berriak onartu, zaarrei ere eutsi. Kovetako eiztaren aztikeriak galdu ziran eta aaztu euskalduna artzai biurtu ta gero: baña, euren buruetan dirau oraindik, aztikeriz betatako, Mari'en irudia. Bera ere kobean bizi da, eta, atarian emakume eder baten itxura ba'du ere, oiñak ditu animalienak. Bere benetako erreinoa lurpeetako eremuetan dago, bera eta bere menpeko guztiak animali itxuran.

Azken aldiko millaka urteetan iñork ez zekien leizeetan animalien marrazkirik zegoenik ere; baña, eremu oietan Mari erregiña zala, ori bai bazekiten Euskal kristauak ere. Eta auek Jainkoarri Urtzi deitzen ziotela XII eunkian, ori Aymeric Picaud'ek zuen. Urtzi, ortzi, osti, ost... zeru urdiña da; baña, baita zeru orretako, trumoiak ere. Itz orretatik dator Ost-egun, Zeru urkiñaren eguna, bizkaitar Egu-ena egutik datorren bezela. Eta Egu zeru urdiñaren argia da.


IKUR BERRIA



Hacha con esvástica




Hacha doble




Diversos signos del sol

Tanto hacha como esvástica son símbolos de protección.



Signos solares en las cocinas de Laburdi y Benabarra.



Philippe Veyrin. A. de E-F. 1931.



"HORZA". SUKALDEA



J.M. de B. A. de E-F. 1931

Ort eta Ost'tetik datozen Oiñ eta Oz sartzen dira tximistem izenetan: Onezu (tximistaren argi zabala), Oñestarrri edo Tximistarri. Indoeuropeon siniskeria dakar gogora itz orrek; Tximista zerutik botatako arrizko aizkora omen da...

Orretxegaitik aizkorak badu indar tximistaren kontra eta Aitzgorri'ko Zabalaitz artzai-txabolaren atarian, an arrizko aizkora bat zegoen lurperatuta, tximistaren kontrako.

Zeanuri'n eta Orozko'n Odei ei da jainkorik aundiena eta bere esku daude ekaitzak, Indoeuropatar Odin'en antzera, eta berak artu zuen Urtzia'ren lekua, Odei izenakin. Andik kanpora, ordea, Mari'k irauten du ekaitz eta tximista guztien nagusi. Arazo onetan Eguzkiak ere badu zer ikusirik ea bere irudi kardalora josiko dute kortako atean, tximisten kontrako, erramuakin egiñiko gurutze batekin. San Juan suak, lorak, arbolak, urak... guztiak ziran Eguzkiaren ooretan. Neguko Olentzako mokorrek zer esanik ez... Eguzkia eta suak biak ibilili dira alkarrekin... Eta sutegia da etxearen biotza.

Eguzkiarekin batera Illargia dator. Indoeuropeoen artean illargia urez betetako ontzia da... Illezkorra illero il eta berpizten dalako. Illargia, Ura eta Ugaltasuna, irurak alkarrekin dabilta. ugaltasunean emekumearen antzera dabil iller... Argia eta illuna, bizia eta eriotza, illargian ikusten dira lau astero. Itsasoa bera ere or dabil gora eta beera dantzan etenik gabe illargiaren aginduetara. Nekazariak berdin, beti illargiari begira noiz erein eta noiz ebagi... Izenak, berriz, saillean ditu: Illargi, Illetargi, Argizagi, Goikoa... Orra batzuek. Izenaren sustraietan Argia dago, eguzkiarenean Egu dagoen modura. Eguneroko argia, Eguzkia; gaueroko argia Illargia. Ill-argi bi berbaz egiñik dago: argi eta illa: ildako argia, illabete, illun, orra iru gauza batera...

Zeru urdiña, eguzkia eta sua, illargia eta ura, iturriak eta ibaiak lamiñekin, mendiak eta basoak Basajaun eta Basanderekin... Mundu oso bat jainko txikiz eta sorgiñez betea Indoeuropar eta Euskaldunen buruetan alkarrekin bizi izan diranak.

Europa'tik gurera etorritako erri aiek urte askotan iraun zuten gurekin, lagun ala etsai; eta aizkenerako euren siniskeri guztiak geure buruetara pasa onsoren, zearo galgu ziran betirako, erromatarrek geure artean agertu ziranean.

Menhir de Ata



LA HOYA: Egoitza barrutik



4. Indoeuropeoen azkena eta Erromatarren etorrera: 2.000 urte.

Nola galdu ziran ala nora joan ziran, iñork ez daki oraingoz. Goiko gallurrak errezak ziran defenditzen eta an egin zituzten euren gotor-lekuak egoitzarako, arri-eziz ondo inguratutik. Artzi eta nekazari izanik, bazuten garia, bazuten aragia, bazuten urrea eta brontzea eta aizkenik burnia lantzen ere maixu izan ziran... Egoitzak kaleekin batera; lanbide asko eta azkenik merkataritza be bai.

Aiengandik ikasi genduen bai Gipuzkoa'n eta bai Bizkaia'n ola-gizon izaten eta burni-lanak menperatzen... Ipuiek diotenez burniari templea ematen San Martin Txikik arrapatu zien Jentillei eta Jentillak mendi-gallurretan bizi ziran gazteluetan; aberatsak zian urrez; ogi zuria jaten zuten eta garia ere San Martin Txikik arrapatu zien... Burnia lantzen maixuak auek ere Indoeuropeoen antzera.

Beeko ballarako jende kristaua meperatzen bizi ziran. Ataun'en bere aurka ere jaiki ziran eta San Adrian'go zulotik aurrera Araba'ra bota zituzten. Indoeuropeoak ere Araba'tik sartu ziran Gipuzkoa'ra. Kismi deitzen omen zioten Jesus'eri eta ura jaiotzean desagertu omen ziran Jenillak. Orretan ez datoz bat historia eta ipuiñak. Arkeologiak dionez, erromatarrek gurera etortzean, orduan galdu ziran gallarretako atzerritar oiek.

Erromatarrek ballaretatik etorri ziran bide zabalak egiñez eta an egin zituzten beuren erri indartsuak. Goikoetako gotor-leku-egoitzak alperik zeuden eta larrak jan zituen. Oraintxen ari gera egoitza eien zazpi metro lodiko arri-esiak basoetan aurkitzen... Jentillen antza ematen dun Europa'ko Erri ori, eunka urte Kristautasuna Euskalerrira eldu baño lenago, galdu zan gure artean.

Arkeolojiak ez digu esaten zer egin zuten gallur aietako biztanleak; desagertu egin zirala, baizik. Orra guztia. Nora joan ziran? Gure erriarekin naastu ziran? Bear ba'da, bai. Eta, bear ba'da gure odoletan agertzen dan A zerki ori, eurok utzitakoa izan liteke, Europa ifar-aldeko ezaugarri bat bait da A zerkia.

Aiek galdu ziran, baña, euren siniskeriak gurekin gelditu zian lauburua beza-la, sanjuán suak. Euskalerrin ez dago baztarrik, ezta Europa guzian ere, sanjuán surik egingo ez duenik. Ituren'go Yoaleak gureak ez diranik, ukatu ezin; ala ere 1963garren urtean, Davos erriko apaiz batek esaten zidanez, bere erriko aldamen batean, udaberria eltzean, orrelako Yoaleak bazirala. Eta, ez da denbora asko komunika-bideek emean digutela, Yugoelabia'ko errixka batean oien antzeko zerbait badala, ardi-narru eta yoale galantak gañean dituztela.

Gure artean urtu ziran, euren buruko siniskeriak geuren buruetan lagata gero.

Erri-sikoloji lege batek dionez, siniskeri edo ipuin baten Norkia aaztutzen zai-gunean eta ura baño aundiagoko bat agetu, orduan lenengo Norkiaren ipuin eta siniskeriak Norkia berriari eransten zaizkio... Orrela Basajaunaren gauza batzuek Jentillanak dira; gero, Sanson'enak eta bada Arralar'en ari aundi bat Roldan'ek botatakoa...



Eguzkiari egiten zitzaizkion suak, gerora San Juan'eri. ori da Erri-sikolojiaren legea. Euskaldunen artean jentillanak diran ainbeste ipui, euskera galdutako errietan, Moroek izaten dira... Jentillen (Indoeuropeoen) egoitza asko gure artean ere Moroek izaten dira: Gentil-baratza Ataun'en eta Mairu-baratza Oiartzun'en...

Gentil-arri Aralar'en, Sorgin-etxe Araba'n eta beste Mairu-etxea Iruburieta'n (B.N.).

Dana dal, suak irauten du, ipuiak irauten dute eta Euskera'k eta Kristautasun'ak, euren tolesteetan, ainbat antxiñako siniskeri. Don Jose Miel Barandiaran Ataun'dik, bere erritik, asi zan bere etnoloji bilduma jasotzen, eta Ataun erri kristau eta euskalduna zan...

Bere asieran euskalduna eiztaria zan; gerora, artzai, europeoarrak ere bai etorri ziranean gu menperatzera: siniskeri eta bearkizunak, antzeko. Baña, ondoren etorri ziran erromatarren bide berriek galdu zituzten castro, castillar, castillo eta Jentillen gatzelu guztiak. Ez zitun kristautasunak galdu Jentil eta Europeoak, aurretik etorritako erromatarrek, baizik.


NOLA SORTZEN DAN




EGUZKIARI



Fiestas de San Juan en Donostia. Arbol de San Juan y Danza.




SUAK ETA DANTZAK




EZPELETA. Cocina de la casa "DOMINGORENA"

S
U
K
A
L
D
E
A
K



CAMBO. "I HOLDI" Etxea



Laburpena

1. Euskalerrian IRI eta gotor-lekuak Indoeuropeoenak izan ziran.
2. Indoeuropeoak eta euren gotor-lekuak, Erromatarrek galdu zituzten.
3. Erromatarrek galduta, Kristautasuna agertu zan.

4. Ondoren, Moroak etorri ziran EuskalERRI'ren ertzetara.

5. "Memoria Historikoa" galdu zanean, sinsikeri eta ipuiñak gelditu ziran gure buruetan, aurreko historiarekin zerikusirik badutenak bañan, ez zeatz-meatz.


6. Etnologia ez da historia, naiz-eta historiak sortu-arazi.

Etnologi aldetik IRI eta gotor-lekuak JentillenaK izan ziran; eta, Jentill itza Kristautasunarekin batera dator gurera... Ori gertatu zan Indoeuropeoak galdu eta 500 urte beranduago, gutxienez.

Siniskeri eta epuin asko Europeotarren ekintzetatik sortu ziran gure artean; baña, auen ezaupidea galduta gero, Jentillengana pasa ziran... Auen ipuiñetan, Kristautasunak galdu zitun; ordurako, ordea, aspaldian galduta zeuden Indoeuropeo-Jentillak.

Eromatarren ekintza miragarri batzuek (zubiak, esate baterako), lamin eta sorgiñei pasa zieten, erromatarren gomuta galduta gero. Jentillen zenbait indar, Sansón kristauari eta Roldan famatuari eta orduko Moroiei... Euskerarik gabeko errietan Jentillen zenbait ipuiñ, Moroienak dira. Auen gomuta ez degu zearo galdu, oraindik.

Orra nola Moltso edo Erri-sikologiaren legeak betetzen diran gure siniskeri eta ipuiñetan.



GAZTELU

**Deba'n maiatzak 15. urtea
2003.
Anes Arrinda**

MARGOLARITZA

1.- EDERTIAREN BARRUAN

Edertiaren edestia idatzi dogu, naikoa labur, baiña gaia zabalegia izan dalako gauza asko eta asko ezin agertu izan dira.

Orain asten dogun lan onetan margolarien edo pintoreen edestia agertuko dogu.

Margo izen au kolorea adierazteko oraintsu sartu da Euskalerrira, Azkue'ren iztegia ikusten dan lez, baiña bearrezko itza da eta izan daitela ondo etorria.

Zer da ba, margolaritza?

Irudiak egiteko bidea da baiña ez arrian, beste era batera baiño.

Margo-lanak egiteko ura margotu lei eta ur margotuagaz ola edo ormea eta orreri esango dautsagu akuarela eta ur-margo-lana.

Edo orioa margotu lei, eta orreri esango dautsagu oleo-margoa

Edo orma baten gaiñean estukoa edo zerbait biguna zabaltzen ba'dogu eta ori margotu, orreri umel-margoa esango dautsagu, erderazko "fresko".

Edo buztin-lana margoz apaintzen ba'dogu orreri apaingarria edo dekoratibo esango dautsagu.

Baiña buztin-zati txikiak artu eta bakoitxari margo bat ezarri eta zatitxu orreikaz margodun irudia egiten ba'dogu, "opus musivum" edo mosaikoa izango da.

Eta, azkenez, margodun ariak bear dan lez alkartuta euna josten ba'dogu, ori margodun euna edo "tapiz" izango da.

Dana labur agertzeko, margolaritza margoak bide dirala, norberaren trebetasuna agertzeko bidea da.

2.- ARTZULOETAN

Margolarien eder-langintza oso antxiñakoa dogu.

Arrizar edo paleolitiko aldian, gure aurretiko Kromagnon gizona otzaren aurka babesa aurkitzeko kobetan bizi zan gizaldi luzeetan, margolari trebe agertzen da, naiz Santimamiñe'n naiz Altamira'n naiz beste toki askotan.

Gerotxuago, eta ez ain asko, sortaldeko margolaritza sortu zan, au be aizeetan, arzuloetan.

Baiña alde aundia dago margolaritza-era bi onein artean:

Iparraldekoan ez da ia iñoz gizakirik agertzen, erti geldia da, eta sortaldekoan, ostera asko agertzen dira gizakiak eta beti ibiltzen, eizan esaterako. Gaiñera iparraldekoa gauzattia edo realista da eta sortaldekoa eskematikua.

Irudi oneik artzuloko bazterretan, sakonean agertzen dira eta orretarako zioa, magia edo sorginkeria ei zan. Or piztia zauritu ezker, kanpoan errez arrapatuko da, orregaitik arrak baiño ez dira agertzen zaurituta, urritu ez daitezana.

Ez dakigu ziur zelako margoa erabiltzen eben, baiña bai gaurkoak baiño iraukorragoa zala. Arraiñen gorputzeko uragaz-edo, antza.

3.- ARRI BARRI ETA ERRI ZARRAK

Arribarri edo neolitiko aldian ez da agertu margo-lanik, esmalteak eta estuko margotuak zerbait kelten denporetan

Ejipto'n: Ejiptoarrak onak ziran arrizko irudiak egiten baiña margotzen lan gitxi egin eben, apaingarriak baiño ez.

Illobiak dira lurralde ta sasoi aretako ederti-lekuak eta or agertzen dira apain-

garri lez dantzak, lurgintza-lanak, erlejiño-gaiak (illen liburuan esaterako) illaren argazkiak illarri-gaiñean...

Mesopotamia'n: Buztin margotua eta ebagiak eginda agertzen da asko, K. a. VIII gizaldian, esaterako edontziearen gaiñean auntza.

Persia'n: Buztin leiartua baiño ez.

Asia txikia'n: Ititak margo-lanik ez dauke baiña reliebe ederrak asko.

Lur-arte itxaso-inguruan: Inguru onetan erri asko bizi izan dira:

Feniziarrek gauza askotan ziran trebeak, itxas-ontzigintzan, dirua irarten eta, batez idazten, baiña ez dauke ezelako margo-lanik.

Israel erriak irudiak egitea galazota eukan.

Kreta'tarrak eta mizeniko erti-zaleak batez be freskoak edo orma bigunetan margazkiak egiten ebezan ugari eta or agertzen dabezan irudiak landara, pizti eta onein artean izurdeak (delfin) dira, kirolak eta erlejiño-giroko ibilbideak be bai.

Estukoan margo-lanak egiten be onak dira, oletan eta marmoletan edo artzurietan be bai, baiña buztin-lanetan edo zeramikan dira nagusi, batez be landarak eta piztiak agertzen dira.

Akeo'tarrak dira urrengoak, grekoan aurrekoak, eta ez dauke margo-lanik baiña bai buztin-lanak, oneitan maixu dira.

4.- MARGORALI ELENDARRAK

Ez daukagu elendarren aldiko margolaririk, baiña ba-dakigu onak egozana, esaterako Polignoto.

Buztin-lan edo zeramikan lan asko eta onak itzi dauskuez margotuta. Amabost motatako edontzi apainduak daukaguz.

Onein artean eriotz-aurreko erostak, leoiak eta piztitzarrak, Florentzia'ko museoan dagoan Klytias'en eta Ergotimos margolariaren kratera, boluta ederrakaz.

Geroago asi ziran edontzien alboetan buztin bigunean ebagiak egin eta barniz baltza erabilten, geroago zuria eta azkenez gorri-illuna eta or agertzen dabez edesti-olerki edo epopeietako gaiak, esaterako Exekias'ek k. a. 'ko 550n. urtean irudi baltzak margoztu ebazan edontzietan eta gai bat "Ulises eta Aiax jokoan" da.

5.- MARGOLARI GREKOAK

Grekoak ertilan guztietan aurrerengoak dira edesti osoan, orregaitik emoten jake "klasikuak" izena, baiña margolari lez?

Asieran berton esan daigun, margolari askoren izenak dakiguzala, baiña euren lanak galduak dirala. Zergaitik? Bear ba'da beste arrizko irudiak baiño errezago galtzen diralako.

K. a. 'ko V gizaldian Parrasio ta Zeuxis daukaguz, ospetsuak ziran aurreko gauzak margotzen, baiña euren lanik ez daukagu.

Timantes ezaguna da beronen mosaiko lanakaitik (ikusi lenengo ekiñaldian mosaiko zer dan)esaterako "Ifjenia'ren oparia".

K. a. 'ko IV gizaldian Apeles izan zan Alexander Aundiaren etxeko margolaria eta beronena da "Afrodita uguztegitik urteten" eta Alexander'ek Dario'gaz izan eban gudaldia be agertzen dau mosaiko baten.

Gero margolari askoren izenak daukaguz, baiña euren lanak betiko galdu dira. Izan be, arrizko irudiak errezago zaintzen dira oneik baiño, esan dogun lez. Erromatarren artetik margazkiak daukaguz baiña ez egilleen izenak, emen alde-

rantziz da.

Ponpeia ta Erkulano sumendiak lurperatutako errietan margazki asko dagoz, geienak grekoen eskuetatik artuak edo ber-egiañak.

Atenastarren aldiak irudi margotuak daukaguz, atzea baltza eta irudiak eurak gorriak eta Androzides dala egillea diñoe. (K. a. V gizaldikoa). Mitolojia agertzen dau baita eguneroko zeregiñetan dagozenak be.

Eufrantor eta Aison be ospetsuak dira aldi onetan.

Egin daiegun begiradatxu bat, grekoen osteko elendarrak. Alexander Audia-
ren aldia da, 30 urteko zala il zan gizon aundi au. (K. a. 336)

la dana da galdua, baiña mosaikoen bidez ezagutzen dogu euren lana eta oneik freskoak gogoratzen dauskuez, naizta mosaikoak eurak be oso onak izan. Onetan, mosaikoen edesti guztian onena, "Karatulen edo maskaren etxea". Or agertzen da Dionisos jaungoikoa pantera anker baten gaiñean ustrukuluka eta ezelako bildurrik bage.

Aldi onetan margo-lan ederrak dagoz, iñoz ez obarik, ber-jaiotzaren aldira arte.

Erromatar margolariak arrituta aitatzen dabez maixu arein lanak eta izen oneik damoskuez: Tebas'ko Aristides, Eretrea'ko Filoxeno, Bizantzio'ko Temo-
makos, Alexandria'ko Eleno ta Demetrio, Atenas'ko Alexander. Azkenengo onena da ziur "Neskatxak taba-jokoan", artzuri edo marmolean eta margo bakarragaz egiña.

6. - ISLAM'DARREN MARGOLARITZA

Arabiarrak, Maoma'k itxartu ebazenean, jakintza barria sortu eben, gaur arte indar aundia daukana, baiña margolaritzan egin ete eben lanik?

Asiera baten ezetz dirudi, irudiak egitea debekatuta eukelako, Juda'tarren antzera, baiña arlo onetan ere barriak aurkitu ebezan, benetan miragarriak.

XIII gizaldian buztin-lanak apaintzen asi ziran eta trebeak izatera eldu be bai, batez be (guda dala-ta) gaur ospetsu dogun Bagdad urian.

Urrengo eunak (tapizak) eta alfonbrak edo ioñazpikoak egiten trebetu ziran naizta geroko gizaldietan askoz trebeagoak izango diran.

X eta XI gizaldietan asi ziran leiarra margotzen eta sarkaldean ontzat artzen ziran leiar orreik saltzera etortzen ziran.



Islandarrak ormak margotzen zaleak dira (Jodanian'n)

Liturjirako argi-mutilak apaintzen onak ziran.

Baiña margolaritza ez da eurentzat eder-lana iñoiz be, apaingarri bat baiño ez da. Ormak, sabaiak, beiak eta abar apaintzeko era bat da eurentzat persiarrentzat lez.

Beste lan-arlo bat esku-idazkiak apaintzea da, miniatura-lana.



Mosaikoak be egiten dabez (Jodania'n 744 urtean)

egiteko gertatzen dabez olako eun margotsuak, gero jauretxeetan be agertzen dira, eta onenak Anatolia'koak dira. Zelako lanak! Metro lautu baten barruan 80.000 korapillo eukiten dabez, gai lez artulea artuta... Sarritan jeometri-lanak dira (laukiak, ronboak eta sei-zokoak) eta margoak be ez dira errezenak, geinetan urdiña, gorria, zuria ta marroia.

Jateko tresnak eta argi-ontzi edo farolak be apaintzen dabez, batez be Bagdad'eko eskolakoak.

Aurrerapen aundiak egiten dabez liburuak apaintzeko miniatrak egiten eta irudiak oso realistikak dira, esaterako Kallila e Dimna ipuin liburuetan dagozanak. Eta oneik egiteko ereduak kristiñauen artean aurkitu ebezan Siria'n.

XIV gizaldian txiñoen ikutua dauke: irudimena bizi eta margoak biziago.

XV-XVI gizaldietan liburuak apaintzen jarraitzen dabe, onenak Bagdad'en era barri baten.

Aldi onetako lanai dragoiak esaten jake eta ronbo-artean piztiak agertzen dira eta margoak gorria ta urdiña.

XVI-XVII gizaldietan eunak doaz aurrera, edontziak margo apaintzen dabez piztiakaz eta eizaketa ugariakaz. Aurreko gizaldikoak baiño obeak dira.

Mamelukoak esaten jake Ejipto'n jarri ziranai eta emen be argi-mutillak apaintzen, leiar eta esmalteak margotuta, iñoz urrez apaintzen eta tarazea-lana egiten jarraitzen dabe.

Txiña'tarren antza daukan buztin-lana dago ugari.

Emengo eunak izena "damaskoak" dauke eta margotsuak dira: urdiña, gorria, orlegia... eta jeometri-lanak eta landarak agertzen dira.

Turkiarrak be islan'en barruan daukaguz eta buztin-lana ta apaingarriak egiten dabez, landarakaz eta zoi-uridin edo azulejoakaz. Onei be damaskoak esaten jake, oker esanda.

Otomanoak be orrein artean dagoz eta onak dira eun margotuak egiten, lenengo jeometrizar apainduta baiña geroago (XVI) otomanoen eunak ospetsu



Islam'darren beste margo lan polit bat liburuan apaintzeko miniatrak dira (Ali Kallila e Dimna apaintzen dago Siria'n 1200 urtean)

biurtu ziran eta beste lan bat be asko zabaldu zan eun-antzera: oititza egiteko alfonbrak, ederrak eta asko.

Otomanoen liburu-apainketa edo miniatura lana oso ezaguna da, oso biziak dira.

7.- ERROMATARREN MARGOLARITZA

Kristo'ren osteko 79n. urtean Besubio sumendia biztu egin zan eta uri aundi bi itzi ebazan lurpean: Erkulano eta Ponpeia, biak erri kristiñauak, eta orreitan daukaguz erromatarren aldiko margazkiak.

Gaiak: Mitolojia, galduta egozan grekoen margazkien antzekoak. Ortik kanpora daukaguzanak aurreko ormetan jarrita egozanak dira.

Ponpeia'n "Vetti" etxeakoak, ez ain ondo margoztuak, eta "ikuskitzen etxea". Onek zer esan nai dauan ez daki iñork eta etxeo andrearen gelan dago, au antza Dioniso's en abade-emea zan, orregaitik agertzen da or jainko oneri egindako oparia. Gorputzak ondo zeaztuta, jantziak ariñak, gogo-agertze ugariak eta margoa ondo erabillia. "Realismo" tankerakoa da ta ori ez da agertuko geiago ber-jaiotza aldira arte.



"Ikuskitzen uria" Pompeia'n iñork ez daki zer dan.

Mailla orretakoa da "Aldobrandini'ren eztegua" eta Batikano'ko museoan dago. Elendarren aldiko batetik artua da eta orma-umel edo freskua.

Bakaldun-agintaritzan (Inperioa)

Etxeak apaintzeko erabilten da margolaritza, esaterako aurreko orman ipinteko eta aldi onetako ederlanik onenak dira.

Geienak galdu egin dira baiña geratzen diranak argi diñoen nondik nora doan margolaritza.



Ponpeia'ko etxe-aurreetan: Dioniso'eri oparia



Kristiñauen aldia

Katakunbetan illobien aurrean eta arkuan dagoz. Or dagoz ederlanik onenak edo margazkirik ederrenak: Biblia'ko irudiak, baso-oillarrak, usoak, mastia ta matsa, ogiak, krismoiak... Batzuk kristiñau ez diranen irudiak dira eta, antza, kristiñauen artean paganoak be illobirutzen ziran, bear ba'da senideak.

Katakunbetan: Herkules Esperideen baratzean.

Paganoen mitoen artean ikusi Erkules Esperides'ko baratzean. Eta kristiñauen artean Jakob'en ametsa, Jonas eta



Erroma kristiñaua Katakunbetan: Jonas

balea, itxas Gorria, Kristo'ren bizitzako gaiak, esaterako II gizaldian Bateoa, alatzak, artzain ona, au asieran gaste bat da eta gero bizarduna, azken aparria, ez iñoz nekaldi ta kurutzerik, ez eben ontzat artzen kurutzearen irudia, lotsagarri zalako, Maria Jainkoaren Ama (Deipara), Nizea baiño askoz lenago, otoizlariak illen alde erregutzen, martiriak...



Erroma kristiñaua Katakunbetan: Jonas



Erroma Kristiñaua: Ejipto'ko koptoen artean Adan ea Eba

Orma-umelak edo freskuak be ba-dagoz.

313n. urtean kristiñauak legeztetau ziran eta or agertzen da Andra Mari Nagusiko mosaiko ederra, V gizaldikoa.

Ejipto'n be margoztu eben aldi aretan koptoak.

8.- BASATI MARGOLARIAK, KARLOMAGNO, OTON, MOZARABEAK

Erdi-aroaren asiera illunean margo-lana ikustera goaz. Erromatarren aginterri aundia jausi eta onen lurraldea basatiz bete zan aldia.

Italia'n ostrogodoak eta lonbardoak daukaguz eta oneik ez eben margotze-lan aundirik egin. Margo-antzeko gauzak dira Aita Santuaren emoitza dan "Teudolinda'ren ebanjelio-liburua" eta "Zidarrezko oilloa ta zazpi txitak", au be Gregorio Aundia aita santuak Teodolinda'ri emona. Ez dago argi zer esan nai dauan.



Zidarrezko oilloa eta zazpi txitak

Aldi beratan España'n bisigodoak daukaguz eta onein lanik onenak liburuetako apaingarriak edo miniaturak dira. Eleizetako ormetan be agiri dira apaingarriak, esaterako San Juan de Baños'en.

Frankoak izkilluetan egiten dabezan apaingarriak daukaguz, baita kutxa margotuak be.

Ikusten da asierako margolari lan au, miniaturen bidetik doala.

Irlanda'n aldi onetan liburu apaindu asko egin ziran, baiña amabost bat dira zaintzen diranak eta guztiak ogeta amar urteren barruan egiñak, geienetan ebanjelio apainduak, VIII gizaldikoak. Eta erabilten dabezan margoak orlegia, beillegi edo oria eta gorritzkea dira.

Inglaterra'n be egiten dira olako lanak baiña egilleak Irlanda'tik ara joandako lekaideak dira.

Eskandinabia'n zer erakutsi gitxi daukagu eta ez dauke kristiñau-kutsurik, pizti biurriak eta txorien buruakaz agertzen dabez.



Ebanjelio-gainera mailla ga-berik.

Guzti orreik baiño aberatsagoa da Karlomagno'ren aldia.

Giro onetan ardura aundiz apaintzen dira liburuak miniaturakaz eta lekaideen lana da, batez be IX gizaldian eta errege-etxeko oiturak eta kondaira edo leien-dak agertzen dabez.

Zarrenetariko bat "Gonduino'ren ebanjelioa" da: Kristo agiri da bere jarlekuan eta lau zokoetan lau ebanjelarien irudiak. Margoak arruntak dira. Akisgran'go eskola zan ospetsua miniatura-lanean eta onek Bizantzio'n be ikutua egin eban. Lan ederrak eta biziak dira.

IX gizaldian Reims'ko eskolea daukagu eta onen lanak be ederrak dira.

Baiña askoz ohea da Tours'ko eskolea, 846n urte inguruan: iru maillatan agertzen dau Edestia eta kondaira edo leiendea, baiña orri osoa batera Lotario'ren ebanjelioak.

Aldi onetako margolari ospetsuak Berenguer eta Lutardo.

IX gizaldian angloen indarra dator eta tankera barria.

Ormak margotzen be asi dira eta mosaiko onak be egiten dabez ugari, ebanjelio-gaiakaz. Miniaturak be aurrera doaz batez be Konstantza'ko lekide-etxean, frankoai eta lonbar-doai jarraituz.

Oton (I, II, III)'en aldiko liburu apainduak be asko dagoz luburtegitetan, Paris'en, Treveris'en, Munich'en, eta geienak ebanjelio margotuak dira. XI gizaldian galdu zan zaletasun aundi au.

España'n Asturias'eko artea eta mozarabeena daukaguz aldi onetan eta ospetsuak dira San Julian de los Prados'eko mazarraziak.

Orma-umel edo fresko onak dagoz or, baiña margoak galduta eta txarto zainduta.

Valdedios'en be antzeko freskoak dagoz.

VII gizaldiko margo-giroari jarraituz Beato de Liebana'ko lekaideak doguz ospetsuak miniaturak egiten, XI gizaldira arte. Bisigoten eta arabiarren antza dauke eta liburu orreitan gaiak Kontzilioak, Biblia eta batez be apokalipsis liburu dira eta antifonarioak be bai. Miniatura guzti onei Beatoak deritxe.



Ebanjelio gaiñea iru maillatan.



Lotario'ren ebanjelio-gaiñea.

Leon'go biblia Vimara abadeak margotua da. Ez da zeatz-zeatza baiña mistika-indar aundia dauka.

968n. urte inguruan Magius miniatura-zale ospetsua daukagu, guztien artean onena.


Orma-margoak be ba-dagoz baiña mozarabeen artean ez askorik. San Quirze'ko freskoak, X gizaldikoak, miniaturen gaiak eurak daukez.

Amaitzeko, arrigarria da aldi onetan lekaideek euren idaztegieta egin eben lana, bai liburuak zabaltzen eta bai liburu oneik apaintzen, Europa osoan ikusi dogun lez.

9.- MARGOLARI BITZANTZIOTARRAK

Erroma'ko aginterriak Erroma'n jausi-ondoren, milla urtean jarraitu eban sortaldean eta Bizantzio'ko aginterria esaten jako, jakintza aundikoa ta erlejiño-zalea.

Lenengo daukagun margo-lanaren antzekoa, mosaikoa da. Onetan Erroma'ko oitureari jarraitzen dautsoe baiña obeak dira.



Margodun eunak.

V gizalditik VII'era mosaikoa dago aginterri osoan, baiña VII gizaldia ezker, Bizantzio'n geratzen da. Ikonoklasten aldian ez dira erlejiño girokoak eta eiza edo zirkua edo landarak... agertzen dabez. Gero, barriro, erlejiño-girokoak.



Aginterria txirotu zanean, Mosaikuen ordezk freskoak dagoz (Jazokunde)

Justiniano'ren aldikoak dira Rabena'ko San Bitale'koak eta sarritan agertzen dabez Justiniano ta Teodora. Begitu ondo margoak eta jantzien izurrak.

San Apolinar'ekoak zarragoak dira eta goian 1º zerrendan Kristo'ren bizitzea dakarre, 2n. zerrenda, erdikoan, notin ezagunak eta 3n. 'ean santuen eleizbidea Kristo'rengantz.



Santuak kristo'gana (Mosaikua).

Freskuak mosaikuen antzekoak dira eta beranduago asi ziran, mosaikoak karuak ziralako. Gaur geienak zapuztuta dagoz. XI gizaldian amaitzen dira.



Ikonoak ugari daukez eta emen be batzuk ezagunak dira.

Ikonoak dauke garrantzi handia Bizantzio'n eta emen be batzuk oso ezagunak doguz. Lenengo aldikoak bakanak, arraroak, dira. Geiago daukaguz XII gizaldikoak.

Liburu-gaiñe apainduak eta miniaturak be ugari dagoz eta aurrekoen oiturak jarraitzen dabez eta Biblia ta salmutegiak dira geien apaintzen dabezenak, batzutan orri osoak dira eta beste batzuetan orri-alboak naiz izkiak. VIII gizaldi-ostekoak dira.

Eun margotuak ba badaukez eta saldu be karu saltzen dabez sartaldera, esaterako sedazkoak. Asikeran sedea Txina'tik ekar ten eben baiña gero etxean egin eben morerak eker rita. Olako eunetako apaingarriak leoiak, txirringa nastatuak, elefanteak eta abar izaten dira.

Onein ertibidea Europa osora zabaldu zan orduan eta gero be egiten dira olako gauzak.



Miniaturakaz liburuak apaintzen dabez.

10. - MARGAZKI ERROMANIKOAK

Aurrera jarraitu baño len esan bekit "erromaniko" eta "gotiku" izenak ez dirala ondo ezarriak, erromanikoak ez dauka zer-ikusirik 600 urte lenagotik agiri ez diran erromatarrakaz eta gotikuak be ez 600 urte lenago aldendu ziran godoakaz.

Erromanikoa, erromaniku-aurrea barru dala, VIII gizaldian asten da eta XII gizaldiagaz amaitu, gotikua sartu daiten. Ez aitzu erromaniku-aurrearen nagusi Karlomagno dala eta au 800n. urtean koroatu eban kaiser Aitasantuak. Aldi orretan sendo dago erromaniku-aurrea Asturias'eko erreinuan.

Onein margolaritza be apaingarritzkoa da eta ez da erti lez uts-utsean egiña, beti zerbait apaintzeko baiña, batez be eleizak.

Oiñarri lez, tankera onek aurreragoko miniaturak artzen dauz. Ba-dakigu zelako indarra izan eben oneik toki guztietan. Oiñarri ona dauke ba eta ortik atareak dira gotzain-eleizetako fresko ederrak.

Eleiza-barruan margotzen diran lekuak be ondo aukeratuak eta ezagunak dira: Eleizpeak, ageak, altarak, batez be onein aurreko aldeak eta altara-gaiñeak edo erretabluak. Oneitan Pantokrator agertzen da eta inguruan aingeruak, ebanjelariak eta santuak. Eleizea Andra Maria'ri eskiñia danean, onen irudia agertzen da: bera eta umea aurrera begira, eragiñik bage eta barrerik gabe. Barrenean santuak eta batez be apostoluak.

Erromanikoak ez dauke perspektibarik, beti aurrera begira, gitxienez irudi garrantzitsuak, eta margoak aukeratzen be ez dabe alegiñik egiten.

Freskua erabilten dabe sarritan eta onek esan gura dau margo-lana dana zazpi-bat ordutan amaitu bear dala, karea ta area gogortu baiña lenago, baiña ba-dagoz bide batzuk epe labur ori luzatzeko, esaterako azkenengo kare-azalagaz txarri-koipea nastatu.

Europa osoan zabal dabil margo-lanen tankera au:



Poitou'ko frescua XI gizaldikoa. Sabino ta Cipriano Martini Santuak.

Italia'n iparraldean antxiñako freskuak dagoz IX gizaldian, Milan-aldean. Eta Bizantzio'koen antza dauke trebe bidez. IX-X gizaldietan mosaikuak agertzen dira askatasun aundiagaz egiñak, esaterako Anagni'ko Gotzain-eleizakoa, lurpeko eleizearen ormetan freskuak be ba-dagoz.

Bretaña Nagusian, Alemania'n eta inguruetan gitxiago dagoz baiña gogoangarria Kanterbury'ko Lekaide-etxean dagoan XII gizaldiko freskua.



Anagni'ko Gotzain eleiza. Lurpeko orman freskua



Inglatera'n Kanterbury'ko Lekaide etxean fresku erromanikua

XI gizaldian agertu ziran leiar edo bidriera margotuak. Wisenberg'en bat ondo ederra, baiña lenagotik datorrena da, esaterako Ausburgo'ko gotzain eleizakoa.

Dinamarca'n, Suezia'n eta Alemania'ko beste lekuetan be fresku ederrak eta asko dagoz.

Eta ez dira eleizetako ormak toki bakarrak margo-lan ederrak egiteko, esku-idazkiak apaintzen be jarraitzen dabe, Oton'en aldikoak ikusita. XII gizaldian Biblia asko apaintzen dira.



Wisenburg'en leiar erromanikua XI Gizaldikoa.



Esmaltean margolan erromanikoa Rhin ibai-ondoan

Asko zabaltzen da esmalteen margo-tzea be, Rhin ibaiaren inguruetan XI-XII gizaldietan, esaterako Mago'ren kutxa Kolonia'ko Gotzain-Eleizan, Verdun'dar Nikolas'ek egiña eta ospetsuak dira Limoges'ko esmalte ustuak.

11. - Gotiku tankerako margolaritza, txikia.

Gizaldirik gizaldira edertasuna aurrera doa margolarien lanean.

Gotikua aitatzen dogunean Gotzain-eleizetako leiar ederrak edo bidriera margotuak datorkuz gogora, batez be Kolonia'koa ta Leon'goa.

Baiña goazen ur aundietara.

Erromaniku-aldian lan aundia egin zan eleizetako ormak apaintzen, baiña aldi barri onetan olako lanak amaituta daukaguz, gotikuan ormak ez dauke garrantzirik, utsuneak baiño, eta oneik beteten dira leiar margotsu edo bidrierakaz. Asieran aurreragoko orio-margoak, eun margoak eta ol margotuak dagoz eta ortik dator aldakuntza, eta XIV gizaldian idazkiak ondo apainduta agertzen dira eta orma-margoen orde z datoz leiarrak.

Gaiak ikusleak berotzeko lakoak dira, batez be Kristo Kurutzekoa, eta margoak bizi-biziak eta argitsuak. Margoak garrantzi aundia dauke gotikuan. Bernardo deuna bera be ikaratu egin zan margo eder orreik ikusita eta auxe esan eban: "Ainbeste margo arrigarri gotikuen margo-lanetan naikoa dira artzuriak edo marmolak begiratzen geratzeko, eta idazkiak eta irudiak, geiago begiratzen dira Jainkoaren legea baño".

Izadiaren bideko margoak dira eta irudiak ikuspegi barriak eskintzen dabez, ez beti aurrez-aurre erromanikuan lez.

Geienetan margo-lanen lekua eleizak dira eta sarritan atzea urre-margoz beteten da irudia obeto erakusteko.



Giza-irudiak egiten asten dira, gero berjaiotzan geiago

Erromanikua irudimen gitxikoa zan, naizta irudimena sinboloak ulertzeko bear, gotikuak, oster, irudimenez apaintzen dauz notiñak, notin txikiak eta apaingarriak alboan dirala. Len teolojia begiratzen zan, orain inguruko mundua aurkezten da.

Denporea sartzen da oraingo irudietan, gauzak urrengorik urrengora margotuz, erromanikoan, oster, irudia geldi egoan.

Orain asten dira ertilariak gizonen argazkiak egiten, gero ber-jaiotzan ugarituko dan jokerea.

Frantzian XIII gizaldian lan ederrak egin ziran Paris'ko eskolan: Miniaturagilleak. XIV'ean lan ori atzerantza doa baiña Jean Pucelli buru zala lan asko egin eben.

Gizaldi onen azkenerantza ormako irudirik onena Narbona'ko Gotzain-eleizan dagoan freskua da:



Antxiñatik datozen freskuak jarraitzen dabe.

Kurutzeko Jesus agiri da eta inguruan bera kurutzatzen dabena. Beste fresko asko be badagoz.

Flandes'en XIV gizaldian Borgoña'ko dukaterrian daukaguz lan ederrak, miniatuagilleak eta freskoegilleak.

Bretaña Aundia'n miniatuagilleak lengoai jarraitzen dautse eta lan ederrak egin.

Alemania'n XIII gizaldian Munich'eko ebanjelioa daukagu, abateme batek egiña. Miniatura biziak eta margotsuak be badagoz.

XIV gizaldian Bertran maixua daukagu eta onek egin eban Hanburgo'ko altara-gaiñea.

Austria'n Italia'ko tankera sartu zan eta "Biblia pauperum" dago Biena'n.

Italia'n bizitasun aundiagaz doaz ber-jaiotzarantz eta gero aztertuko dogu.

España'n Salamanca'ko Gotzain-eleizan Segobia'ko Anton Santxez'ek egin da orma-margo ederrak dagoz baiña onena XIV gizaldiko Kexana'n dagoan altara-gaiñea da. Nekaldia agertzen dau eta Chicago'ko museoan dago.

Alhambra'n sabai margotua dago, narruan egiña, erregeen aretoan.

Miniatura onak eta gogoratu-bearrekoak dira Toledo'ko Itzultzaileen Eskola-koak eta Errege Jakitunaren Kantigetan dagozanak.

Kataluña'n XIV gizaldian Pedralbes'en fresko ederra dago, eta beste asko.



Paris'ko eleizatxuan resetoj ederra.

Baiña gotikuen margo-lanik onenak leiar margotua edo bidrierak dira, bai leioetakoak eta bai rose-toietakoak. Oneik mosaikuen antzean egiten dira: Margodun leiarra zatitu, zatiak berunagaz alkartu eta laban berotuta.

Asieran XIII-XIV, margoak gorria ta urdiña ziran eta Frantzia'n gotzain-eleiza askotan dagoz. Ikusi Paris'ko eleizatxuan.

Eun margotua be ugari dagoz aldi onetan, batez be XIV gizaldian. Len Bizantzio'tik ekarten ziran baiña orain bertan egiten dira eta merkeagoak dira: Piztitzarrak magotzen dira eta gero landarak eta geien "granada" k. Damasko deritxoenak be egiten dira.

Burdin-sareak egitea be zabaldu zan asko, len baiño aundiagoak, koru-aurrean naiz altara-inguruan. Esmalteak be bai et silografiak be sortu ziran, olaren barrura sartzen diran mar-goan eta ori izan zan irarkola asmatzeko lenengo urratsa.

12.- MARGOLARI ITALIAR ETA FLAMENKO ZARRAK

Eldu gara margolarien Parnaso-mendiaren barrena eta emen agertuko doguzan margolariak onenatarikoak dira eta Italia'k eta Flandes'ek osotzen dabena ardatz baten barruan dagoz.

Aurreragoko gizaldietan, erromanikoan eta gotikoan, Italia oso motel egoan margolaritzan baiña oraintxe dauko aukerea Europa'n buru izateko.



Van Eyck: Jesus kurutzeretzen.

XIII gizaldian Europa konturatzen da Italia'n gauza barriak dagozela, bear ba'da Asis'ko Frantzisko'k eraginda. Onen jarraitzaileak Kristo'ren nekeak diran lakoak agertu nai dabez, esaterako Pisano'k. Asis'ko Frantzisko'ren bizitza agertzen dau Berlinghieri'k.



J e s u s Kurutzeretzen. Van Eichk

Laster dator maixurik aundiena: Giotto da Bondone (1266-1337). Illuna da bere bizitza baiña Dante'k asko goratzen dau. Ba-dator ber-jaiotza. Giotto'k eskolea sortu eban Florentzia'n XIV gizaldiaren asieran eta ikasle onak izan ebazan. Oraintsura arte aizutategon dan Lorenzetti, Andra Maria'k egiten ona.



Lorenzetti: Andra Maria, Jesus umeagaz.

XIV gizaldian Toskana'n ondamentia izan zan, bankuak estu ebiltzalako eta izurria (pestea) agertu zalako (1348) eta 100. 000 baiño geiago il ziran Boccaccio'k diñoanez. Orren gomutakiak lekaide txomin-darrak itzi euskuezan, frantzizkotarren orde. 1343n. urtean Traini'k Domingo Deunaren altara-gaiña egin eban eta Andrea de Cione Arkagnolo eta bere sendi osoa izan ziran margolari onak. Beste margolari asko eta onak daukaguz.

Lonbardia'n, Ferrara'n, Mantua'n, Verona'n, Benezia'n, Milan'en, Rimini'n, Bolonia'n eta abar. Lorateri ugari bat dago ba Italia'n gizaldi onetan.

Guztien artean ezin itzi aitatu barik beste maixu aundi eta ezagun bat: Fra Angelico.

Gaillur-gaillurrean dagoz ba italiarrak baiña euren parean doaz flamenkuak. Eta beste toki guztietako margolariak onein aldakuntzak baiño ez dira, naiz Frantzia'koak naiz España'koak naiz Alemania edo Inglaterra'koak.

XIV gizaldian asten dira anai bi lan onetan Van Eyck anai ospetsuak.

Brujas, Bruselas, Gante, Tournai uri ospetsuak dira arlo onetan.

Lan asko izengabeak dira eta barriztatu egin dabez.

Geienak eleizakoak dira, diptikoak eta triptikoak.

Euren lan-taldeetan arauak betetzen dabez eta lanean asi baño lenago ondo gertatzera beartzen dabez. Maixuak dira ba, lanean asten diranean.

Geienetan oleoa darabille eta oso ondo, ez dakigu non ikasita eta euren lanak iraunkorrek eta margo onagaz egiñak dira.

Miniaturetatik artu dabez gaiak eta eskatzen dautsena ondo beteten dabe. Oso erlejiño-zaleak dira baiña ez dira lan errezak, ondo pentsatuak baiño, mistikoak diranak be bai.

Guztiak ikasten dabez antzeko margobideak baiña El Bosco'ren antzeko buru-argi batzuk agertzen dira antxiñako arauak alboratu eta gauza barriak egiteko.



*Pisano
Jesus kurutzean.*

San Bavon'eko altara-gaiñea da ona. 1432n. urtean egiña da eta neurriak 3, 5 x 5. Ondo egiña eta tankera barrikoa da. Izadia agertzen da, oiturak be bai eta zeatza ta margotsua da.



Juan Van Eyck: Argazki ona.

Beste nagusietariko bat Van der Weyden da. 1400n. urtean Erroma'ra joan zan eta margolaririk onenak ezagutu ebazan. 1464n. urtean il zan.

Ez dau ezer be izenpetu, baiña lan onak eta asko dira bereak flamenkoen talde-barruan.

Beste asko dagoz aitatu-bearrekoak: Petrus Christus, Buts, Van der Goes, Memling, Gerard David, Von Alken, au guztiz ona.

Begiratu daigun XV gizaldia.

Iru aldi daukaz: Lenengo erdia, irugarren laurena eta laugarren laurena.

Lenengo erdian Jean Van Eyck dogu nagusi eta batera antzean Van der Weyden eta Buts eta laugarrenean Van der Goes eta El Bosco ospetsua.

Van Eyck aundia 1390n. urtean eta Mastrich'en jaioa da eta 1422n. urtean La Haya'n kondearen serbitzaille dago eta au il zanean Lille'n Felipe'ren etxean. España'ra ostera bat egin eban 1426-28 urteetan diplomatiku lez. 1230n. urtean Brujas'en aberats bizi zan. Hunberto bere anaiagaz egiten dau lan eta ordukoa da Kristo kurutzeratua. Bere lanak asko eta onak dira baiña batzutan zalantza dago anaiarenak ete diran.



Van Eyck

Oleoa iñok baiño obeto darabil eta argazkiak be onak egin ebazan.

Flemaille da beste ospetsu bat, Van Eyck'en laguna, baiña margoak motelagoak dira: zuria, nabarra, urdiña, orlegia eta gorrizkea.



Flemalle: kurutzeratzearen irukoitza.

Flamenkoak dira ba, XV gizaldi guztian onenak eta onein artean Van Eyck eta Van de Weyden.

13.- PARNASO-GAIÑEAN

Parnaso'rantza bidea artzeko, mendiaren oiñean lau margolari itzi doguz onak: Italiarrak bi, Giotto ta Fra Angelico; eta flamenkoak beste bi Van Eick eta Van de Weyden eta onein ondoren El Bosco.



Botticelli: Venus'en jaiotza (Florentzia)

Goazen orain gorantza, mendi gaiñera, orain eta geroago be italiarrai eta flamenkoai jarraituz.

Italia'n, XV gizaldian "quattrocento" daukagu, fra Angeliko'ri jarraitzen: Masaccio, au 27 urtean bizi zan baiña lan barria ta aundia egin eban, ormaumel edo fresko ederrak egin ebazan, esaterako Irutasun Santua, eta urrengo Filippo Lippi, abade izana, au be ona freskuak egiten. Gero Veneziano, Perugino, Signorelli, baiña Sandro Botticelli da nagusi eta lan ospetsu bat "Venus'en jaiotza".

Goazen Italia-barruan urrengo gizaldira (XVI). Gizaldi au dago Parnaso-mendiaren gaiñe-gaiñean Italia'n. Margolariak gizartean entzute aundia artu dabe eta Aita Santuak naiz erri-agintariak aunditzat daukez eta lagundu egiten dautsee.

Lenengoa Leonardo da Vinci (1452): Azken-apanaria da lan ospetsu bat. Baiña Vinci ez da margolari utsa, lan ederrak asmatu eta egin ebazan teknika-arloan be eta etxegin lez be oso ona da.



Migel Angel "Azken Epaikunde" Sixtina elezatxuan.

Migel Angel'ek margotu eban lau urtean Sixtina eleitzuko sabaia, Il Julio Aita Santuak eskatuta, baiña etxegin eta irudigille lez be ona zan naizta garrantzi aundia euki margolari lez.

Goi-maillako Italia'n ber-jaiotza itzi eta goazen Flamenkoen artera XVI gizaldian.



Leonardo Da Vinci "Aitzetako ama".

El Bosco'k jarraitzen dau lan asko ta onak egiten eta ondoren datoz Patinir, Matsys, Gossaert, Van Orley... baiña onena Peter Brueghel dogu. Olanda'n Antonio Moro eta Alemania'n Matias Grünewald, baiña ezagunena Durero. Au italiarren bidetik doa. Bere buruari argazkia da ikusgarria. Gero dator Alemania'n Holbein eta Ingalterra'n onein jarratzailleak, ez ain onak.

14.- BARROKOA TA MARGOLARIAK

1550n. urtean amaitzen da ber-jaiotza. Orregaitik, apaingarriak ugaritu egiten dira eta orrelan barroko'ra sartzen gara... Aurreko gizaldietan lez, ardatz bi dagoz: Italia ta Flandes, baiña azkenengo au inguruetara zabaltzen da.

Italia'n:

Carabaggio asten da bide barri onetan lanean (1573-1610) eta 1595n. urtean margotu eban Mateo apostoluar deia: erriko gizonak eta txarto jantziak agertzen dira, argia be gauza bearrezkoa da baiña illun-uneak be euren balioa dauke eta orrelan sortzen da tenebrismoa. Bide orretatik doaz "San Pedro Kurutzeratua", "San Paulo'ren biurtzea", "Andra Maria'ren eriotzea", "Karta-jokalariak", "Bako"... Gaiak itzaltasun gitxigaz agertzen dauz eta askori orrexe-gaitik, ez jake atsegin bere lana. Eta beste margolari batzuk ez doaz bide orretatik Bolonia'n, naiz Napoles'en naiz Erroma'n naiz Benezia'n. Emen XVI gizaldian Tiziano ta Tintoretto agertzen dira. XVIII'ean barriak eta onak datoz Piazzeta margotsua, Tiepolo oso ona, Canaletto...

Flandes eta inguruetan:

Flandes'en España agintari zala katolikuak eta agintari bakartiak dira.

Frantzia'n XVII gizaldiak Carabaggio'k idegi eban tenebristen bidea aurrera doa eta or daukaguz La Tour, Le Nain anaiak, Simon Vouet, Nikolas Possin. Azkenengo au da onena XVII gizaldian eta Italia'koen antzera jokutzen dau ara joan etorriak, beste askoren antzera, eginda. Claudio Lorena daukagu orrean artean eta Errege-etxetik kanpora Wateau, Chardin...



*P.P Rubens
Argazkia: Maria de Medicis*

Flandes'en Pieter Paul Rubens dogu nagusi (1577-1640) Italia ta ber-jaiotza ezagutzen dauz alde batetik eta bestetik Alemania'ko Durero... Lan asko dagoz Rubens'en izenean baiña geienak ikasleenak dira. "Las tres Gracias" da oso ezaguna eta Maria de Medicis'en argazkia be ona.

Inguruetan Rembradt dogu oso ona. Au aberatsen artean bizi izan zan asieran baiña beronen margolanak ez ziran izan onartuak asiera batean. Argi zalea da.

Beronen parean dago Hals (1584-1666), argazkiak egiten ona. Eta irugarrena Jan Vermeer (1632-1675).



El Greko: Toledo'n: Ordaz kondearen illetea

España'n Iru oso onak aitatu bear doguz: El Greco (1541) eta ona Orgaz Kondearen illetea, Toledo'ko eleiza baten dagoana. Lan asko ta ederrak daukoz eta bereak dirala igarteko berezitasuna dauke: Aurpegi luzea ta illuna, argalak... Murillo: onek lan asko ta ederrak daukaz eta berezia da umeak margotzen. Velazquez (1599-1659).

15.-BARROKO-ONDOREN GAUR-ARTE

Barrokoaren ondoren margolaritzak beera-aldi handia dauka eta oneik dira agertzen diran ekinbideak: Neoklasikua arauetara bihurtzeko, erromantizismo ameslari ta sentikorra, inpresio-zaleak margo-moltzoak egiteko, eta onein ondoren bide bi agertzen dira oso ezberdianak: irudizaleena betiko bideari jarraitzeko eta abstraktoa edo ekspresio-zaletasuna irudiak alboratzeko, eta azkenengo onek kubo-zaleen bidera daroa, baiña Europa'ko guda amaitzen danean bide bi zabaltzen dira, bata goibel eta emen dadaismoa, eta bestea bizi-bizi eta emen faubismoa, ultraismoa, futurismoa eta banguardismoa eta azkenean, dana dator aspaldiko surrealismora. Bide oneitan, baten edo batzutan kokatu-ko dira margolariak.

Neoklasikuak

Txirotasuna daroe barruan barroko-zaleen apaingarri larregiak alboratu eta betiko arauak betetera datozen oneik. Etxegintzan etxe ospetsu batzuk egiten dabez eta burdin-lan ederrak eta handiak be bai, esaterako Tour Eiffel eta iturriak nonai, baiña euren margo-lana oso txiroa da.

Esan lei, une onetan gizakia pentsalari geratzen dala bide barri batzuk asmatzen, eta asmatu be egingo dauz.

Erromantikuak

Jokabide onetan batzuk aitatuko doguz: Ingres, Delacroix eta nagusi dan Geri Cault. Ikuspegiak agertzen dira onak Camille Carot, Huet eta Troyon, baiña T. Rousseau barriro klasikura doa.

Beljika'n apur bat Italia'n gitxi eta Olandan ikuspegiak ugari. Ingalaterra'n ostera, argazki-zale dira eta Alemania'n mistikara jokerea sartzen jake Nazaret'arrak buru dirala.

Realistak edo gauzatiak

Urrengo realistak datoz, Millet aurrerengo dala. Onek eguneroko bizitzeari begiratzen dautso, gogoratu, esaterako beronen "Angelus".

Frantzia'n Daumier, gizarte-arazoak agertzen ona, Rikard argazkiak margotzen, Monticelli eta Carrand barriro ikuspegiak margotzen agertzen jakuz.

Inpresiozaleak

XIX gizaldiaren azkenean agertzen da jokabide au. Onein ustez mundu onetan dana dago joanean eta margolariak une bat artzen dau, ori da beronen inpresioa. Eta jokabide orrek poztu ta bete egiten dau margolari inpresiozalea.

Margolari onein lanak zeaztugabeak dirala dirudi, margo-moltzoen antza dauke, orregaitik urriñetik ikusi bear dira.

Ekinbide naikoa bereziak daukez: Bata margolari barriena eta bestea bide barri oneik sendotu eta eskola barria askori zabaltzen dautsen bidea.

Asieran ez ziran izan onartuak. Jokabide oneri asiera emon eutsona "Eguzkia berantza. Inpresioa" margolana izan zan eta ortik artu eban 1874n. urtean. Manet da auren artean ona eta Van Gogh ospetsua be emen sartzen da.



Monet
Eguzki-sartzea impresiozaleen asierea

Regoyos, Sorolla eta Gimeno.

Ekspresiozaleak

Irudidun edo figuratiboa izan da margolaritza orain artean, baiña ba-dirudi irudi guztiak eta era guztietara agertuak dirala eta orain irudi bageko margolaritza asmatzen dabe margolariak. Zer izango ete da



Kurutzea
Salbador Dali

irudi gabeko margolaritza au?

Batzuk geometria sartuko dabe euren lanetara eta onei kubozaleak esango jake.

1914n. urteko guda amaitu zanean bide bi zabaldu ziran: ezezkorra eta onein artean dagoz dadaistak, margotzeko gogo ta indar barik berba egiteko "da-da" esaten dauanaren antzera, eta bestetik baiezkorak, itxaropentsu agertzen diranak eta emen dagoz ultraistak, futuristak, banguardistak eta faubistak.

Onein artean Matisse gero kubozale biurtuko dana.

Aitatzekoak dira Iturrino, Zuloaga, Gris, Blanchard, Miro eta sarritan zalantzak izan arren Dali be bai. Au azkenean surrealista biurtuko jaku. Ikusi onen Kristo gurutzekoa.



Manet
Bedartzan berausten

Pablo Ruiz Pikasso

Ospe aundiko margolaria dogu, Velazquez'en bestean ezaguna.

Asieran inpresiozale izan zan, Van Gogh'eri jarrituz, gero ezezkor biurtu zan eta zori txarreko notiñak margotzen ebazan, esaterako argalak, itsuak, eskekoak eta kale-musikalariak. Gero margo sakonetara sartu zan bere larrosa-aldian Apollinaire'ren lagun aundia zanean. Baiña kubozale biurtzen jaku, oso osoan irudien aurka joan bagerik, geroago realista da eta lotan dagozan ameslariak, onirikoak, margozen dauz, tauromakia be bai

Picasso
Gernika Sutan



eta aldi onetan Gernika margotzen dau España'ko Erkalak eskatuta eta Paris'en. Irudi eder au Ameriketara eroan eben España'n diktadura dagoan artean an egon daiten eta gero Madrid'era ekarri dabe, baiña, eskatu arren ez dautsoe emon gura Euskadi'ri edo Gernika'ri.

Guda-ostean bizi poza agertzen dau eta lan asko ta onak egin, larogetak urtetakoa zala be bai.

Baiña irudizaleak edo figuratiboak be euren bidean aurrera egin eben, esaterako Juan Etxebarria'k, Aurelio Arteta'k, Alberto Arrue'k, Ebaristo Balle'k, Rafael Zabaleta'k, Daniel Vazquez'ek, Cossio'k...

Goia

Aldakuntza guzti onein inguruan dabil asieratik Goia margolaria, guztiai bideak idegiten eta guztiak onartzen.

Zaragoza'ko Fuentedetodos errian jaio zan eta Zaragoza'n bertan, eskolapioen ikastetxean ikasi eban, margotzen be bai, Jose Lazan irakasle ebalá.

Amazazpi urtekoa zala Madrid'era joan zan sariketa batera, baiña saria galdu egin eban eta Italia'ra joan zan. Erroma'n egon ondoren Parma'ra abiatu zan eta emen bai atera eban saria.

Ogeta bost urtekoa zala barriro bere etxera etorri zan eta Zaragoza'ko Pilar eleizan lan batzuk emon eutsoezan eta freskoz egin be bai. Gero Aula Dei kartuja'n egin ebazan beste lan batzuk ormak apaintzeko. Madrid'era joan zan barriro eta eun margotuetan edo tapizetan egin eban lan.

Margo-lan asko eta ederrak dira bereak, Sorgiñak iruditzen be bai.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKERARI BURUZ AGIRI NAGUSIA

Sarrera

- I. Gure billaketa nondik asten dan**
- II. Euskera, izkuntzen sendia**
- III. Amagandik datorren izkuntzaren garrantzia**
- IV. Amish eredugarri**
- V. Batua**
- VI. Naparroa´ko euskera - galtzaille nagusia**
- VII. Gizakien alkar bizitza, askotarikoa dan jakintza**
- VIII. Eraskiña: Eleizea nora - ezean**
- IX. Mezurik aundiena**

SARRERA

Eskuartearen dedan lan au, euskeraren izkuntzalaritzan nagusi diran arau aundi batzuk azterketa-girora sartzeko ustean dator.

Lenengo urratsa auxe argi ikustea litzake: Euskerea zer da? Izkuntza bat ala euskalki bat ala garrantzitsuagoa dan zerbait?

Itzi daigun alde batera gure alde datozan zio guztiak aztertzea. Ziorik bizienak izan arren be bai. Oiñarri gitxi artuko doguz, baiña ziurtagarriak diranak. Oneik izango dira arazoa den lez ikusteko lagungarriak onenak eta egokienak. Gure arrazoiketa guztian lenengo bereizitasuna izkuntza zertarako dan eta zela-koa dan agertzea izango da. Eta araurik beiñena gure burubidea argi eta garbi agertzea. Alegin osoa egingo dogu izkerea gure mendietako edozein artzaiñek ulertzeko bezelakoa izan daiten.

I. NONDIK ASTEN DOGUN BILLAKETA

Joan diran gizaldi asko ta luzeetan frantzetarren buru argiak gure euskerearen izketa-moldeak izkelki lez artu ditu.

Gure lenengo azterketa-zatia "izkuntza" itzak zer esan nai dauan agertzeko izango da: Ezaugarri-moltso eratu bat, itzaren bidez gure barrua besteai agertzeko.

Izkuntzak gai asko ditu ba, elburu ori lortzeko bear ditualako: Erakunde bat eta or aldia eta aldiaren erakundea agertuko dau, adierazpenen kopuru bat eta bere-bereak dituan ezaugarrien kode osoa naiz zatia eta or agertuko dau beste izkuntza-erakunde batzutatik urrintzea gramatikazko arau guztietan eta bakoitzean.

Izkelkia izkuntzari lotuta dago beti. Aldentzen dauana gramatikako gai batzutan aldea eukitea da. Eta dauan ezaugarriak argiena sendi-giroko iztegia ugari izatea.

Dana labor esateko, auxe esan gainke: Izkuntzak bere erakundeak bear dauzan gramatika-gai guztiak daukazala, izkelkia, ostera, beste estruktura batena dan erakunde baten itxita gelditu da.

Benetako izkuntzak diranak, urteen joanean, izkuntza-talde bakoitxean euren elertizko oroigailuak sortzea lortu dabe eta oroigailu orreik geiago agertzen dabe izkuntzak izan dirala, euskalkiak dirala baiño. Orregaitik, gipuzkoera, bizkaiera, lapurtera, xiberoera, eta abar, euren erakunde bereiziaz ditue, edo bardin dana, euren erakundeen barruan itz-osotze osoa dauke.

Izkuntza bat izkuntza lez agertzen danean burubide oneik izaten dira, begien aurrean:

- Izkuntzaren erakundea ezagutzeko bear diran ezaugarri guztiak agiri-agirian dagoz.

- Gai batzuk argi-argi agertzen dabe beste erakunde batetik urrin dagozala. Alde oneik arin agertzen dira amagandik artutako izkuntzaren erakundearen eta beronen zatikiak dira. Eta alde orreri eusteko, ezaugarri bereizi lez, batzutan antzeko ezaugarriak naiz erakundea izan arren.

Baiña aldea aundiagoa danean, idazkia ulertzeko idazkia bera aztertu bear da zuzenean. Ulertzeko eragozpenak beste izkuntza batzutan baiño aundiagoak bakoitxa bere auzokoarekin norberaren izkuntzan ulertu leiteke.

Euskerearen barruan aldeak ba-dagozala, argi dago:

- Bizkaiera da Bizkaia'k dauan etorpidezko ondasunik aundiena, Guggenheim baiño garrantzi aundiagokoa.

- Gipuzkoerak, dauan erakundezko oreka aundiarekin, elerti klasiku ugaria dauka.

- Lapurterak aldi guztietako elerti oroipenik onenak daukaz.

- Ziberoerak erri-elerti aberatsa dauka antzerki-arloan. Europa guztian diranen artean ugariena ta aberatsena.

Gitxiengoan izkuntza batek dauan esparrua, lenengo ta bigarren maillako osokuntzak alkartuta, eta lanbide eziketa be barru dala, artzen dauz. Izkuntza zarrak beste batzuk baiño obeto daukaz barruan lurginiñen eta artzaiñen jakintza-gaiak.

Goi-maillako jakintzaren bereizkuntza, izkuntza garatuen barru dago. Jazokizun au beti jazo da orrelan eta orrelan ulertzen da izkuntza batzuk geiengoarenak eta beste batzuk gixiengoarenak izatea.

II. EUSKERA, IZKUNTZEN SENDIA

Euskera zer dan zeatz esateko, esaldi au dogu beste guztien artean adierazgarriena: Euskera izkuntzen sendia da eta aldean daroaz, okerbidez euskalkiak esaten jaken aldakuntzak.

Euskeraren aldakuntzai euskalkiak esatea ez da gauza egokia eta "euskalkia" itz onek ez dau ondo adierazten elerti-bideko jatorri luzean izkuntza oneik izan daben garrantzia.

Izkuntzak dauken aniztasunak argi agertzen dau jakintzak duten aberastasuna eta aniztasun orrek ugaritasunaren ikuspegia dakarsku eta ez dago ezelako zuribiderik ezarten jaken zigor ori irabazia dutela ziurtatzeko.

Beste alde batetik begiratu ezker, jakintza gauza garetzia dala esan bear da.

Jakintza daroan ugaritasunak alegin aundia egitea ezkatzen dau, munduko ondasunetan igeri ari diranen aldetik. Sarritan olakoak eskintzen daben laguntza, euren almenak eskatzen dauana baiño askoz beerago geratzen da.

Izkuntzen sendiak ba-dagozela munduko izkuntzalaritzan bein ta barrio agertzen dan gauzea da. Ereduak artzeko, begiratu dagiegun Feroe'k eskintzen ditun izkuntza jermaniarrak, edo islandiera, edo norwgera edo Pensilbaniako dutch erriarena, eta abar. Aurrera jarraitzeko almena euren adimenak agertzen dau, euren asmoak eta ekintzak eskintzen dabezelako eta ekintza orreik aurrea eramateko sendotasuna daukelako.

Beste izkuntza batzutan aldakuntzak nabarmenak dira izkuntzen sendietan eta sarritan alkarren ondoan egoten dira, bakoitzak bere maillan mundu bereizi bat daukola. Feroe ugarteetako jermanierak, esaterako, edo islanderak edo norwgerak, eta abar, ondo alkartzen dan sendi orregaz batera dauken zerbait eskintzen dabe eta batera ezbardintasun nabarmena. Euskeraren sendian ere orixe jazoten da.

Oñatibia'ren irakasbideak duan onura bat auxe da: Ondo artzen dauala kon-tuan (euskeraren joskera) izkuntzaren izaera gramatikazko alkartzeak ondo jos-teko. "Batuak", oster, sarritan aitzu egiten dauz euskal arkar-bideen joskerak eta orrelan izkuntza aurkarien esku geratzen da.

Amagandik artutako izkuntza da, izan be, edozein izkuntza garatzeko oiñaria. Amagandik datorren izkuntza da biderik onena erri-euskera ezagutzeko ta indartzeko eta orixe da erriaren altxor mugagabea.

III. AMAGANDIKO IZKUNTZAREN GARRANTZIA

Izkuntzen alkarteak egitez amagandiko izkuntzaren ekintza sendo batek bideratuta dagoz.

Amagandiko izkuntzak idegiten digu bearrezko bidea banaka izkuntza-talde batera sartzeko.

Baiña gitxiengoarenak diran izkuntza auek beste gaitasun aundi bat dute: alkar-ulertzeko erreztasun aundia daukelako, euren bizia luzatzeko almen ikaragarria dauke eta orregaz asmorik ausartienak beteten dabez, beteteko bear duten sendotasuna be ugari daukelako...

IV. AMISH´TARREN EREDUA

Amagandiko izkuntza ikasteko bidean indar aundia dauka Amish´tarren erriaren irakatsi biziak (Amish´tarrak USA´n Pensilbania laterrian dagoz): 1960n. urteak agertzen dausku dana. Erljio-taldea eta protestanteen artean sortua dira (Zurich´en, Zwinglio´ren erlejiño-aldaketaren ondoren lez).

Jasartuak edo aurrean erabiliak izan ziran eta euren erlejiño-nortasuna zaintzeko borroka izan eben... Jakintza-aldetik, alemandarrak dira. Euren aurrean ezibiderako erakunde berezia dute eta agintariakaz konponketa bat egin dabe eziketa eta jakintza alorretan egitarau bereziak garatzeko. Laterriagazko itunak (1950) eurak beartzen dauz 16 urtera arte eziketa ziurtatzeko. Ikastaro oneitan iru izkuntza lantzen dabez. Lenengo urte bietan erri-giroko aleman-izkuntza eskuratzen dabe ondo, euren gurasoak darabilen izkuntza bera etxean eta lanean dituzten ar-emanak argitzeko... Gero, urte batzutan, alemandarren izkuntza klasikua sakontzen dabe erlejiño-giroko pentsaerak obeto eskuratzeko eta irakurketa eta salmoen naiz liturjiaren azalpenak ulertzeko.

1972n. urtean laterri-arteko lege bat agertu zan eta onek Amish´tarrai adorea ematen zizkien oiñarrizko euren askatasuna eskuratzeko eta gurasoek ekintzak oso-osoan beteteko, ikasketarako egitarauak egin eta beteteko, laterria ezertara ere sartu gabe.

Deutch People´k (Pensilbanian) duten bizikeran, beste edozein gitxiengo-erri-tan sortzen diran oztopoak urtenbide bat dute Amish´tarren eredian, erantzun egoki bat eta ekintzarako eredu eder bat.

V. EUSKERA BATUA

Argi eta ozenki esan genezake Euskalerraren jakintza-alorreko iraulketa aundia euskera batua deritxonaren bidez agertu dala eta orreri XX gizaldi-gizaldian erriak "BATUA" izena ezarri diola.

Euskerearen zazpi izkeretatik gaiak artuta izkuntza batua ezartea izan da guraria...

Euskerearen izkera bakoitzetik joko batzuk artu dira eta beste batzuk albo-ratu. Orrelan euskeraren etorkizuna biurtu egin da eta izkuntza barria sortu.

Batasun ori bearrezko elburu lez agertu dabe, bearrezkoa eta euskeraren aldakuntzak duten ugaritasuna bideratzeko urtenbidea. Euren ustez, barru-barruan, irabazbide geiago eukan izaki bat sortu dabe. Maltzurkeriz ezarteko

bideak artu dabez eta egiñak eginda dagozela esanez, izkuntza berria goitik beera ezarteko talde biurtu dira. Izkuntza-arloan klasikuak ziranen eritzia aurka egoalako, aurkari talde biurtu dute.

Akademi-indarra eskuratu dabe eta erakunde berria sortu H onartuta eta ikur au sabindarren aurkako ikur biurtuta. Esanda dago H'a totalitarioen irauketaren ezaugarri plastikua dala. Gaiñera, ez da aitzu bear batzokiak eurak ere "Batua"ren eragiñera makurtu dirala.

Artu diran irizpide batzuk salatutako arazoai indarra ematen die. Ona emen pentsabide batzuk arantzazko bide dan arazo oneri begira:

1- Izkuntzak ez dira batzen. Izkuntza batzen ba'da, aldatu egiten da eta indarra kentzen zaio.

Batzearen oiñarriak agertzeko, ona emen pentsabide argi eta labur batzuk:

Euskalerrian iru izkuntza nagusi ditugu: frantzerara, españera eta euskera. Guk esku-artean izan ditugun liburuak beste edonork be euki dezazke.

50.000 itzetik gora dituzten iru iztegi artu ditugu: euskerazkoa, gaztelerezkoa eta frantzerazkoa. H'dun itzak zenbatu ditugu eta euneko zenbat atera 50.000 itzetan eta iru izkuntzetako bakoitzean.

Ona emen ondorenak:

- Euskeran 2.331 dira itz H'dun.
- Gaztelera 1.164 itz H'dunak.
- Frantzeran 1.137 itz H'dunak.

- Eunekoak oneik dira:

Eukera 2.331 = 2

Gaztelera 1.164

Euskera 2.331= 2,04

Frantzerara 1.137

Agiri da Batuak gaztelera eta frantzerak baiño bitan geiago H duala.

Oiñarrizkoa dan galdera bat: Zein da izkuntzaren Akademiak erabakia artu eta euskera batzeko asmoetan dauan almena, "Batua" euskerearen "klasikuen" aldetik onartua izan gabe egiteko?

"Batua" ezartearen aurkako agiri ankerra da Latiegi'tar Bixente'k eta Oñati-bia'tar Dunixi'k argitaratu eben eta oroitetze bat dan liburua: "Euskaltzaindia, Batua eta euskeraren eriotza". Lorea irarkolan 1983.

"Batua"ren arrisku aundia euskerea erromantze biurtzea da. Lenengo eta argi ta garbi jausten dira Hernialde'ko parroko zan Juan Irazusta'k (XVIII mendean) agertu eban tentaldira. Onelan berak gogoangarri dan Jainkoaren zeazketan:

"Nor da Jaingokoa? Jaun bat infinitamente Poderoso, Sabio, Justoa, principioa eta fiña gauza guztiena.

Jakintza-alorreko azken-ekaitz onetan, millak adibide ekarri genezazke eredu lez. Kale-kalean egoan idazki batek iñoan: "Pulsen el botón" edo bardin dana "Botoia sakatu".

Atal au amaitzeko zer gauza argiagorik Molho'tar Maurizio'ren itzak baiño. Au Sorbona'ko irakaslea zan, Gustave Guillaume'ren ikaslea, mundu osoan ezagu-

na izkuntzalaritzako beronen lanakaitik. New York'eko itzaldi baten esan eban au (1983-08-03): Euskerearen barruko bizia berak dituan izkuntza-sendien askotasuna da. Bizkaiera galtzea bere erakundearen zati guztiz garrantzitsu bat galtzea litzake. Frantzerantz antziñatik etorren idazkera luzeak batu eban eta ez Frantzeraren Akademia'k.

VI. NAPARROA'KO EUSKERA - GALTZAILLE NAGUSIA

Luis Luziano Bonaparte printzeak egin zuan izkuntzaren lur-irudian (1863) urrengo euskera-talde auek agertzen dira Naparroa'n:

- Erronkari'ko euskera.
- Be-naparroa'ko euskera, Salazar eta Aezkoa araretan eta Luzaide bereizian

- Eta naparreraren beste talde bi agertzen dauz.
 - Sortaldeko goi-naparrera, bost uriak / Atez / Baztan / Arbitzu. Au idazle bakar batek erabili eban, Izeta'tar Mariano "Diario de Navarra'n" lankide dogunak.

- Sartaldeko Goi-naparrera gaur lur-irudietatik galduta dago. Gaur ikastoletan egiten dan euskera ez da gurea, "batua" baiño. Laster ez da iñon egingo Naparroa'ko euskerarik.

Errazoiz esaten diote sarritan gurasoak euren seme-alabai: "Zuek ikastoletan ikasten dezuten euskera ez da gure euskera"

Nik uste det eldua dala Sartaldeko Goi-naparrera bizirik zaintzeko ordua eta bizirik zaintzen ainbat lasterren asteko sasoi.

Sartaldeko Goi-naparrerari bidea idegi bear diogu izkuntzak ikasteko gaur diran ikasbideak eskiñiz. Oñatibia'ren ikasbidea (euskera irrati-bidez) oso egokitzat degu. Sartaldeko Goi-naparrera'ri egin bear diogu Oñatibia'k gipuzkoerari, bizkaierari, lapurterari eta ziberoerari egin diena. Orrelan bidea izango degu Sartaldeko Goi-naparrera ondo irakasteko eta eginda dauden lanen moltzoa ugaritzeko. Sartaldeko Goi-naparrerak eredu bereizia eskintzen digu aditz-osotzerako, eta iztegi aberatsa eta euskeraren beste aldakuntzetan agiri ez dan laugarren aditzezko izen-laguna.

Eta ori lortzeko biderik egokiena au litzake: Oñatibia'ren ikasbidearen ikasgaiak argiratzen ekin Sartaldeko Goi-naparreraz, astero bat, "Diario de Navarra"ren euskerazko orrialdean.

Ikasbide au zatika argitarako litzake dena amaitu-arte.

Goi-naparrera Oñatibia'ren ikasbidea eskuetan duala, Naparroa'ko izkuntza ikasten asteko asiera on bat eukiko genduke. Ez aitzu naparren izkuntza millak urteetan bizi izan dala gure mendietako leizetan, gure basetxeetan itz egiteko erabili dan baiño aldi luzeagoan.

Ikasbide ori, gaiñera ona izango litzake erronkaria berbizteko ere. Gaur ontzat artzen da erronkariaren eriotzea ospatzeko egiten dan edozein illeta. Izan ere, erronkaria il zan eta erostak ugari izaten dira eriotza ori zuritzeko: Ez gintzakez arritu bear beste batzuk erronkaria berbizteko aleginak egitea, berau dalako naparreraren bitxi eder bat eta munduak etorpidex artu dauan ondasuna. Agertuko dira ori egingo daben gizaki zintzoak eta Naparroa aberatsago bihurtuko da. "Diario de Navarra"k orretarako aukera eskiñi leike: Aurkitu al izango dira erronkaria bere lekuan jarteko gogoak dakarren gizaki zintzoak. Egun ori Naparroa'ren egun aundi bat izango da.

VII. GIZAKIEN ALKAR BIZITZA, JAKINTZAZKO ASKOTASUNEAN

Trebe-giroko pentsabide oneik, munduko ekandu edo oitura-iztiaren oiñarrietara garamazkite itaun batzuk egiteko. Arazo oneik ondo agertzen ba'ditugu gizakien alkar bizitzarako oiñarriak eurak sendotzen ditugu. Eta oneik alboratzen ba'ditugu gizarteko bakearen bideak apurtzen ditugu eta errien garapen osoari ostopoak jartzen dizkiogu.

Euskal jakintzak oiñarri lez askotariko biziera agertzen du eta orixe da aurre-rabideko oiñarria: Giza-jakintzaren aniztasuna, giza-elkartearen ugaritasuna, eta izkuntzen askotasuna.

Gizabidea edozein jakintza bide orretatik dijoa aurrera.

Jakintza alkartzeko diran ekiñaldiak alboratzea, besteai laguntzeko bideak itxitea da, gizona jopu edo morroi biurtzeko bideak.

Barru-barruan, aukera asko eukiteko gizakiak duan jokera, erritarren artean aniztasunean alkar bizitzara urratsak emoteko bidea da. Ori egiñez askatasunerako esparru zabala idegiten dogu. Lenengo ekintza errien arteko askatasuna aintzat artzeko bidea da eta bigarrena, epe labur naiz luzean, askatasun orren oiñarriak puzkatzeko bidea.

VIII. ELEIZEA NORA-EZEAN

Mingarria da gutzat Eleizeak erakunde-maillan artu duan eta "batua" onartzeko dan bidea, bere erakunde-alorreko agirietan artzen dituan izkuntza-arauak artzen ditualako. Or agertzen da batasunari lagungarri on bat eskintzen zaiola, aukeren askotasuna ukatuz (katekesi-batzordeak, liturjikoak, biblikoak eta artzain-lan agirietakoak).

Dana dala, Be-naparroa'ko bibli-batzordeak gauza egokia dala uste izan du bibliaren itzulpenak "batua"ra ez egitea, ori ez dalako erriaren izkuntza eta baten irakurrita ulertzen ez duan idazkian biblia irakurtea gaitz egiten zaiolako...

Olako arazo larrietan Jainkoaren erriak ba'du eskubidea berari galdera egiteko eta bere iritzia entzuna eta biotz zabalez onartua izateko.

Zintzotasunak Eleizea aintzaz beteten du eta nora-ezean ari denean, oreka galtzen du. Gure erantzunetan argiak izan bear gera. Ez degu ezer lortzen illuntasunean ekinda. Erantzunik sendoena erriaren abotsa izan ala ez izan degu. Ez du balio askoren agoz itz egin nai duten gitxi batzuren abotsak.

Oiñarri diran arauen atzean, ekintza-indarra duten ardatz sendo oneik aurkitzen ditugu: "Erakunde totalitarioa eta askatasunezko mundua". Eta gure ekin-tzetan beti ari gera bata naiz bestea egiten... Zergaitik gure bizitzetan olako illuntasuna? Gure izaera bideratzeko aukerak, gure burubideak dira.

IX MEZURIK AUNDIENA

Amish'tarrak erri ori osatzen duten sendiai emondako mezuak, euskeraz mintzatzen diran guztientzat balio du: "Amagandik artutako zuen izkuntza maitatu egizue atsedenek artu gabe. Ori da zuen garaipenerako giltza. Orretarako alegiñak egiten iraunkorrek izan zaitezte.

Maitatzen duanak artzen du bide zuzena.

Latxaga

Lizarraín, 2001-IX-21

“Euskarari buruz Agiri Nagusia”ri oar batzuk

Gure Latxaga'k aspaldion gogoan erabillan “Agiri Nagusia” agertu da eta, berak nai duan lez, oartxu batzuk egingo dautsadaz.

Agiri benetan ederra eta oargarria da, bai arlo onetan larregi sartuak ez garrantzat eta bai, batez be, ondo sartuak eta jakitunak diranentzat.

Amagandik artutako izkuntzari Latxaga'k emoten dautsan garrantzia da lenengo agertzen dan gauza oargarria.

Gero Amish edo Fero ugarteetan egin dabenaren eredua euskaldunontzat eredugarria da benetan.

“Batua”k dituan arazoak be ondo aztertuak dira, batez be, bai atxearen arazoan eta beste arlo batzutan aurkitu eta agertzen dauzan euneko onenbestekoak, argi ikusi daigun zertan dan “batua”ren bide okerra edo okerrerako bidea.

Naparrerari emoten dautson garrantzi aundia Latxaga'k, euskera oneri benetako maitasuna dautsolako. Ez ete da larregikoa?

Erronkari'ko euskerea berbiztea nai dau, baiña izkuntza bat berbiztea lan izugarria da eta oso zailla, bear ba'da sarritan lortu-eziña. Ez ete da amets utsa?

Alkar jakintza eta alkar bizitzaren artean egiten dauan konparaketa ere argigarria ta irakurgarria da.

Zorionak eta eskerrik asko, Latxaga adiskidea! Balioko al dau zure “Agiri Nagusia”k euskerearen arazoak bideratzeko eta euskerea bat ala batzuk diran argitzeko ta erakusteko.

OLAZAR'tar Martinek

MANIFIESTO ACERCA DEL EUSKERA

Introducción

- I. Punto de partida de nuestra investigación**
- II. El euskera una familia de lenguas**
- III. Importancia de la lengua materna**
- IV. El ejemplo de los amish**
- V. El batua**
- VI. El euskera navarro – El gran perdedor**
- VII. La convivencia humana en el pluralismo cultural**
- VIII. Anexo: La iglesia en la cuerda floja**
- IX. Mensaje capital**

INTRODUCCIÓN

Este trabajo quiere ser una revisión de los grandes principios que dominan la lingüística del euskera.

El primer paso a dar consiste en ver ¿qué es el euskera?, ¿lengua o dialecto o algo más decisivo?

Renunciamos al análisis de todas las razones que reman a nuestro favor, por muy contundentes que sean. Nos conformamos con pocas pruebas pero estas decisivas. Creo que nos hablan de los términos más adecuados y cercanos a la realidad. Funcionalismo y objetividad serán las características primordiales de nuestra argumentación. La claridad de la presentación de la idea será de regla. Nos esforzamos por presentar un lenguaje capaz de ser entendido por un pastor de nuestras montañas.

I. PUNTO DE PARTIDA DE NUESTRA INVESTIGACIÓN

Durante siglos y más siglos, la inteligencia francesa ha considerado a las distintas modalidades de la lengua vasca como formas dialectales o dialectos.

Nuestra primera consideración se refiere a lo que quiere decir “lengua”: es todo conjunto organizado de signos, con vistas a la comunicación de la palabra.

Una lengua posee toda la serie de elementos que necesita para asegurar su finalidad: una estructura que comprenda una representación del tiempo o la estructura temporal, el juego semántico, es decir, un código completo o parcial de los signos que le son propios, por los que se diferencia de los otros sistemas, en cualquiera de las articulaciones gramaticales.

El dialecto se encuentra adosado a una lengua. Se distingue por marcar la diferencia en cierto número de elementos gramaticales. Destaca por la abundancia de la terminología familiar.

Resumiendo podemos afirmar que la lengua contiene todos los elementos gramaticales de su propio sistema, el dialecto se encerró ya en una estructura que pertenece en propio a otro sistema.

Las lenguas propiamente dichas, con el tiempo han conseguido construir en cada grupo lingüístico sus monumentos literarios que nos hablan más de la presencia de auténticas lenguas que de la existencia de dialectos. Por consiguiente, el guipuzcoano, el vizcaíno, el labortano, el xiberotano, etc. ofrecen estructuras particulares, es decir, toda una morfología dentro de su propio sistema.

Los criterios aplicados en la constitución de una lengua son los siguientes:

- Se manifiestan visibles todos los signos necesarios al reconocimiento de la estructura de una lengua.

- Ciertos elementos marcan una clara diferencia con otros sistemas. Esas diferencias aparecen en la estructura de la lengua materna para los componentes de la misma. Esa diferencia será mantenida, como nota peculiar de la misma, a pesar de que se trata, a veces, de una nota o de una estructura muy parecida.

Cuando la diferencia es mayor todo entendimiento del texto requiere un aprendizaje directo del mismo. Cuando las dificultades no son mayores para las lenguas muy parecidas, cada uno puede entenderse con el vecino en su propia lengua. El elemento diferencial en las modalidades del euskera es evidente:

- El euskera vizcaíno es el mayor patrimonio cultural de Bizkaia, más importante que el museo Guggenheim;

- El guipuzcoano, de gran equilibrio estructural, posee una abundante literatura clásica;

- El labortano cuenta con los mayores monumentos literarios de todos los tiempos;

- El suletino ofrece una literatura popular (teatro) de las más fecundas y ricas de Europa.

El tope de una lengua minoritaria abarca los espacios ocupados por una formación primaria y secundaria bien fusionados, así como la formación profesional. Las lenguas arcaicas comprenden más que ninguna otra la cultura agraria y pastoril.

La alta especialización depende de las lenguas más desarrolladas. Fenómeno este que se da en todos los tiempos y explica el uso de ciertas lenguas mayoritarias o minoritarias.

II. EL EUSKERA, UNA FAMILIA DE LENGUAS

La definición más apropiada del euskera la encontramos en la que declara ser ésta una familia de lenguas, con variantes mal llamadas dialectos.

El término de “dialectos” atribuido a las modalidades del euskera es impropio y no refleja la importancia de esas lenguas en la gran tradición literaria.

El pluralismo de lenguas expresa la riqueza de las culturas y nos da cierta visión de la abundancia, y nada justifica que esto sea un castigo bien ganado.

Por otra parte, conviene decir que la cultura es cara.

Toda abundancia de la cultura exige un esfuerzo muy serio por parte de los individuos dotados de bienes materiales. La ayuda que ofrecen a menudo se sitúa muy por debajo de las posibilidades normales.

La existencia de las familias de lenguas es una constante de la lingüística universal. Modelo a utilizar: las lenguas germánicas ofrecen el feroe, el islandés, noruego, el pueblo ducht de Pensilvania, etc. La capacidad de sobrevivencia nos la manifiestan por la inteligencia que nos ofrecen en sus proyectos y la tenacidad con que las llevan a cabo.

En otras lenguas las diferencias son notables.

En las familias de lenguas, a menudo vecinas unas de otras, cada uno a su propio nivel, construye un mundo a parte. Así, el germánico de las islas Feroe, el islandés, noruego, etc. ofrecen algo común al grupo que les une con fuerza y al mismo tiempo algo muy diferente. En la familia del euskera pasa lo mismo.

Una de las ventajas del método Oñatibia consiste en tener muy en cuenta (euskeraren joskera) el genio de la lengua con el trenzado de las articulaciones gramaticales. El “Batua” muy a menudo olvida los empalmes de las articulaciones vascas, dejando esta lengua a la intemperie de toda agresión.

La lengua materna constituye, en efecto, la base del desarrollo de toda lengua. La lengua materna es el mejor medio de estimular y dar a conocer el euskera popular, ese inmenso tesoro del pueblo.

III. IMPORTANCIA DE LA LENGUA MATERNA

Las comunidades lingüísticas se ven trazadas en la realidad por la acción vigorosa de la lengua materna.

La lengua materna nos ofrece el acceso obligado del individuo a un grupo lingüístico determinado.

Sin embargo, estas lenguas minoritarias cuentan, además, con una sobrecogedora capacidad de sobrevivencia por la calidad de su inteligencia, con la que realizan los proyectos más atrevidos y por la tenacidad con la que los llevan a cabo...

IV. EL EJEMPLO DE LOS AMISH

En este tema del aprendizaje de la lengua materna ha sido un motor muy valioso el conocimiento directo de la experiencia del pueblo Amish (Estado de Pensilvania, USA). La fecha del año 1560 lo dice todo. Se trata de un grupo religioso de origen protestante (reforma de Zwinglio, de Zurich).

Son perseguidos y luchan por mantener la identidad religiosa. Culturalmente pertenecen al mundo alemán. Tienen organizado el sistema educativo de la población infantil y un arreglo legal con el gobierno les permite desarrollar los propios programas educativos y culturales. Un convenio con el Estado (1950) les obliga a asegurar la educación hasta los 16 años. Cultivan tres idiomas durante el período escolar. Los dos primeros años se familiarizan con el alemán popular que hablan sus padres para poder comunicarse con ellos en casa y en el trabajo... Después, durante varios años cultivan el alemán clásico para entender mejor el pensamiento religioso, la lectura y los comentarios de los salmos y la liturgia.

En 1972 sale una Ley Federal apoyando a los Amish en el logro de sus libertades fundamentales para conseguir un pleno ejercicio de los padres en la confección de los programas escolares, libres de la intromisión estatal.

En el sistema de vida del Deutch People (Pensilvania) las dificultades que se presentan a cualquier pueblo minoritario encuentran en el ejemplo de los Amish, una respuesta adecuada y un verdadero modelo de actuación.

V. EL BATUA

Podemos decir bien claro, en alta voz, que la gran revolución cultural de Euskalerría se ha manifestado a través de la llamada unificación del euskera, bautizada, por el pueblo en pleno siglo XX con el nombre de “Batua”.

Con elementos recogidos de las siete modalidades del euskera se ha pretendido imponer una lengua unificada. De cada modalidad de la lengua han seleccionado unas cuantas formas y han abandonado otras. Con ello han alterado el futuro del euskera formando así una lengua nueva.

Han presentado la unificación como un hito, una necesidad y una solución al pluralismo de las modalidades del euskera. En el fondo han creído realizar un ente más rentable. Lo han sabido imponer por la manipulación y por medio de los hechos consumados, creando un grupo de presión. Han transformado la no aceptación de gran parte de los clásicos de la lengua, en oposición silenciosa.

Han logrado hacerse con el poder académico, creando un nuevo sistema, con la adopción de la H. Surge la letra H como emblema antisabiniano, símbolo plástico de la revolución totalitaria. Sin embargo, conviene tener en cuenta que los batzokis también se han adherido al movimiento del Batua.

Ciertos criterios utilizados realzan los problemas incriminados. He aquí unas breves consideraciones acerca de esta cuestión espinosa:

1- Las lenguas no se unifican. Con la unificación de la lengua ésta se altera y desvirtúa:

Unas breves consideraciones lapidarias sirven para allanar los fundamentos de la unificación.

Existen tres lenguas mayores en el País Vasco: el francés, el español y el euskera. Los libros consultados por nosotros, los puede utilizar cualquiera.

Hemos tomado tres diccionarios de más de 50.000 palabras en euskera, castellano y francés. Hemos contado las palabras con H y hemos hecho la proporción a 50.000 palabras para cada una de las tres lenguas.

Los resultados son los siguientes:

- En euskera resultan 2.331 palabras con H.
- En castellano resultan 1.164 palabras con H.
- En francés resultan 1.137 palabras con H.

Las proporciones son:

Eukera	2.331 =	2
Castellano	1.164	
Euskera	2.331=	2,04
Castellano	1.137	

Es decir, el batua tiene el doble de palabras con H que el castellano y el francés.

Una pregunta capital: “¿Qué poder puede tener la decisión de la Academia de la Lengua al crear el “Batua” en aras de la unificación, cuando ésta no fue aceptada por la mayoría de los “clásicos” de la lengua vasca?”

Cruel testimonio sobre la implantación del “Batua” es la obra monumental de Bixente Latiegui y Dionisio Oñatibia, “Euskaltzaindia, el Batua y la muerte del euskera” –Lorea-, Artes Gráficas, 1983.

El gran peligro del “Batua” consiste en transformar el euskera en una lengua romance. Por primera vez, de manera descarada cae en esta tentación el párroco de Hernialde, Juan Irazusta (s. XVIII). Su definición de Dios es de antología: “Nor da jaingoikoa? Jaun bat infinitamente Poderosoa, Sabioa, Justoa principioa eta fiña gauza guztiena”.

En esta última tempestad cultural, miles de ejemplos nos sirven de botón de muestra. Un letrero en la mitad de la calle decía lo siguiente: “Pulsen el botón”, que equivale a decir: “Botoia sakatu”.

Para cerrar este capítulo, nada más luminoso que las palabras de Mauricio Molho, profesor de la Sorbona, discípulo de Gustave Guillaume, mundialmente conocido por sus trabajos de lingüística, que dijo en una conferencia dada en Nueva York (3/VIII-1983): “El genio de la lengua vasca consiste en la variedad de sus distintas familias. Suprimir el vizcaíno constituye la pérdida de una importantísima pieza de su propia estructura. El francés fue unificado por una larga tradición literaria y no por la Academia de la Lengua francesa”.

VI. EL EUSKERA NAVARRO – EL GRAN PERDEDOR

En el mapa lingüístico del Príncipe Luis Luciano Bonaparte (1863) aparecen los siguientes grupos del euskera en Navarra:

- El euskera Roncalés.
- El euskera de la Baja – Navarra, en el valle de Salazar y Aezkoa, así como en el enclave de Luzaide (Valcarlos).
- También reconoce otros dos bloques totalmente navarros:
 - El Alto Navarro Oriental que va Norte – Sur / Roncesvalles – Ibañeta, Este – Oeste / Urraul Alto – Goñi.
 - El Alto Navarro Occidental se extiende de las Cinco Villas / Atez / Baztan / Arbizu. Este euskera navarro fue utilizado por un solo escritor navarro, Mariano Izeta, miembro de nuestro equipo del “Diario de Navarra”.

El Alto Navarro Occidental prácticamente ha desaparecido del mapa. El euskera que se habla hoy en las ikastolas no es nuestro sino el “batua”. Dentro de poco no se hablará más el euskera de Navarra.

Con razón dicen los padres a sus hijos a menudo: “El euskera que aprendéis en las ikastolas no es el nuestro”.

Creo que llegado el momento de salvar el Alto Navarro Occidental y de proponer un plan de rescate rápido para ellos.

Se necesita dotar al Alto Navarro Occidental de un método moderno de aprendizaje de lenguas. El método Oñatibia (euskera radiofónico) nos parece ser muy apropiado. Conviene hacer con el Alto Navarro Occidental lo mismo que hizo Jon Oñatibia con el euskera guipuzkoano, bizkaino, labortano y xiberotarra. Esto nos permitiría asegurar una buena enseñanza de la variante del Alto Navarro Occidental para publicarlas cada semana, en la hoja en euskera del “Diario de Navarra”.

El método sería publicado por entregas hasta agotar el material.

Con el Alto Navarro dotado del método Oñatibia será posible tener un buen iniciador de la lengua de Navarra. No olvidemos que la lengua de los navarros se ha practicado durante miles de años en las cuevas de nuestros montes, bastante más que el tiempo que se ha practicado en nuestros caseríos.

El mismo método serviría para resucitar el Roncalés. Como fenómeno positivo se justifica hoy todo funeral para cumplir con la muerte del Roncalés, muerto ya! Justifican todo con lamentos: no nos debería de extrañar que otros se decidan a restaurar el Roncalés, vieja joya de Navarra y patrimonio del mundo. Surgirán almas nobles que lo hagan y Navarra será más rica. El “Diario de Navarra” puede ofrecerle esta oportunidad. Creo que se encontrarán almas generosas para restablecer el Roncalés en su sitio. Ese día será inmenso para Navarra.

VII. LA CONVIVENCIA HUMANA EN EL PLURALISMO CULTURAL

Estas consideraciones de carácter técnico nos obligan a plantear los fundamentos de la ética universal. Si logramos plantearlos con exactitud, reforzamos las bases mismas de la convivencia humana. Si las rechazamos, destruimos los esquemas de la paz social y del desarrollo pleno de los pueblos.

La cultura vasca está fundada sobre la existencia del pluralismo en la base misma de su funcionamiento: diversidad de contenido de la cultura humana, diversidad de la comunidad humana y pluralismo de lenguas.

Toda cultura humana se encuadra en esta dirección.

Todo ensayo hacia una uniformidad de la cultura nos conduce hacia el bloqueo del servicio a los demás, es decir, de lo contrario transformamos al hombre en esclavo.

En el fondo, el reconocimiento de la tendencia del hombre a la diversidad de opciones, nos lleva a la convivencia de la diversidad entre los ciudadanos. Con ello se abre un espacio continuo a la libertad. La primera operación nos lleva al respeto de la libertad de los pueblos, mientras que la segunda a largo o a corto plazo destruye los fundamentos mismos de esa libertad.

VIII. ANEXO: LA IGLESIA EN LA CUERDA FLOJA

Nos duele decir que la Iglesia a nivel oficial ha optado por la incorporación del “batua” en lo concerniente a las normas lingüísticas en los documentos oficiales. Así vemos que se ofre-

ce con ello un apoyo decisivo a la uniformidad, en menoscabo del pluralismo de opciones (comisión catequética, litúrgica, bíblica y documentación pastoral).

Sin embargo, la comisión bíblica de la Baja Navarra ha creído conveniente no hacer las traducciones bíblicas en el “batua”, por no ser ésta la lengua del pueblo y por hacérselo dificultoso la lectura de la Biblia en un texto que no entiende a la primera...

En cuestiones tan graves el pueblo de Dios debe ser consultado y escuchado con generosidad.

La honradez cubre a la Iglesia de gloria, con la ambigüedad se pierde el equilibrio. Necesitamos ser claros en las respuestas. No hacemos nada con ambigüedades. Ser o no ser la voz del pueblo es la más grande de todas. No sirve la voz de pocos que pretende hablar por boca de muchos.

Detrás de principios fundamentales encontramos ejes poderosos de acción: “entre un sistema totalitario y el mundo libre”. Los estamos haciendo continuamente con nuestros compromisos... Por qué esa falta de transparencia en nuestras vidas. Las ideas son reguladoras del orden en nuestra existencia.

IX. MENSAJE CAPITAL

El mensaje de los Amish a las familias que componen ese pueblo sirve para todos los que practican el euskera: “Amad a vuestra lengua materna sin descanso. Esa es la llave de vuestra victoria. Ser constantes en ese esfuerzo continuo”.

Sólo el que ama acierta.

Latzaga

Lizarra, 2001-IX-21

